









I-A-5-13


















27

**ESKU-LIBURUA**

**EDO**

**KRISTAUAREN EGUNEROKO**

**EJERZIZIOAK.**





ESKUPÍÐUR

KRISTJANNA EGGI

1880



M-11513

R-32052

ATI  
5.888

# ESKU-LIBURUA

EDO

## KRISTAUAREN EGUNEROKO EJERZIZIOAK

Mandamentu santuetatik examiña  
egiteko, konfesatzeko ta komulgatzeko pres-  
taerak, gerozko orazioakiñ,

### MEZA SANTUA

KALBARIOAK TA BESTE DEBOZIOAK,  
Jesusen Kompañiako

Aita Agustín Kardaveraz-ek

ANIMEN ONERAKO IPIÑIAK.



Obispo Jaunaren baimenarekiñ.

TOLOSAN,

Andrés Gurruchaga-ren moldiztegian,

1927-garren urtean.





## LIBURU ONI AÑADITU ZAIZKA:

*Koruan bezperak kantatzen diran artean persona debotoak letu ditzaketen Konsiderazio egokiak, naiz etxetan, eta aldareko Sacramentu Santuari egiten zayon bixita. Onetarako Vitoriko Obispo Jaunak eman du ondoren segitzen duan baimena.*

Obispado de Vitoria.—Prévia la correspondiente censura, venimos en conceder a V. nuestra licencia, por lo que a Nos toca, para la reimpresión en vascuence del Opúsculo devocionario que al efecto Nos ha sido presentado por V.; y ordenamos que al principio de tal librito se estampe este nuestro decreto y licencia.

Dios guarde a V. muchos años. Vitoria 1.º de Octubre de 1864.—DIEGO MARIANO Obispo.—Sr. D. Pedro Gurruchaga, impresor de Tolosa.

---

*Esta parte añadida es propiedad.*



---



## IRAKURLEARI ABISOA.



**I**RAKURLE ONA: ez arren berea-  
la askoren gisa ikaratu: liburu bat  
iriki orduko guztia beren gustora  
ezbadago, itxi nai dute. Zuk orre-  
la izan bear ez dezu: guztia berea-  
la aditzea, orren erraz ez da. Elei-  
zako gauzak edo Dotriña aditzeko  
gauza asko latinetik artu bear di-  
ra. Meza santuak eta Komunioak  
guk esan al baño Misterio esku-  
tuagoak dituzte: gure ditxa guz-  
tien iturri jatorrizkoak, oriek dira,  
Fede ta gogo onaz irakurten asi-  
zaitte, eta laxter edo nola ez daki-



zula, Eleizako dotriña ta misterio aundiak gustoz eta debozioz, diran guztiak adituko dituzu.

Bizkaitar asko gogotik asi, ta beren modura ta gurera txit erraz ta laxter egiñ dira. Igaz irakurten batere etzekien neskatx baserriko bizkaitar bat aurten euzkerazko ondo iltzeko liburutik bere Aitari, debozio miragarriaz, iltzen laguntzen Apaiz jaunak eta beste askok, arriturik ikusi dute. Onak eta beste baserrietako askok, jayetari bakarrik lezioa artu eta beste gabe, ederki ikasi dute. Nagusi alperrai ez zuk sinistu. Dotriñarik ere euzkeraz ikasi nai ez dute: ta Jainkoaren bildur gabe, ikasi nai dutenai ere gogoa kentzeko, milla gauza euskeraren



kontra esaten dituzte. Aurrak er-  
raz ikasten dutena, berak lotsaz  
edo lotsa gabe ikasi nai ez dute.  
San Agustiñek ziona: onai jarrai-  
tzeaz lotsa gera, eta onai ez jar-  
raitzeaz lotsa ez gera.

Animo bada kristau ona: ira-  
kurteari gogotik ematen badiozu,  
egiña dago guztia.

Naiz Bizkaitarra, naiz emengoa  
zerala: itz guziak berealakoan ez  
adituagatik, laxter orretara ta on-  
do aditzera egiñgo zera. Guk es-  
kolan kartillako orazioak, Miseri-  
kodizko obrak ta Kontriziozko  
Aktoraño, zer esaten genduan ez-  
geñekiela goiz guzietan kanta-  
tzen ginduzen euskeraz, ta arra-  
tsaldeetan erderaz. Eskola mai-  
suak au kontuz eragiten balute,



guzien buruetan ezer kosta gabe,  
laxter ta ondo orazio guztiak sar-  
tuko lirake: eta buruz dakiten ori  
ederki irakurriko lukee. Bide er-  
raza; goizean euskeraz, arratsal-  
dean erderaz cartillako orazioak  
irakurri ondo, eta liburu guzietan  
maisu eta ikasleak irakurten se-  
guru jakingo dute.







# ADIMENEZKO ORAZIOA

EDO IXILIKAKOA

## EGITEKO MODUA



Adimenezko orazioa egiñ aurretik eskatuko da Espiritu Santuaren grazia ondorengo Antifona, berso eta orazioarekin, eta ori bera egiñgo da meditazio guztietan

**A**toz, o Espiritu Santua, zure doayez bete itzazu zure fededunen biotzak, irazekiaz berengan zure amorioaren sua.

Ÿ. Zure espiritua bialdu ezaizu, eta egiñak izango dira.

R. Eta berrituko dezu, lurra-  
ren gañ itxura.



## ORAZIOA.

**O** zure fededunen biotzak Espiritu Santuaren argiarekin irakasi dituzun Jaungoikoa; iguzu zuzen jakitea Espiritu beronen erara, eta beraren konsueloaz beti gozatzeari; Jesukristo gure Jauna-gatik. Amen.

Egunero eta meditazio  
bakoitzean egiñ bear diran  
**AKTOAK.**

### PRESTAERAKO ORAZIOA.

**N**ere Jaun eta Jaungoikoa; txit irmero sinistatzen det Zu emen aurrean zaudela.

Adoratzen zaitut, nere Jaungoikoa, biotzeko mendetasun eta amorio guztiarekin, eta umilki es-




kutzen dizut nere pekatu guztien barkazioa.

Meditazio au eskeintzen dizut, nere Jaun eta Aita, eta uste det, emango didazula ondo egiteko bear dedan grazia. Orretarako zuenganatzen naiz, o nere Ama Birjiña txit santa, eta Aingeru eta Santuak, erregutu dezazuten nigatik, eta iritxi, meditazio au protxuarekiñ egiteko bear dedana. Amen.

Gero sosegu andiarekiñ asiko da irakortzen mediatu bear dan puntua, begiratzten diolarik Jaugoikoagandik etorri baltzayo bezela, bertan esaten dana egokituaz bere anima orduan arkitzen dan egoerari, eta onela ikusiko du bakoitzak beregan emendatu, zuzendu edo ondu bear duena, eta gero egiñgo ditu asmo edo propositu eragilleak eta oen ondoren erreguak eta itz eskariak naiz Ama Birjiñari, naiz Jesukristori, edo naiz Aita betikoari, artu duen asmoa ta deseatzten duen guztia egiteco konbeni zayon grazia iritxi dezan.



## MEDITAZIOAREN BUKAERA.



### EZKER EMATEA.

**E**skerrak ematen dizkitzut, nere Jaungoikoa, meditazio onetan gogoraerazo dizkidatzun pensamentu, biotzmugida, ta argimen onak gatik.

### EZKEÑIA.

**E**skeintzen dizkitzut meditazio onetan artu ditudan asmoak, eta eskatzen dizut berak obratz egiteko bear dedan grazi txit eragillea; eta orretarako erregutzen dizut Zuri, nere Ama Maria, ta zuei, nere deboziozko Aingeru ta Santuak, bitarteko jarririk, grazi auzirik iritxi zadazutela. Amen.



GURE AZKEN MUGAEN GAÑEAN,  
MEDITAZIO LABURRAK, ILLAREN  
EGUN GUZTIETARAKO.



Adimentuzko orazioa egiteko modua

**M**editazioaren faltatik dator anima batek espirituko gauzetan aingutxi aurreratzea. Eta ala, nor bere betiko salbazioaren egitekorik aundienean benetan aurreratu naiduenari, konbeni zayo aritzea egunero orazio mentalean edo meditazioan. Eta au erraz egiñ dezazun jartzen dizut erakus-bide labur au'

Lendabizi: Jarri zaitez Jaungoikoaren aurrean fede bizizko egiñtza baten bidez. Bigarrena: Uste izanik zere begien aurrin



daukazula, adora ezazu umiltasun guztiarekiñ. Irugarrena: Eskeñi zatzaizka gogo osoz, zuzenduaz berari zeran eta dezakezun guztia. Eskayozu argi dezala zure adimentua, mediatu bear dezun egia ondo ezagutzeko, ta irazeki dezala zure borondatea, egi onek erakusten dizuna egiteko. Oni deritza prestaerako orazioa.

Bigarren lekuan adimentuarekiñ egiñ bear dezuna da: Lendabizi, pisatzea kontuz puntu bakoitzeke itzak, konsideratuaz zearo oek ezan nai duten guztia. Bigarren, arretaz begiratzea, ea oraindañoko zure bizimoduã ongi dоторren meditatzen dezun egi aekiñ, sayatuaz gogoan ondo artzen, eta beraren importanzia ezagutzen,



Irugarrena, begirada bat ematea zure oraiño bizimoduari, ikusteko, ea maiz utsegiten dezun, eta zeren bidez, zure utsegiteen sustraya arkiturik, osotoro ateratzeko. Gauz oek gogoan ondo artzen, juzgutzen eta bere gañean pensatzen adimentuak egiten dituen lanetan dago batez ere meditazioa.

Irugarren lekuan, pasa zaitez emendik borondatearen zaletasun edo afektoetara. Lendabizi, damu egiazkoarekiñ gorrotatuaz lenagoko zure bizitza gaiztoa. Bigarren, asmo sendo bat artuaz andik aurrera egiteko meditazio orretan ezagutu eta ikasi dezuna. Eta irugarren, bukatuko dezu meditazioa itz amorez beteak zuzenduaz Tri-



nidade guztiz santuari, edo Jesu-  
kristori, edo Ama Birjiñari, edo  
Aingeru goardakoari, edo zure  
deboziazko Santuari, dembora be-  
rean berrituaz Jainkoaren amo-  
rezko aktoak, umiltasunezkoak,  
pazienziak, asmo onezkoak  
eta zuk bearren dituzun grazien  
eskaerazkoak. Au guztia da ora-  
zio mental edo ixilikakoaren az-  
keneko parte.

Meditazio onetan aritzeko bi-  
dea erraztutzeko, ipintzen dizut  
gai txiki bat, gizonaren az-  
ken mugaetatik aterea, zeren oen  
oroipena dan erremediorik indar-  
tsuena pekaturik ez egiteko, bada  
Espiritu Santuak erakusten digu-  
nez, oek gogoan darabilzkianak,  
egundano ez du pekaturik egingo.



( ECCLES. VII. ) Ari zaitez, bada, egunero ordu laurden batean berderik aín balio aundiko egia oetan pensatzen, orregatik meditazio bakoitza partitu da puntu batzuetan, oek banaka konsideraturik adimentua geldi dedin sinismen osotan eta osotoro desengañaturik, eta borondatea erabakirik, bere animaren salbaziorako alegin guztia egitera.

Jesukristoren errayak-gatik erregutzen dizut, gogoan ondo sarturik iduki dezazula, ezen, egia oetakoren bat ondo edo gaizki konsideratzean dagokeala; bear bada zure betiko zoriona edo gaitza.

Konsiderazio oetakoren batek, besteak baño mugida eta indar



geyago egiten baldiñ badio zure animari, geratu zaitez bertan dembora geyagoan, eta berritu ezazu biaramonean ere, zeren serbituko dizun protxu ta aurrerapen aundirako. Ala egiteko agintzen du San Ignaziok, orazioko maixu aundi ark.

Meditazioko dembora guztia ez da empleatu bear adimentuzko lan bakarretan: gai onetan egitekorik aundiena da borondatearen aldetik egintza irazekietan ari-tzea, nola dan, edo pekatuen gor-rotozkoa, edo Jainkoari beragan-dik artutako mesedeen esker ematekoa, edo lurreko ondasunen despreziozkoa, edo bizitza gaiztoa mudaturik, beste bat, munduko oitura galgarrien, gorputzaren atse-



giñen, eta deabruaren promes engañagarrien osotoro kontrakoa asteko asmo sendozkoa.

Berritu itzazu maiz Jainkoaren amorezko ta pekatuaren gorrotozko egiñtzak. Eska ezazu Birjiña txit santaren balimentu indarsua.

Egunero egiteko seinalatzen dan frutua, ez da beti berdiña; baña igartzen badiozu bizioren bat bentzutzeko, edo birtuteren bat irixteko, batek geyago laguntzen dizula besteak baño, ari zaitez artan urrengo egunean ez ezik ill guzian ere, baldiñ baderitzazu ala konbeni dala Jainkoaren glori geyagorako ta zure animaren onerako.

Baldiñ egunen batean edo bestean ez badezu betarik meditatze-



ko, irakorri itzazu beintzat bi edo iru bider egun artako puntuak, eta erabilli beti gogoan. Espiritu Santuak lagun dizazula, eta erre-gutu ezazu zure salbazioa benetan opa dizun onegatik.





# ILLAREN EGUN BAKOITZERAKO MEDITAZIOAK.

## LEMBIZIKO EGUNA

salbazioaren importanzia.

1. **N**ere salbazioa da egiteko bat osotoro nerea: egiteko onetan neronek pensatzen ez badet ¿nork pensatuko du nigmatik?

2. Egiteko au alako moduan da nerea, non, onetan dijoan nere anima, eta nere gorputza; nerau naizen guztia. Eta nik segurutzen ez badet, ¿nork neri seguratuko dit?

3. Da nere egitekoa, nondik dagoen zintzillik bezela nere eternidade guztia. Eta egiteko au nik



ondo egiten ez badet, ¿nork egiñ-  
go du nigatik?

¿Zertan nago bada? ¿zergatik  
nere anima salbatzeko ez det ale-  
giñ guztia egiten? Anima bakar  
au ambat maitatu bear dedan gau-  
zarik ez det, iñoiz illko ez dan ani-  
ma au da, nik dedan gauzarik ba-  
liosoen: bein bakarrik galtzen  
badet, guztia betiko galdu det.

*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Eskeñi zayozkatzu Trinitade  
guztiz santuari zure egiera guz-  
tiak Birjiña txit garbiaren, Ainge-  
ru goardakoaren eta eguneko San-  
tuaren bitartez, izan ditezen Jaun-  
goikoaren glori geyagorako ta zu-  
re animaren salbaziorako.



*Esango dezu iru bider, Gloria Aitari, etc.*

## **BIGARREN EGUNA**

**eriotzako orduaren eziñ jakiña.**

Sentenzia emana dago: *Ill bear naiz: ill bear naiz.*

1. Ez dakit, ordea, noiz: ill niteke ordu onetan bertan.

2. Nun, ez dakit: ill niteke okasio artan.

3. Nola, ez dakit: ill niteke pekatu artan. ¡Eta ain pozik pekatu egiten det! ¡Eta berriz ere ain erraz erortzen naiz pekatuan! ¡Eta pekaturako bideetatik ez det igesi egiten! ¡Zer fede da nere fedea!

*Meditazio onetatik atera bear dezun asmo ta frutua.*

Partituko dezu dembora, seña-



latuaz egunaren ordu bakoitzean egiñ bear dituzun gauzak. Alperrik galtzen dezun ordu ura balitke zure bizitzaren azkenekoa; eta ordu onek berak, ondo empleatu ezkerro, segurutu dizazuke salbazioa.

## **IRUGARREN EGUNA** **eriotzaren gaztigua.**

Supitoan iltzen ez banaiz, etorriko da eguna, zeñean esango didaten presta nadilla ondo iltzeko eta orduan.

1. ¿Izango det konfesatzeko lekurik, baldiñ gaitzaren indarrez ozta itz egiñ al izango badet?

2. ¿Izango det konzienzia esamiñatzeko demborarik, baldiñ bildur eta ikaraz beterik



neregan ozta egongo banaiz?

3. ¿Izango det damua artze-ko biotzik, aimbeste pekaturekiñ nastua egongo bada nere konzien-zia? ¡O nere Jaungoikoa! ¡Eta orduan zer egiñgo det! .

*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Egizu zure bizitza guztiko konfesio generala, lenago iñoiz egiñ izan ez bazenduen, eta egiñ izan badezu, ordutandik onerañokoa; zuzenduaz zure animaren kontuak, eta itzali itzatzu Sakramentu onen bidez konzientziaren kezka guztiak. Autu ezazu konfesore on bat, eta Jaunak ematen dizun dembora onezaz balia zaitez, zure bizitza gaiztoa



utzitzera osotoro erabakitzeke,

## LAUGARREN EGUNA

eriotzarako prestaera.

¿Zer egitea on izango det nik, eriotza santu baterako prestatzeko?

1. Len egiñ izana, ordu artan naiko dedan ura bera.

2. Ordu artan dirudinez eziñ egiñgo dedana.

3. Nere anima salbatzeko, ordu artan erremedio gabe egiñ bearko dedana. Nere pekatuen penitencia, kontriziozko akto irazekiak, pekatuako bideetatik iges egiteko propositu sendo sendoak.

*Meditazio onetatik atera bear*

*dezun asmó ta frutua.*

Gaurko nere lan eta egiñkizun



guztiak egiten sayatuko naiz, nere bizitzaren azkenekoak balira bezela. Egiño ditut nere pekatuak aibat kontriziozko akto, berrituaz emendatzeko proposituak. *Erreza zayozkazu San Jose-ri zazpi Aita gure.*

## BOSTGARREN EGUNA

iltzen dagoenaren egoera.

1. Dembora igaroak estutzen du; penitenzia egiñ gabe dauzkatzin aibeste pekatuk.
2. Oraingoak tristetzen du; aibeste irrisku kondenatzeko, eta ez du ikusten oetatik irtetzeko biderik.
3. Etorkizunak izutzen du; begien aurrean dauka eternidadea, eta ez daki, edo glorizkoa edo



infernuzkoa. Justuak ikaratuko dira; ¿zer egingo det nik pekatari errukarri onek?

*Meditazio onetatik atera bear dezun asmo ta fruitua.*

Konfesa zaitez bereala, gaur bertan, baldin pekatu mortalean arkitzen zeran kezka badaukazu; eta grazian zaudela baderitzazu, mesede onen esker ona ager zayozu Jaunari, erregutuaz berari eta Birjiña txit santari gorde zaitzate-la estadu onetan eriotzaraño.

*Erreza ezazu Birjiña txit santaren Letania.*

## SEIGARREN EGUNA

bizitzaren azkeneko unea.

1. Une artan anima bereziko



da gorputzetik, eta sentiduetako atsegiñ guztietatik.

2. Une artan aituko dira onrak, aituko dira aberastasunak, aituko dira adiskideak.

3. Une artan kondenatu niteke. Orain bizi naizen une au baldiñ balitz nere azkenekoa, ¿zer izango litzake nizaz? ¡O eternidadea zinzillik daukazun unea!

*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Examiña ezazu egunaren ordu bakoitzean, ea nola igaro dezun lenagokoa, San Ignaziok egiñ oizuen bezela; eta ar zazu oitura Birjiña txit santarenganatzeko, erlojua aditzen dezun guztian, esaten diozula *Abe Maria* bat.



## ZAZPIGARREN EGUNA

anima dijoa juiziora.

Iltzen naizen unean bertan nere anima izango da eramana Jaunaren Tribunalera. Uste izango det nagoela ikusten.

1. Nere oi barrunean Jesukristo nere kontra asarreturik dagoen, eta azkeneko sententzia ematera etorri zadan Juez bezela.

2. Ezkerreko aldetik infernuko deabrua txit alai, eta liburu aundi bat ipintzen nere begien aurrean antxe bat banaka irakorri ditzadan nere bizitzako pekatu guztiak.

3. Eskuikotik nere Aingeru goardakoa, liburu txiki batean irakortzen nik egiñ ditudan obra on pixkak, eta arpegi tristeare-



kiñ liburu au ipiñtzen nere begien  
aurrean. ¡O zer irudipena! ¡Zer  
ikustekoa! ¡Zer izua!

*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Gaur arratzean oeratzen zera-  
nean jarri zaitez iltzen dagoena-  
ren egoeran, uste izanaz esku ba-  
tean Gurutze Santua ta bestean  
kandela piztua dauzkatzula. Go-  
gora itzazu berriro meditazio one-  
tako puntuak, eta galde zayozu  
zere buruari: ¡Zer naiko nuke nik  
egitea, ordu au nere bizitzaren az-  
kenekoa baldiñ balitz?

## ZORTZIGARREN EGUNA

animaren juizio bakarrikakoa.

1. Txit estua ta bat banakoa  
izango da pensamentu guztien, itz



guztien, eta obra guztien kontu artzea. Salatuko naute tentatu izan ninduten deabruak, gaitzerako bidea nik eman nien lagunak, eta bere kezka eta imurtziakiñ aibeste bider kontuan ipiñi izan ninduen nere konzienziak berak.

2. Jueza izango da osotoro zuzena, eta errukirik gabea. Pekatuak bere aurrean egiñ nituen, eta ala, berak ikusi zuen guztia, aditu zuen, eta jakindu zuen.

3. Sententzia izango da urratu, aldatu edo mudatu eziñgo dana: an ez da izango apukorik, ez erregurik, ez beste inorenenganatzerik; edo betiko bizitza, edo betiko eriotza.

*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Gaur egun guztian erabilli eza-



zu txit gogoan Jesukristo Jueza-  
ren presentzia; eta edozein lani  
ekiñ baño len, esayozu zere bu-  
ruari. ¿Zer sententzi emango zait  
orain egitera noan gauz onega-  
tik? Oeratu baño len esan itzazu  
iru *Abe Maria*, eta muñ egiozu  
lurrari.

## BEDERATZIGARREN EGUNA

eriotz ondoreko animaren egoera.

1. Sententzia emandakoan, bal-  
diñ glorirako bada, anima be-  
reala joango da zerura doai ta bir-  
tutez apaindua: pozkida aundien  
artean Aingeru santuak laguntzen  
diotela. ¿Nork iritxi al izango du  
poz au! ¿zer nolakoa izango dan!

2. Sententzia baldiñ bada be-  
tiko penarakoa, anima, doai eta



birtute guztiak kendurik, bereala eramango dute deabruak infernura. ¡O zer pena izugarria ango garrretan sartzean!

3. Bi sententzi oetatik bat, beste alderdirik gabe eman bear zayo bakoitzari. ¿Bietatik zeñ izango ote da neretzat?

*Meditazio onetatik atera bear dezun asmo ta frutua.*

Gaur arratzaldean, konzientziaren examiña egiñdakoan, jarri zaitez pensatzen arretaz zure bizitza igaroaren gañean; eta begira ezazu, ea oraindano zer sententzia merezitu dezun eta oeratu baño len eman bear balitzazuke, nolakoa mereziko zendukean.

*Lurrean auzpez jarririk Aita*



*gurea bat iru Gloriarekiñ Trinitadade guztiz Santuari.*

## AMARGARREN EGUNA

**eriotz ondoreko gorputzaren egoera.**

Egizu kontu ill eta gero ere zere gorputza ikusten zaudela.

1. ¿Nola geratzen da? Illotza, oritua, itxusi ta izugarria. Ez ezer ikusten du, ez aditzen du, ez sentitzen du, eta ez mugitzen da. Bakarrik dago, eta inoren laguntza gabe.

2. ¿Zerekiñ dago jantzia? Zatar despreziagarrienarekiñ, edo, abitu pobreren batekiñ. Ematen duen izuak ayenatzen ditu guztiak beragandik, alako moduan non, ozta arkitzen dan ezta zera dijoakionik.



3. ¿Nora daramate? Eleizara, apaizak lagun dituela; eta oek ere uzten dute orazioak esaten diozkatenean, lur zulo batean sartu eta lurrez estali dezaten, antxe oñ azpian zanpatua, usteldua eta arrak jana izan dedin, Eta ¿au da, ainsteste erregalo eta gozamenturekin nik tratatzen dedan gorputza?

*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Bixita ezazu aldareko Sakramentu guztiz santua, eta gero kanpo-santura joanda ango obiedo sepulturak ikusirik, esango dezu bost bider. Au da, egunen batean nere gorputza ekarriko duten etxea, bertan usteltzera tar tar tean des-egitera.



Purgatorioko animak-gatik *Aita gurea* eta *Abe Maria*.

## AMAIKAGARREN EGUNA

bizitzaren agerbidea.

Bizi naizen artean, uneoro egite-ratzen dijoa nere bizitzaren agerbidea, ta etorriko da bera irakorriko dan eguna.

1. Irakorriko dira egiñ izan bear ez nituzkean gaiztakeri guztiak, baña ala ere egiñ nituenak.

2. Irakorriko dira egiñ ez banituen ere, egiñ bear nituen obra on guztiak.

3. Emango zait guzti guztiaren sententzi azkenekoa. Baña ¿zer sententzia? nere bizitzako obrakiñ nerau prestatzen ari naizena.



*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Zure bizitza igaroari pasada  
bat emanik, ikusi itzazu, egiñ  
bear ziñituen obrak egiñ gabez,  
egiñdako pekatuak; zenbat obra  
on utzi dituzun esamesen bildu-  
rrez edo beste motiboen batzuek-  
gatik, zenbat likitskeri egiñ di-  
tuzun: damutu zaitez batezaz eta  
besteaz: eta ar ezazu bizi modu  
berri on bat egiteko asmo sendoa.

*Erreza ezazu Trinitade guztiz  
santuaren Trisajioa.*

**AMABIGARREN EGUNA**  
**penitenzirako mugigarriak.**

Pekatu egiñ badet beartua na-  
go penitentzia egitera, ¿ala ez da?  
Baña ¿noiz egiñgo det?



1. Ill ezkero eziñ dikete denborarik ez dagoelako.

2. Eriotzan, da txit nekeza, denbora gutxi dagoelako.

3. Ez daukat bada nere eskuan oraiño denbora baizik; beraz, edo bereala egiñ bear det penitentzia, edo bestela oraiñ bertatik bildur izan bear det, egundaño egiño ez dedala.

*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Saya zaitez guztiai ematen ejemplo ona zure egiñakiñ, eta onerako gogoa ta bidea zere konsejua-kiñ, eskatuaz zere orazioetan lagun urko guztien salbazioa.

*Errezatuko dezu Errosarioa pe-  
katurako bidea eman al izan diez-  
tezunak-gatik, Birjiña txit santari*



*gogotik eskatuaz, arren zu zerala bide iñor kondenatu ez dedilla.*

## **AMAIRUGARREN EGUNA**

**azken-juizioko egunaren señaleak.**

Fedekoak dira juizioaren aurretik ikusiko diran señaleak, gure Erredimetzalleak lendanaz adierazi zituelako.

1. Izango dira asko txit: eguzkia illundua eta odei beltzez inguratua, illargia bere argia galdurik eta odol kolorekoa, izarrak eroriko dira, itxasoak marru egiñgo du, lurra idikiko da leize zulo aundietan, ikusiko dira lur ikarak, gerrak, izurriak, gorrotoak, etc.

2. Desditx oek guztiak izango dira supitokoak, eta ustekabe-koak: etorriko dira munduak ae-



tan gutxiena pensatuko duenean; munduan geyen geyena pekatu egiño danean, eta emendatzeko lekurik geroztik munduan izango ez duenean.

3. Izango dira ikaragarriak: zerutik eroriko da suzko euri jasa izugarri bat, eta onek bere garren artean ondatuak utziko ditu gizonak abereak, arbolak, erriak, gazteluak, jauregiak; itz batean, mundu guztia. ¡O zeñen su ikaragarria! Zensu gabeko kriaturak ere osotoro arriturik orduan geratuko baldiñ badira, ¿zer egiño dute pekatariak?

*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Gaurko egun onctan ari bear  
dezu egiten:



1. Jainkoaren Justiziaren bil-  
durrezko aktoak.

2. Zure pekatuen kontriziozkoak

3. Seme bat bere aitagana di-  
joan bezelako amorio eta errespe-  
toarekiñ, zu ere Jaunaren erruki-  
mentura joatekoak.

*Bukatuko dezun iru Aita gurea  
eta Abe Mariarekiñ.*

## **AMAMALAU GARREN EGUNA**

**gorputzen piztuera.**

Aingeruen tronpeta soñu ika-  
ragarrira:

1. Nere gorputz au piztuko da,  
dagon tokian dagola, an bertan.

2. Nere gorputz onekiñ oster-  
atutzera etorriko da nere anima,  
edo zerutik, edo infernutik.

3. Anima gorputzarekiñ batu-



takoan, gorputza ere geratuko da  
geyago illko ez dan moduan. Baña  
geyago ez ill izatea au ¿nolakoa  
izango da? ¿Madarikatuak ordu  
artan, bizitz onetako atsegiñ-kon-  
tentuak! ¿Bedeinkatua beti betiko  
emengo penitentzia!

*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Egizu gaur mortifikazioren bat,  
nola dan barau, zilizio edo onela-  
ko beste zerbait; utzi ezazu jan  
gabe txit zale zeran gauzaren bat,  
eta eskuratu itzazu sentiduak, ba-  
tez ere begiak, kentzen dituzula  
ikus mira alper guztietatik.

*Egiñ lurrean iru gurutze min-  
gañarekiñ itz gaiztoen peniten-  
zian.*



## AMABOSTGARREN EGUNA

### juezaren etorrera.

Jesukristo agertuko da bere gortearrekiñ garailari baten era-  
ra, odei gañetik majestade aun-  
dian Aingeruen alabantza guz-  
tikoen artean, Maria txit santa  
Apostoluakiñ batean aldamene-  
tik duela; agertuko da Juez-lana  
egitera.

1. Egillea dan aldetik, eska-  
tuko dit nere salbaziorako eman  
zizkidan ainbeste laguntza eta  
bideen kontua; eta nik esker ga-  
be onek ain gaizki enpleatu ni-  
tuenena.

2. Aita dan aldetik, eskatuko  
dit nerekiñ izan zuen ainbeste  
amorioren! kontua; eta nik, ezagüe-



ra gabe onek aiñ gaizki erantzun nionarena.

3. Erredimitzalle dan aldetik, eskatuko dit nigatik ixuri zuen ainbeste odoloren kontua; eta nik, basa-piztiak baño ere odolgiroago onek, ainbeste bider oñpean erabilli nuenarena.

*Meditazio onetatik atera bear dezun asmo ta frutua.*

Gorputzean erabilli ezazu gaur iru orduz penitenzia eragiteko egoki dan gauzaren bat, nola dan, gurutzea, katetxoak edo zurdazko soka gerrian, edo onelako beste zerbait, Jesukristoren pasioaren oroipenean. Erabilzu ere bularrean Gurutze Santu bat, laguntz eske berari, Aitarik amoriotsuenari bezela maiz deitzeko, bere



llaga txit santuak adoratuaz, eta oetako bakoitzari *Aita gurea* bat *Gloriarekin* esanaz.

## AMASEIGARREN EGUNA

### Konzientziaren agertzea.

1. Egiñ ditudan pekatu guztietatik, bat bakarra ere ez da geratuko ezkutuan. Guztiak izango dira irakorriak. Eta guztiak adituko dituzte. ¡Nolakoa izango dan orduko nere lotsa!

2. ¡Zenbat pekatu argitarako diran orduan, nik ixillik neuzkanak eta egundano aintzat artu izan ez nituenak! Zenbat izango dira pensamentuzkoak, nere kulpaz erreparorik egiñ izan ez nienak! ¡Zer aitzaki eman al izango det orduan?



3. Jaungoikoaren kontra egiñ ditudan pekatu guztien aurrean ipiñiko ditu berak egiñ dizkidan on eta grazi guztiak, arpegira emanaz, nola ostikoperatu dedan bere odol guztiz preziotsua, alperrik galdu bere Sakramentuak, eta gogor egiñ eta despreziatu bere biotz mugidak. ¡Zer desesperazioa nik orduan izango dedana!

*Meditazio onetatik atera bear dezun asmo ta frutua.*

Ordu laurden batean bederik erretira zaitez gaur Eleizara edo Gurutze santu baten aurrera, eta esamiña ezazu ondo zure konzienzia, bai egiñdako pekatu guztien, baña batez ere biotzeko deseo, afekto, gogo eta atsegiñ ütsezkoen



gañean, eta bai lenagoko konfesion gañean ere.

*Ezayozkatzu* Espiritu Santuari iru Kredo, *argitu* dizazun adimentua zure pekatuak ezagutzeko, eta gañera egizu kontriziozko aktoa.

## **AMAZAZPIGARREN EGUNA**

**on eta gaiztoen bereiztea.**

Onak eta gaiztoak alkarrekiñ bizi dira mundu onetan, eta ill eta gero ere, guziak leku batean lurpetuak izaten dira. Baña Juizioko eguna datorrenean, ez da orrela izango. Aingeruak aterako dira, eta bereziko dituzte gaiztoak justuen tartetik.

1. Eskuiko aldetik egongo dira autuak, eta benturaz oen ar-



tean ikusiko ditut, mundu onetan  
nik burla egiten nienak.

2. Ezkerrekotik egongo dira  
kondenatuak, eta benturaz nere-  
kiñ pekatu egiñ zutenak, nun  
eta etzuten emendatu beren bizi-  
tza gaiztoa.

3. ¿Zeiñ alde ote da egun ar-  
tan ni egongo naizena?

*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Debozio biguñ bat ar zayezu  
Aingeru santuai, batez ere zure  
Goardakoari, egun ikaragarri ar-  
tan kondenatuetatik bereziturik  
eraman zaitzan eskuiko aldera.  
Aiñ mesede aundia iristeko, bere-  
alatik ar ezazu aen argimen san-  
tuai obeditu eta leyalki jarraitze-  
ko asmo sendoa.



*Bederatzi Gloria, bederatzi Aingeru-Koroen onran.*

## **EMEZORTZIGARREN EGUNA**

### **azkeneko sententzia.**

Pekatariak justuakgandik berezitakoan, Kristok emango du sententzia.

1. Inoiz ere borratuko ez dan sententzia.

2. Berealaxe kumplituko dan sententzia.

3. Betikotasun guztirako beiñ bakarrik emango dan sententzia. Betiko madarikazioa pekatu egiñda beñere damutu nai izandu etzuenari. Betiko bedeinkazioa egundano pekatu egiñ etzuenari, edo pekatu egiñ bazuen ere, mugonez penitentzi egiazkoa egiñ zuenari.



*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Besoak gurutze gisan zabaldu-  
rik erreza ezazu estazio bat, eta  
lurrean auspezturik esan itzazu  
iru bider itz oek: *Jauna, egiñ det  
pekatu, erruki zaitez nizaz; egiñaz  
iru egimen:*

- 1.<sup>a</sup> Umiltasunezkoa.
- 2.<sup>a</sup> Damutasunezkoa.
- 3.<sup>a</sup> Jesus guruz-iltzatuari bar-  
kazioa iristeko eskari irazekizkoa

**EMERETZIGARREN EGUNA**  
**denboraren balioa.**

Denbora da ondasun bat pre-  
ziorik aundienekoa; une batek<sup>o</sup>  
ainbeste balio du, non, une bakar  
orretan beretu dezakean animak,



pekatuaren bidez galdu zuen Jaungoikoa. Konsideratuko det:

1. Zenbat on egiñ dezake-  
dan gaur bertan, eta egiten ez  
dedan.

2. Egun au badijoala, eta ge-  
yago etorriko ez dala.

3. Egun onen kontu txit eztua  
eman bearuko dedala, baña onetan  
ez dedala pensatzen. Eta orobat  
izango da nere bizitzaren une guz-  
tiena. ¡Nere zorigaiztokoa, gaizki  
enpleatu izan baldiñ baditut!

*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Saya zaitez igarotzen egun au,  
birtutezko obrakiñ zerurako ira-  
baziak geitzeko deseo santu ba-  
tekiñ, egiñaz guztiak animaren



onerako gai izan ditekean moti-  
bo santuren bategatik. Ala, Meza  
denboran ari zaitez egiten ado-  
raziozko, fedezko eta esker onez-  
ko aktoak: entzun ezazu erlijioz,  
karidadez, edo obedieneziaz. *Erre-  
zatu zayozu Errosarioa Birjiña  
txit santari, mesede ugariak eska-  
tuaz.*

## **OGEIGARREN EGUNA** **infernuaren gañean.**

¿Zer da infernua?

1. Da karzela illun illun bat,  
kate gogorren-pean lasaitasun eta  
libertadearen izpirik gabe bertan  
bizitzen dana.

2. Da suzko etxe bat, beti  
erretzen, baña inoiz ill gabe ber-  
tan egoten dana.



3. Da tormentu guztien leku bat, pena guztiak, arintasunik txikiena inoiz sentitu gabe bertan padezitzen dirana.

*Meditazio onetatik atera bear dezun asmo ta frutua.*

Sutan sartu ezazu eskua, edo para ezazu beatz bat kandelan argiaren gañean, idukiaz onela, albadezakezu, denbora pixkatxo batean, eta emendik kontu atera ezazu, nolakoa izango dan infernuko sua, zeñaren aldean emengo au angoaren antz edo irudia baikirik ez dan.

*Iru Salbe Ama Birjiñari.*

**OGEITA BATGARREN EGUNA**  
**kondenatuen egoera.**

¿Zer egiten da infernuan?



1. An ezagutzen da zein gaitz aundia dan pekatua, orain ain gutxi ezagutzen dana.

2. An padezitzen da, orain ain pena gutxi ematen digun pekatuaren pena.

3. An madarikatzen da, orain kentzen ez dan pekatuako bidea. ¡O pekatariaren zorigaiztoko bizitza, eta are zorigaiztoagoa, baldin emen nayerara bizitu bazan!

*Meditazio onetatik atera bear dezun asmo ta frutua.*

Ken ezazu bertatik pekatuan geyen geyena amilduerazotzen zaituen okasio, edo lagun, edo liburu, edo joku, edo etxe ura. Ezkeñi zatzaizka Jaungoikoari edozeñ neke bizitz onetan eramatera,



betiko penetan erortzetik libratze-  
agatik. Erregutu zayozu Jaungoi-  
koari eta Birjiña txit santari pe-  
katu mortalean daudenakgatik.

*Ama Birjiñaren Letania, edo  
nere Jesukristo Jauna.*

## **OGEITA BIGARREN EGUNA**

**salbazioaren eziñ jakiña.**

1. Pekatu egiñ badet infernua  
merezitu det, eta ez dakit ziertoro  
Jaungoikoak barkatu ote didan.

2. Kondenatu niteke, bada  
berriz pekatu egiñ dezaket; eta ez  
dakit ziertoro, okasioan jarri ez-  
kero, libratuko naizen erori gabe.

3. Oitura gaiztoak utzitzen  
ezpaditut, ez dago dudarik konde-  
natuko naizela: eta ez dakit zier-  
toro onduko ote naizen ill baño



lenago. ¿Zer izango da nizaz, baldiñ eriotzako unean, Sakramentuak artuta egon arren, leku ematen badiot biotzean pensamentu gaizto edo atsegiñ loi bati, nere bizitzan iduki dedan oiturak ¿ainbeste bider eragiñ didan pekatu ari? ¿Zer izango da nizaz?

*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Ar zazu bereala konfesatzeko asmo sendo bat, baldiñ arkitzen bazera pekatuan. Jarri ezazu arret aundiagoa maizen erori oi zeran pekatu ura emendatzeko, zeren bera dan zure salbazioa irrixku eta perill aundiagoan ipiñtzen dizuna!

*Zuaz Ama Birjiñaren aldare*



*aurrera, eta errezatu zayozkatzu.  
iru Abe Maria bere Zortze txit  
garbiaren onran.*

## **OGEITA IRUGARREN EGUNA**

**zenbat kondenatzen diran.**

1. Kondenatzen erraz da, infernurako bidea alabaña da guztiz zabala, eta askok jarraitzen diotena. Ala dio Kristo gure Jaunak.

2. Salbatzen gaitz da, zeren estua, dan zeruko atea, eta gutxi bertatik sartzen diranak. Jesukristo da au diona.

3. Munduaren asieratik oraiñdañoko gizon eta emakume geyenak kondenatu dira, eta aurrera ere, Santuak diotenez, geyenak kondenatuko dira. ¿Zer da nik nere buruaz uste dedana?



*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta fruitua.*

Otorduan utzi ezazu jan gabe  
gogokoena dezun jaki ura. Ken  
zayozu zere buruari, eman oi dio-  
zun gozaldiren bat pekatu gabe  
egian diteke-enetakoa bada ere.  
Erreza itzazu belauniko Fedeko,  
Esperantzakoak eta Karidadeko  
egimenak.

## **OGEITA LAUGARREN EGUNA**

**kondenatu baten aitormena.**

1. Asko eta asko egin du  
Jaungoikoak ni salbatze arren.  
Zenbat on egin ala gorputzekoak  
nola animakoak, bera amatzera  
ni kuturtzeko! Zenbat argitasun,  
zenbat gaztigu, zenbat Sakra-



mentu, zerurako bidean ni zuzen giatzeko! Palakatu nau eskeñi aundiakiñ: izutu nau amenazoa-kiñ: mugierazi nai izandu nau damutazunera; baña nere seta gogorrak guztia alperrik galdu du.

2. Txit erraz salbatu nitekean.....;A pekaturako okasio ura aurrenetikan ebaki izan banu! ;A gaztigu arzaz baliatu izan banintz! ;A iraun izan banu sendo propositu artan! Asmo indartsu batek, gaitz-bidea benetan ebakitze batek, garai onean egiñdako konfesio batek eramango ninduen zerura.

3. ;Eta nik ezerez bategatik kondenatu nai izandu det? Bai: ixtanpateko atsegiñ bategatik nago sentenziatua emengo betiko tor-



mentuetara. Bai: neronek ondo nekiela amildu naiz su eta garrezko leize ondogabe onetara, aintzat artu gabez konfessoreen onesanaz, ez nere konzienziaren ozkadak eta ez Jaungoikoaren errukimentua.

*Meditazio onetatik atera bear dezun asmo ta frutua.*

1. Esker aundiak emayozkatzu Jaungoikoari, kristau-errian jayotzeko grazia egiñ dizulako, eta ainbeste argitasun eman dizkitzulako: Orain bada, zure damutasun geyagorako gogora itzazu guztiak, batez ere bizi modu berria artu zenduen edo oitura gaiztoak utzi ziñituen aldetik dagozkizunak.



2. Erregutu zayozu Jaungoikoari kondenatzeko perillean arkitzen diranakgatik.

*Erreza ezazu iru bider Jesukrisnere Jauna.*

## **OGEITA BOSTARREN EGUNA** **betiko kondenazioa.**

¿Zer da kondenatzea?

1. Da Jaungoikoa galtzea, eta betiko galtzea.

2. Da su-gar bizietan erretzen egotea, eta beti ala egotea.

3. Da protxu gabe desesperatzea, eta betiko desesperatzea. ¡O beti! ¡O inoiz kaburik ez! ¡O eternidadea!

*Meditazio onetatik atera bear dezun asmo ta frutua.*

Soma ezazu gaur gorputza mor-



tifikatzeko moduren bat, nola dan, eseritzen zerauean sillari geyegi ez arrimatzea; belauniko zaudenean oñ bat airean idukitzea; bakardadean orazio egiten dezu-  
nean, besoak gurutze gisan zabaltzea; kalean zabitzean, begiak lurrera begira erabiltzea; eta mortifikazio zale danari erraz gogoratuko zayozkan beste onelako gauzak

*Errezatuko dezu Aldareko Sakramentu guztiz santuaren estazioa.*

## **OGEITA SEIGARREN EGUNA**

penitentzia gerorako ez utzitzea.

Pekatu egiñ det; beraz sententzia emana daukat: edo infernua, edo penitentzia. Berriz ere pekatu



egiten det, eta onduko naizen esperantzarekiñ bizi naiz kontentu; baña ¿nork seguratuko dizkit iru gauza oek?

1.<sup>a</sup> Izango dedala ontzeko denbora.

2.<sup>a</sup> Denbora izan arren, gogoia izango dedala.

3.<sup>a</sup> Beiñ ondu ezkerro, ez naitzela berriz eroriko eta kondentatuko.

*Meditazio onetatik atera bear dezun asmo ta fruitua.*

Begira zayezu gaur zure eskuai iru bider, bakoitzean esanaz: Esku oek igartu eta usteldu bearrak dira, oitu zaitez pensamentu au goizeoro burura ekartzen. Onela konbertitu zuen Santo Do-



mingok emakume pekatari bat.

*Bost Aita gure, Abe Maria eta Gloria, besoak gurutze gisan zabalburik.*

## OGEITA ZAZPIGARREN EGUNA

gloria.

Zeruko lenbiziko sarreran ¿zer progatuko det?

1. Bat batetango ondasun eta atsegiñ guztien ugalde bat gaitzaren kutsurik gabe. Gozatuko ditut poz kontentu guztiak penaren arrazarik gabe. ¡O zein aundia izango dan nere kousueloa!

2. Zorion eziñ aundiago oek gozatuko ditut Jesusekiñ, Ama Birjiñarekiñ, eta zeruko Aingeru guztiakiñ batean. ¡O zer el-



kartasun atsegiñezko ta zorionekoa!

3. Gozatuko ditut doatzuera guztiak, eta beti betiko, batere sustorik eta beñere galtzeko beldurrik gabe. ¡O zoriontasun esan al baño aundiagoak!

*Meditazio onetatik atera bear dezun asmo ta frutua.*

Edozein penak atsekabetzen, edo atsegiñak tentatzen naue-nean, esango diot nere buruari: zerua, gloria betiko zoriona, San Felipe Nerik, Kardenal egiñ naitzandu zutenean, esan zuen bezela. Zeruko ondasunen konsiderazioarekin ikasiko det lurreko guztiak despreziatzen, San Ignaziok egiten zuen bezela, esanaz: ¡Ay



zeñen uts eta despreziagarria iduritzen zadan mundu au, zerura begiratzan dedanean!

Esan itzazu iru *Kredo* Trinidade guztiz santuaren onran.

## **OGEITA ZORTZIGARREN EGUNA** **zerurako bidea.**

Bi bide baizik ez daude zerura iristeko, bata inozenziakoa, eta bestea penitentziakoa.

1. ¿Gordetzen det oraiñdik inozenzia, eta batayoan eman zitza-dan grazia? ¿A nere errukarria! ¿zenbat bider galdu dedan, eta besteai galdueraziko nien garbitasunaren kontrako pekatutzar itxusiakiñ.

2. Baña ¿egiñ det pekatu oen eta gañerakoen bear bezelako pe-



nitentzia? ;Zer penitentzia, baldiñ guzti guztian nere gogo eta nayera billatuaz, beti mortifikazioaren igesi, ibilli banaiz!

3. Au onela izanik, ;salbatu uste det eta nai det? Bai. ;Baña zein bidetik? Bi ate oetako bate-tik sartu bear naiz zeruan: ino-zenzia galdu nuen, penitentziarik ez det egiten; ;nola bada salbatu-ko naiz?

*Meditazio onetatik atera bear dezun asmo ta frutua.*

Altxa itzazu begiak zerurontz, eta zaude pensatzen zorioneko erri artan, uste izanaz ezen, baldiñ aitaturako bide bietatik, bati men menetan jarraitzen badiozu, antxe biziko zerala betikotasun guztian.



*Egiñ akto Fedekoak, Esperantzakoak eta Karidadekoak.*

## **OGEITA BEDERATZIGARREN EGUNA.**

**zeruaren irabazpena.**

1. Jaungoikoak ezer gutxi eskatzen dit ni salbatzeko: bakar bakarrik agintzen dit gorde dezadala bere lege santua; lege guztiz gorde erraza, guztiz zuzena eta guztiz ariña.

2. Onetarako Jainkoak berak laguntzen dit, bere aldetik gauzarik egiñ nekezenak erraztuaz bere argitasunen graziarekiñ, bere merzimentuen balioarekiñ, berak emandako jarraikayen indarrarekiñ.

3. Nik egiten dedan apur au



Jaungoikoak pagatzen dit betiko sariarekiñ; ixtanpateko atseka-beak betiko atsegiñarekiñ; nere neke eta pena laburrak betiko gloriarekiñ!.

*Meditazio onetatik atera bear dezun asmo ta frutua.*

Betiko sariaren aunditasuna konsideratzeak mugierazi bear zaitu, bera iristeagatik gauz aundiak egitera eta padezitzera, eta Trinitade guztiz santuari esango diozkatzu iru *Aita gure* eta *Abe Maria* iru *Gloriarekiñ*, ezagüerra au josia utzi dizazun zure biotzean.

**OGEITA AMARGARREN EGUNA  
eternidadea.**

1. Gizon eta emakume guz-



tiak joango dira beren eternidadeko etxera; beraz ni ere joango naiz. Etxe au nor berak bere bizitzan egiten du beretzat.

2. Ixtanpateko atsegiñ uts batekiñ gonbidatzen nau deabruak, eternidadeko nere etxea infernuan egitera, eta ni jartzan naiz artara.

3. Penitentzia gutxirekiñ deitzen nau Jaungoikoak, eternidadeko nere etxea zeruan egitera; eta ni uzkur jartzan nazayo. ¡O nere zentsu gabea! ¡Zeñen eroa naizen!

*Meditazio onetatik atera bear  
dezun asmo ta frutua.*

Oean sartzen zeranean, saya zaitez egoten ordu erdi batean be-



derik loak artu gabe eta alde batera bakarrik begiratzten dezula, edo burukotzat ol bat ipiñirik beste ainbeste denboran; eta onek ainbesteraño nekatzen eta asper-tzen bazaitu, esayozu zere buruari: ¿zèr izango da bada, infernuko tormentuak eternidade guztian sufritzea? Au bera esan ezazu naigabe, pena edo eramankizunen bat datorkizun bakoitzean.

Ama Birjiñaren zazpi Doloreen erreberenzian zazpi *Abe Maria*, bakoitzeoro lurrari muñ egiñaz.

## **OGEITA AMAIKAGARREN EGUNA**

**konzientziaren erantzuerak.**

1. ¿Zertarako para nau Jaungoikoak munduan? bakar baka-rrik nere burua salbatzeko.



2. ¿Zenbat gai ta bide eman dizkit nere salbaziorako? kontal al baño geyago ala gorputzaren nola animaren aldetik.

3. ¿Oraindaño zer egiñ det nik, salbatzeko? Al nezakean okerrena, eta kondenatzeko bakarrik mundu onetara etorria banago bezela.

*Meditazio onetatik atera bear dezun asmo ta frutua.*

1. Egizu aurreko illeko konfesio jenerala, eta examiña ezazu, zure animaren egoera ikusteko, ea bizioetan edo birtuteetan geyago aurreratu dezun.

2. Egiñ dezun gaizkiaz damutu zaitez, eta ar ezazu urrengo illa obeto enpleatzeko asmo sen-



doa, pensatuaz bera izan ditekeela zure bizitzaren azkenekoa. Eskeñi zayozu Jaungoikoari zeran guztia, zure anima, gorputza, almen eta sentiduak, obra, itz eta pensamentu guztiak, eta goizeoro jaikitzen zeranean, esan ezazu San Ignaziok esan oi zuen

## ORAZIOA.

Ar ezazu, Jauna, nere libertade guztia: ar itzazu nere memori, entendimentu eta borondatea beren jarduera guztiarekiñ. Zuk eman didazu nik dedan guztia, eta ala, ostera itzultzen dizut, batere urritu gabe, guztia osotoro ematen dizut, zere Probidenziarekiñ zuzendu ta gobernatu dezazun. Zure



grazi ta amorioa bakarrik eskatzen dizkizut, oekiñ nai ainbat aberats izango naiz: ez dizut eskatzen eta ez det nai ere ezer besterik.







## GOIZEKO ORAZIOAK.

*Aitaren, eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.*

Adoratzén zaitut, nere Jaungoikoa, ezagutzen det zure aunditasun gañ gañekoa, eta zure aurrean ni ezer ez naizela. Zu ofenditu baño len iltzeko grazia indazu.

Nere salbatzallea, gia nazazu



zurre legea kunplitzeko biotz samur bat emanaz.

Nere Jaungoikoa, maitatzen zaitut gauza guzieren gañean, eta eskerrak ematen dizkitzut zure ontasun neurrigabearekiñ ezer ezetik egiñ, eta infernutik libratu nazulako.

Atoz Espiritu Santua, bete itzazu zure fededunen biotzak, irazekiaz beretan zure amoriozko su sagradua.

Zure Espiritu Santua bialdu zaguzu. *Eta gure biotzak izango dira berrituak.*

## ORAZIOA.

¡O zure Espiritu Santuaren argiarekiñ fededunen biotzak eskolatu dituzun Jaungoikoa! egi-



zu, arren, Espiritu orrek berak maitatu eta gustaerazi dizaizgula gauza garbi zuzen guziak, izanaz bera gure poz eta atsegina, Jesukristo gure Jaunagatik. Ala izan dedilla.

**Maria txit santari esker onezko**

## **ORAZIOA.**

Birjiña txit Santa, zure amorio guziz biguñera joaten diran animen bitartekotasun segurua, eska zayozu nigatik zure Seme guziz Santu eta gure Jaun Jesukristori, izan ditezen beraren gustokoak gaurko nere pensamentu, itz eta obra guziak.

**Aingeru goardakoari Orazioa.**

Nere giari zerutar Aingeru



goardakoa, nere pekatu ta gaizta-  
keriakiniñ ainbeste bider triste-  
tu zaitudana, ez nazazu, arren,  
bakarrik utzi ainbeste arriskoen  
artean, ez nigandik alde egiñ,  
erori ez nadiñ askar-biurri beziñ  
gogorra dan etsayaren atzapa-  
rretan.

**Bere izeneko santuari**

## **ORAZIOA.**

¡O Santu aundi, Eleizak bitar-  
tekotzat neri emanik, nere anpa-  
ratzalletzat ezagutzeko agintzen  
didana! konfianza osoarekiñ zu-  
ganatzen naiz, nai dizut jarraitu,  
zuk utzi dizkidatzun bideetatik  
ibilliaz. Iritxi zadazu, nere bitar-  
tekoa, batayoan nere gañ artu  
nituen obligazioak kunplitzeko,



kristau onaren gisan bizitzeko, eriotz on baterako prestatzeko, eta zugandik datorkidan, eta zeruan iskribatua dagoen izen aude sonra dezakean gauzarik egundano ez egiteko grazia. Ala gerta dedilla. *Aita gurea, Abe Maria ta Kredo.*

## ORAZIOA.

Jaun guziz Altsu, gaurko egun onetara iristeko mesedea egiñ diguzuna, gorde gaitzazu bertan pekaturik egiñ ez dezagun; zure graziak giatuak izan bitez gure pensamentu, itz eta obra guztiak, zuzenduaz zure santutazunezko egiñ bideen kunplimentura. Amen.



## IRU ABE MARIAK

*Goizean, eguerdian eta illuntzean orazio-ezkillak jotzean esaten da:*

Jaunaren Aingeruak berri ona eman zion Mariari; eta Espiritu Santuaren obraz aurdun arkitu zan. *Abe Maria.*

Ona emen Jaunaren serbitzaria; egiñ bedi nigan zuk diozun beze-la. *Abe Maria.*

Jainkoaren Semea Gizon egiñ zan: eta gure artean bizitu zan. *Abe Maria.*

## ORAZIOA.

Iguzu, Jauna, zure grazia gure biotzetan, zure Semearen Gizatazunezko misterioa, Aingeruak adierazirik, ezagutu degunok, be-



raren Pasio-Eriotzeen merezimentuakgatik izan gaitean eramanean zeruko erreinura. Jesukristo gurre Jaun berperagatik. Amen.

## MAYEKO ORAZIOAK

*Bazkaltzerakoan eta apaltzerakoan.*

Zure bedeinkazioa iguzu, Jauna, eta artzera goazen janaria ere bedeinka ezazu, iraun dezagun zure serbitzu santuan. *Aita gurea, Abe Maria ta Gloria.*

### Bazkaldu ta Apaldutakoan.

Eskerrak, Jauna, eman diguzun janariagatik, eta orain gorputzeko mantenua bezela, uste degu, betiko zoriona ere egunen batean emango diguzula. Amen. *Aita gurea, Abe Maria ta Gloria.*



Zure izen santuakgatik Jauna, betiko bizitza gure ongille guziai eman zayezu. Amen.

## ARRATZERAKO ORAZIOAK.

*Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.*

### Adoraziozko aktoa.

Aurrean zauzkadan Jaungoikoa, adoratzen zaitut umiltasun guziarekin, maite zaitut biotz biotzetik, eta bukatu nai det eguna zure serbitsuan.

### Ezker-onezko aktoa.

Eskerrak ematen dizkitzut, nere Jaungoikoa, egiñ dizkidatzun mesede guziakgatik, eta batez ere zure anz irudira egiñ, zure Seme maitearen odolarekiñ infernutik libratu, eta zure miserikordiare-



kiñ gorde nazulako. *Aita gurea  
eta Abe Maria.*

## ORAZIOA.

Jauna, oraindaño bizia gordeaz  
nere utzegiñak zuzentzeko bear  
dedan denbora eman didazun ez-  
kero, umil umilki erregutzen di-  
zut, indazula Espiritu Santuaren  
argia, egun onetan egiñ ditudan  
pekatuak ezagutzeko, men mene-  
tan gorrotatzen ditudala, satisfa-  
zioa eman dezayodan zure justi-  
ziari, on deritzazun penitentziare-  
kiñ. Ala izan dedilla,

### **Arratseko orazioaren bukaera.**

Gure Jaun Jaungoikoa, egizu  
egon gaitezela beti ernai, bada  
deabrua inguruan dabilkigu, otso




amorratuaren gizan, nor eskuetaratuko ote duen, irentsitzeko. Iguzu, arren, indarra berari gogor egiteko, eta zure fedean irmo irauteko, bada zera denbora guzien denboretan bizi eta erreinatzen zauden Jaungoikoa. Amen.

Bixita ezazu, arren, Jauna, bizileku au, ayenatuaz bertatik gure etsai deabruaren astruzi guziak, zure aingeru santuak daudela bertan gu pakean gordetzeko, eta zure bedeinkazioa beti gurekiñ izan dedin. Jesukristo gure Jaunagatik. Amen.

Jaungoiko guziz Altzu eta erukitzu, Aita, Semea ta Espiritu Santuak gau on eta azken doatsubat digula, eta bedeinkatu eta gorde gaitzala beti. Amen.





## ONDO KONFESATZEKO EJERZIZIOA.

Konfesatzeko gogoa Jaungoikoak ematean, fabore aundi bat egiten dizu. Intentzio ori zuk artzean zeregana bezela ta zure biotzean sartu bear dezu, ta bakartasun orretan pensatu Sakramentu onetan peka-



tuetatik Jaungoikoagana, biurtzeko, bear dezula: Lenengoa: beraren grazia beti pres dagoana: Bigarrena: prestatzeko denbora. Irugarrena; pizkortasuna, edo zure egiñ-naya. Jaunari bere ofensa guzien damu aundi bat eskatu bear diozu, eta konzientzia ondo esamiñatzeko grazia esanaz:

## ORAZIOA.

Nere Jaungoiko guziz ona! Nere gaitz guzietan zugana biurtu nai det; baña orretarako nere pekatuen illuntasun onetan argiaren bear naiz. Mundu galduaren argi, ta erremedio bakarra zu zera. Zure miserikordi aundiagatik, arren, Jauna, nik bear dedan argia indazu: nere konzientzia illuneko bazterrak ondo ikusteko, eta nere kulpak, nere animan diran bezela eza-gutzeko. Betor zure grazia, oriek ondo pisatu eta eskatzen duten damu eta proposituaz bear bezela



konfesatu nadiñ. Ori, Jauna, de-  
seatzen det; ori erregutzen dizut,  
eta ala uste det alkantzatzea Je-  
sukristo zure Seme Jauna-gandik.  
Amen Jesus.

## Ama Birjiñari eta Santuai

### ORAZIOA.

Zeruetako Erregiña, Jainkoa-  
ren Ama txit santa, eta zugana  
negarrez datozen pekatari guzien  
miserikordizko Ama; gurutzearen  
oñean zure Semeakiñ nigatik iga-  
ro ziñituen penak-gatik, eskatzen  
dizut, artu nazazula zure anpa-  
roaren azpian, beraren Pasio eta  
merezimentu santuaz konfesio  
onetan ni aprobetxatzeko. San  
Jose guziz doatsua. Jesus eta Ma-  
riarentzat bitartekorik maitiena,



biakiñ egizu nere pekatuen damu egiazko bat nik alkantza dezadala. Zeruko Santu eta Aingeru guziak, eta zuk nere Aingeru guardakoa, erregutu ezazu penitentzizko Sakramentu santu au ondo artzeko presta nadiñ. Amen.

## KONZIENZIAKO ESAMIÑA.

Eskola duenak, liburu askotan daukate esamiña au egiteko modua; irakurten ezdakiten euskaldunari, dakiñ batek irakurri ta ori errazago egiteko bidea nik eman nai diet.

Mandamentuetan, zierto ez dakitenak zenbat bider pekatu egiñ duten beren modura esan bear dute *onenbeste bider gutxi gora bera*. Eta *b. g. g. b.* letra oek ori esan nai dute.

## Lenengo Mandamentuan

Bizi guztiko pekatuak billatu nai dituanak, galdera bakoitzean ezagüera zuenetik asi bear du.



Esamiña onetan galde zere bu-  
reari: Jainkoaren lege ta dotriña  
edo jakiñ bear ziran gauzak bere  
denboran ikasi ziñituen edo ez: ta  
zure ume edo kontuzkoai erakutsi  
zinizkien edo ez.

Fede, Esperanza ta Karidadez-  
ko aktoak egiñ dituzun.

Fedeko gauzen kontra ezer si-  
nistu dezun, ezagaturik Fedearen  
kontra zala; oartu ezkerorrela-  
ko pensamentu edo dudari leku-  
rik eman diozun. Baña tentazioak  
nai eztezula burura etortzea, ezta  
dudarik, ez dala pekatu, kentzeko  
alegiñak zuk egiten badituzu.

Amesetako gauzetan, sorgiñke-  
ri edo orrelakoetan xiñistu dezun,  
edo orrelakorik egiñ, edo eragiñ  
dezun.



Jaunaren miserikordiaz desesperatu dezun.

Jaungoikoaren, Ama Birjiñaren edo Santuen kontra aserratu edo blasfemiarik esan dezun,

Madarikaturik edo eskomunikaturik egon zeran.

Konfesio edo Komunio gaiztorik egiñ dezun, pekatuak berariz edo lotsaz, edo bestela utziaz, dolore edo proposituaren faltaz, zenbat konfesio gaizto urtean izan diran.

Penitentzia kunplitu gabe utzi dezun eta zenbat b. g. g. b.

Urteroko konfesio edo Pazkoe-tako Komunioa utzi dezun. Baña jakizu eze, konfesio gaizto ta Komunio sakrilegoaz edo gaizki egiñaz Elizarekiñ kunplitzen ez tala.

Sakramenturik, nola dan Ez-



kontza edo besterik pekatu mortalean zaudela artu dezun.

Boto edo promesa Jainkoari edo santuai egiñik, kunplitu gabe zure kulpaz utzi dezun.

Besteen debozioaz, birtutezko obra, ejerzizio ta obra onaz, edo orietan dabiltzanaz burlarik egiñ dezun.

### **Bigarren Mandamentuan**

Juramentu falsorik edo gezurraren gañean egiñ dezun; zenbat b. g. g. b. Ezer ezen gañean, edo ezer inporta ezagatik, juramentua gezurrarekiñ dan guzian, beti da pekatu mortala.

Dudan, edo ala zan edo ez gauza jakiñ gabe, dudaren gañean zier-totzat juramenturik egiñ dezun.



Errepararo gabe, naiz gezurra, naiz egia dala, juramentuak egiteko oiturarik izan dezun.

Gaitz andiren bat inñori egiteko eta kunplitzeko intenzioaz juramentu egiñ dezun. Gaitz egiteko intenziorik ez bazan ere, beti da pekatu mortala; zeren gezurrarekiñ dan. Gaitz aundi, edo pisua da masalleko bat ematea, ta beste gaitz aundiagoak.

Pekaturen bat ez egiteko, edo obra onen bat egiteko, juramentu egiñ eta ausi dezun, zenbat b. g. b. Gauza txikien gañean juramentu ausitzea pekatu beniala da.

Pekatu mortalen bat egiñ duela, bere burua alabatzea, edo egiñgo duela esatea, naiz egia



naiz gezurra dala, beti da pekatu mortala; orren gañean juramentu egitea eta gero kunplitzea, da beste pekatu mortal bat.

Justiziaren aurrean juramentu falsorik egiñ dezun; edo besteri eragiñ diozun; ta iñoren kaltean zan.

Juramentuak berez nola diran eta zer itz modu juramentu diran edo ez diran, konfessore jakintsuak bakoitzari ondoena esango dio.

Juramentutzat itzen batzuek artu edo iduki badituzu, eta gezurraz edo dudan, ziran: orrela konfesatu bear dituzu, eta geroko jakkiñ ondo, juramentu noiz diran.

### **Irugarren Mandamentuan**

Lanik, premi gabe igande edo



jayetán egiñ edo eragiñ dezun: jayetán nezesidade gabe lana egi-  
tea beti da pekatu. Noiz dan  
beniala edo mortala konfeso-  
reak esango dizu.

Jai egunetan zure kulpaz meza  
utzi dezun, edo besteri entzutea  
eragotzi diozun.

Batek uste bazuen meza izango  
zala, eta alegiña egiñ, eta ez ar-  
kitzea mezarik, ezta kulpa.

Meza galtzeko peligroan zure  
kulpaz egon zeran.

Bidezkoai, aur txiki dunai ta  
eriakiñ daudenai, zer egiñ bear  
duten konfeso-reak esango die.

Mezaren parte andian izketan,  
batera bestera begira egon zeran,  
edo orrela besteri eragin diozun.

Garizuman arraultza edo esne



gauzarik, bulda gabe, jan dezun; eta artzeko intenzioa ezta azko.

Ogeita bat urte kunplitu ezke-ro Elizako barau egunak gorde dituzun.

Premizia ta amarrenak edo Eleizak oyen ordañez jarri dituanak, bear bezela pagatu dituzun.

### **Laugarren Mandamentuan**

Onetan umeak gurasoai zor diozkate *amorioa, errespetoa eta obediencia*. Begira ezazu bada ondo oyen kontra gauza pixu edo anditan faltatu dezun: begira ondo zurre denborako obretan, itzetan ta beste moduetan nola, zertan eta zenbat b. g. g. b. uts egiñ dezun Jainkoaren lege onen kontra.

Gurasoen izenean emen aditzen



dira gurasoen ordeko guziak, eta nagusi etxekoandreak.

Orrelakoen testamentu eta mandak, zure kontura daudela, kunplitu gabe utzi dituzun.

Emen gurazoak, orien ordeko eta nagusi-etxekoandreak begiratu bear dute beren obligazio andiai nola erantzun dien; umeak edo beren kontukoak nola azi dituzten, ala dotriñan nola oitura edo kostunbre onetan, ta Jaunaren bildurrean. Edo gaitzerako biderik, ejemplo gaizto edo eskandalorik, eman dien. Edo beren denboran estadua ematen dien; edo ori ondo ta pekatu gabe artzeko bidean lagundu dien.

Jokoan, tabernan edo bizioetan etxerako biar zana galdu duten:



edo etxean bizi gaiztoa ematen duten.

## **Bostgarren Mandamentuan**

Zere buruari edo besteri eriotza edo gaitz andirik deseatu diozun: edo iñor ill dezun, eritu, maki-lladarik eman, edo beste gaitzik egiñ edo deseatu diozun, zenbat b. g. g. b.

Iñor itzez bere arpegian gaizki tratatu dezun.

Aserre-aldi edo okasiorik billatu dezun, edo orrelakoetan arkitu zeran; edo pekatu mortalean zaudela eriotzaren peligroetan edo okasioetan sartu zeran.

Iñoren gaitz andiaz zere biotzean atsegiñ artu dezun, edo iñoren onaz damurik izan dezun.



Diosala, edo itza aserrez iñori ukatu diozun. Gorrotorik biotzean iñoren kontra iduki dezun.

Madarikaziorik edo biraorik iñori bota diozun. Jan-edanean geyegi, zure osasuna edo buruaren kaltean ezagaturik, sartu zeran; ta guzian zembat b. g. g. b.

Aurrik galtzeko edo abortoren batean kulparik izan dezun.

## Seigarren ta bederatzigarren Mandamentuetan

Emen begiratu bear dezu, zer pekatu egiñ dituzun pensamentuz, itzez, eskuka, ibilleraz ta obraz ta zer personakiñ edo ta zer estatutakoakiñ, ta zenbat b. g. g. b. Esan bear diran estaduak dira; 1.<sup>a</sup> libreak ziran; 2.<sup>a</sup> ezkonduak edo



katigu zeudenak; 3.<sup>a</sup> Jainkoari konsagratuak; 4.<sup>a</sup> zure aideak laugarren graduraño; edo lenago pekatu egiñ zenduenaren eta geroago egiñ zenduenaren arteko aidetasuna bigarren graduraño. Ta ezkondua bazera zure gizon edo andrearen aide zan, ta au laugarren graduraño. Besterekiñ pekatu egiñ ezkerro, oyek dira esan bear diran estaduak.

Pekatu guzietan zure estadua esan bear dezu; libre ziñala zenbat, ezkondu ezkerro zenbat: boto edo juramentu onetan pekatu ez egiteko ezkerro zenbat.

Leku sagraduan onelako pekatu rik egiñ dezun.

Pensamentu loyetan atsegiñ artu dezun edo ezagutu ezkerro



zure artean atsegiñ artzen egon zeran.

Gogoz edo deseoz orretan kontsentitu dezun: “Nik onelako gauza edo gusto egiñgo nuke urliarekiñ.” Ta esan bear da estadua, ta zenbat b. g. g. b.

Pekaturako iñor billatu eta tentatu dezun: ixil-mandatu, erregalo, billete edo bestez baliatu zeran

Orrelako bide edo pausoetan iñori lagundu diozun; edo pekatuen estalki edo infernuko mandatarari izan zeran.

Itz desonestorik esan dezun atsegiñ artzen, edo besteri arrezotzen diozula: eta anbat da kontu lasayak kontatu, kanta loyak kantatu: edo danza, balseo itxusi nastuetan ibilli, edo karta torperik



egiñ dezun: kopla edo nobela gaiztorik eskribitu, biraldu, artu edo irakurri dezun.

Pekatu egiñaz iñoren aurrean zere burua alabatu dezun edo orrela bere pekatuaz alabatzeko iñori biderik eman diozun.

Pekaturik asmatu, edo egiñ bazendu bezela kontatu diozun.

Pekatu ez egiñaz damutu zatzun: guzian zenbat b. g. g. b.

Obrazko pekatu edo orien okasioaz kanpora, begirada torpe, eskuka, musuka, edo ibillera orrelakorik izan dezun: personen estadua ta zenbat b. g. g. b.

Zere buruarekiñ pekatu itxusirik, anima ta gorputza loituaz, egiñ dezun; (bear duenak aditzen du, ta geyago ez da esan bear), ta



onelako itsuskerietan ere gogoan  
iñor zendukan, eta zer estaduta-  
koak; zenbat bider edo zenbat  
denboran oitura ori edo kostun-  
brea iduki dezun.

Amesetan orrelakorik iduki-  
tzea deseatu dezun; edo amesetan  
orrela idukitzeaz gero atsegiñ ar-  
tu dezun. Baña bestela ames gaiz-  
toetan berez pekaturik ez da.

Besteren bitartekoz iñor peka-  
tura erakartzen baliatu zeran; edo  
iñoren adiskidetasuna aurrera  
eramateko.

Pekatuetan aurrik ez izateko  
ezer egiñ dezun; edo aurren bat  
berea duela jakiñ, eta ukatu ta  
galtzen utzi dezun.

Ezkontzeko itz gezurrezkoaz  
edo bestela pekaturako iñor enga-



ñatu dezun; edo nai ta ez pekatu-rik eragiñ, edo donzellarik orrela galdu dezun.

Ezkonduak ezkontzaren zor santua kausa gabe edo gaitzez alkarri ukatu dioten; edo bestela Matrimonioko Sakramentuaren kontra pekatu egiñ duten.

Bestela mutillak mutillakiñ, edo ikusi edo eragiñaz, edo gizonak alkarrekiñ, neskatx, edo andreak alkarrekiñ Sodomako pekatari galduen gisa egiten dituzten nazkagarriko gauzak; ta are geyago abereakiñ; orrela egiñak ez dira aztuko: onelako pekatuak kezka eta imurtzi asko emango diote bakoitzari bere biotzean ondo konfesatu artean.

Onelako pekatari gaixoak, Ze-



ruko Aitak bezela, konfesoreak lastimaz ta amorioz beterik artu bear ditu, ta soseguz eta pazienziaz aditu. Ta gero esan eta adierazo bear die alegiñaz, gaitz eta desdix oriek Jesukristoren oñetan beiñ ondo esan ezkerro betiko libre daudela.

Emen abiso ta erregla konsuelo aundiko bat eman bear det; Kristau beldurti ta lotsatia, jakizu zeruko dotriña au. Seigarrenaren kontrako pekaturik, diranak dirala, diran itsusien ta ikaragarrienak badira ere, naiz zure aiderik urkoenakiñ, nola diran Aita edo alaba, naiz abere edo animaliak askorekiñ egiñ badituzu ere, zure pekatu oriek berez eztirala erejiako pekatuak. Jakizu, oriek gu-



ziak zuri barkatzeko Erromara joankizunik ez dala. Konsola zaitte tristea, ortxe zure errian Bulda dezula, edozeñ konfessore aprobatuak pozik eta erraz ondo konfesatu ta absolbituko zaitu.

Jakizu azkenik, konfessorea ez-tala arrituko orrelako zure pekatuakiñ; badira oriek baño kezka geyago ematen duten pekatuak: zure oriek erraz kentzen dira ta sekulako aztutzen dira. Ta ala konfessoreak, erreko balute ere, edo, txikitu, ta illko balute ere, zuk ari konfesioan esanikako pekatuak ez Juezai, ez beste munduan danari sekulan eziñ esango dio. ¡Ay konfessore Jaunak! ¡ojala egia oyek guzien biotzetan ondo josirik betiko baleude! Deabrua-



ren gezurrak sinistu ta ainbeste anima galduko ez lirake.

Baldiñ pekatuen lokatzetan sartu: ta luzaro edo urte askotan amantzebatuta jarririk bezela, zere buruarekiñ edo beste askorekiñ egon bazera naztu ta oitura gaiztoenaz loturik, orduan ere zure esamiña ta kontuak egiten txit erraz da: begira ezazu zenbat denbora iraun zuan pekatuko bide edo okasioak, ta illean edo astean zenbat ziran bataz beste, egunero edo beti ziran, edo nola.

Zuk zure animaren kalteak bizimodu txarrak ta pekatuen peli-groak ondo ezagutu, ta horondate osoaz ta egiazko gorrotoaz bide orietatik iges egiteko propositu



eragillea badakartzu, pekatu gu-  
ziak ta orien arantzak ondo ta  
sustraietatik, aterako dira, zuk  
konfesoreari esan edo onek zuri  
galdetu ta lagunduaz, ta onela zu-  
re anima konfesio oso batekiñ beñ  
betiko Jaunaren pake gozo eta  
amorio santuan geldituko da; ta  
aurrera lengo pekatu edo gauza-  
rik ez geyago nastu ta erabilli.

### **Zazpigarren ta Amargarren Mandamentuetan**

Iñori ezer ostu, ebatsi edo ken-  
du diozun: zenbat edo zer, ta zen-  
bat aldiz, gauza sagradurik edo  
leku sagraduan.

Iñori bere aziendan kalte andi-  
rik egiñ diozun.

Ezer ostutzen, edo kalte egiten



iñori lagundu diozun: ezer estali edo orrelakorik agindu dezun; nola, ta zenbat b. g. g. b.

Bide gaiztoetatik, edo gauza gaiztorako iñoren ondasunik deseatu dezun: gauza onetarako ta modu onean ondasunak deseatzea ez da pekatu mortala.

Tranparik jokoetan, tratu, artu-emanetan, neurri edo pisuetan egiñ dezun: zer kalte ta nola egiñ dezun, edo gaizki eraman da; eta zenbat b. g. g. b.

Dakizula iñori berea kendu, edo zor diozula biurtu edo erres-tituziorik egiñ gabe egon zeran; edo konfesoreak agindu ta esan nola egiñ bear dezun, ta nagikeriaz kunplitu gabe aldezula, egon zeran. Orobat beste zorrak pa-



gatu gabe orrela utzi dituzun.

Artzeko dun justuak, langilleak, mirabe edo serbitzariak, berena kobratzeko pagatu nai ezik aldezula, gaizki erabilli dituzun, ta zer kalte onetan egiñ diezun.

Seme ta alaba edo umeak beren gurasoai, ta lagunaren ume edo kriaturak beren nagusiai ezer ostu dien, askotan, puskaka edo nola, ta zenbat b. g. g. b.

Relijioan sartzea inñori erago-tzi diozun, edo konseju gaiztoa-kiñ atzeratu eta orrela enbara-zatu diozun.

### **Zortzigarren Mandamentuan**

Testimonio falsorik, edo gezurrez inñori altxatu diozun, edo ino-



ren kalte andian gezurrik esan dezun eta nola.

Gauza jakin edo publikoa ez-tala, inoren pekaturik agertu dezun, edo gauza pisuetan murmuratu dezun.

Bakoitzari bere fama edo kreditua gaizki kendu edo galduerazoz diozun; ta bear bezela biurtu diozun ala ez.

Sekretozko gauzarik azaldu, edo karta bear ez danik idiki dezun.

Juizio gaiztorik, ezer ez dago-kiola, inorentzat egin dezun.

Azkenik bakoitzak bere estadu ta bizimoduko obligazioak jakin ondo, ta begiratu edo esaminatu bear ditu zertan utsegin duan jakiteko ta obeto erremediatzeko.

Beste kulpa asko, emen ezdau-



denak, jakiñak dira edo gutxitan oi diranak, ta berariaz utzi ditut: alde onetatik peligrorik ezta; erre-glarik seguruena da duda dezun guzian pekatutik libratzeko Konfessore oitu jakintsu bati beti galdetzea au edo ori pekatu dan ta zer egiñ bear dan.

Onela zure konzientziaren esamina alegiñaz igaro, ta bereala Jainkoagana biurtu zaitez: egiñ dizun errukitasunagatik ezkerak emaizkazu, ta zure pekatu ta bera-ren ofensa guzien barkazioa eskatu esanaz biotzetik urrengo orazioa.

**Esamina ondorengo**

**ORAZIOA.**

¡O nere Jaungoiko argi guzien Aita, eta doay on guzien emallea!



Ezagutzen det zure graziaz dala,  
nik egiñ aldezakedan on guzia  
Zuk nere anima salbatzeko deseo  
au eman didazu: Zuk nere peka-  
tuak billatzeko argia ta arkitzeko  
grazia. Zuri bada, Jauna, baka-  
rrik glori guztia. Zuri nere bio-  
tzeko esker on eta azken gabeak.  
Amen.

Santu ta Aingeru guziak, ta  
are milla bider obeto Ama Birji-  
ñak ta Jesus, aren ta zure Semeak  
alaba zaitzatela oraiñ ta beti neri  
egiñ didazun Misericordi aundi  
onegatik. Amen.

**Barkazioa eskatzeko**

**ORAZIOA.**

¡Ay nere Jaungoiko guziz on  
eta Justua! Nere pekatuen artean



sartu naiz, eta arritua gelditu naiz. Ezdakit nundik asi ta ez zer esan. Zure justizi aserrearari begiratzan badiot, ta kontuetan nerekiñ sartzen bada, galdua naiz Jauna; zeren nere kulpa ta zure kontrako ofensak kontu ta zenbaterik ez duten. Buruko illeak baño, ta itxasoko ondar aleak baño geyago dira ta orien karga pisuak sekulago ondatzen nau.

¿Zer egiñ aldezaket, bada estutasun onetan? Lotsaren eta ikararen pasioz nere ezer-ezera ondaturik, zure justiziatik zure miserikordiara biurtzen naiz, eta oni nere alde deitzen diot. Badakit Jauna, zure miserikordiak kaburik ez duela, ta nere miseri guziak baño andiagoa dala. Bearra det,



Jauna, bearra det, eta au obeto arkitzeko santu ta pekatari penitente guzien damua eta orien egiazko dolore ta propositua orain iduki nai nituzke.

¡O Jaun guziz santua, pekatuari gorroto gabe eziñ begiratuko diozuna! Nere Jesus, zure Semeak pekatuen kontra iduki zuen, eta zuk eta ark orien kontra beti dezuten eziñ esan-alako gorrotoa bera, zure justiziarri eskeintzen diot: eta ori da zure ontasunari dagokion ordain osoa. Ar ezazu bada, Jauna, ofrenda aundi au ta ez nigatik, ezpada zure Seme Jesukristo gure Jaunagatik; bada onen izenean eskeintzen dizut.

Ez arren, Jauna, nere kulpa aundiai begiratu, baizikan aren



meritú aundiagoai, aren Gurutze-ko dolore, pena ta amorio guztia-ri: an nigatik eta neri barkatzeko penaz eta deadarrez erregutu zizun: ta zuk bere erreberentziagatik Jesus onari aditu ziónion. Indazu, bada, ondo konfesatzeko bear dedan grazia, Amen.

Emen kezka ta bildur guzietatik libratzeko. Akto Kontriziozko asko, konfesore-aren oñetara baño len egiñ bear dituzu, modu onetan.

## **Konfesatu baño lenago egiteko KONTRIZIOZKO AKTOAK**

Jauna: zu zera nere Jaungoiko guziz Ona; eta orregatik damu det biotzetik zu ofendituaz, ez geyago ofenditzeko propositu firmearekiñ.



Jauna: zu zera nere Aita guziz maitea ta orregatik damu det biotzetik zu ofendituaz, ez geyago ofenditzeko propositu firmearekiñ

Jauna: zu zera nere Jabe guziz santu ta justua; eta orregatik damu det zu ofendituaz, ez geyago ofenditzeko asmo sendoarekiñ.

Jauna: zu zera nere Ongille guziz amoroso ta doai guzien Emalle txit ugaria; ta orregatik biotz guztitik det damu, nere pekatuakiñ zu ofenditua, ez geyagoren geyago zu ofenditzeko asmo sendoarekiñ.

¡O Jauna! zu zera nere Salbatzallea, ta eman nai didazu Zeruko gloria: orregatik, bada, ta guztia ona zeralako damu det, Jauna, nere pekatuaz zu ofendi-



tua, propòsitu firmearekiñ ez geyago zu ofenditzeko.

¡Ay nere pekatu zori gaizto-koak! ¡Ay sekulan egiñ ez banitu! ¡Ay zer ditxa milla bider ill banintz, nere Jaungoiko maitea ofenditu baño lenago!

Jauna: ez geyago zure ofensarik: ill bedi pekatua, ta bizi bedi nere Jaungoikoa. Jauna, nayago det ill zu ofenditu baño.

Beti ondo, damu, propositu ta frutuaz confesatzeco, iru considerazio jaquiñac dira oyec. Lenengoa; Edozeñ confesore gana joatean, contu egizu Galbarioco mendian Gurutze-pean Jesusen oñetan jartzen zerala, Ama Birjiñaren ondoan an arquitu baziña, ¿zer egiñ edo esango zenduen? Bigarrena; Fede bizi batez sinistu, eta esan ezazu zeregan; orain Jesucristorequiñ, ta ez guizonarequiñ confesatzen naiz: Bada Cristoc gucia daqui bai eta ere nere pekatu guciac. Lotsas ez dezazula utzi ezer. Irugarrena: Confesio onetan Jaungoicoac edo Aingueruac esango balizu: au zure atzeneco confesioa da: ¿Nola confesatuco ciñaque? Bada illtzeco becela beti confesa



zaite: esan zure culpac garbiro, eta ez bes-  
terenac. Guero Confesoreac cer esaten di-  
zun, cer conseju eta cer penitentzi siñala-  
tzen dizquitzun ondo aditū; damuaz abso-  
lucioa artu, eta jaiqui Jaincoari ezquerrac  
ematera, eta comulgatzeco ondo presta-  
tzera.

Au berau beste bere lecu batean ondo  
confesatzeco eta ondo comulgatzeco ora-  
cioaquiñ arquituco dezu.

## **Konfesio aurrerako iru konsiderazio.**

Sacramentu onetan bear dan frutua  
ateratzeco confesio guztietan iru gauza  
ondo pensatu bear dituzu.

Lenengoa: Edoceiñ confesoren oñetan  
jartzean Calbarioco mendian Jesusen gu-  
rutze-pean arquitzen cerala.

## **ORAZIOA.**

¡A Ostiral Santuz ni an arkitu  
banintz! ¿Zer negar eta zer dea-  
dar biotzekoak egiñgo nituan?  
¡Ay nere Salbatzalle maitea! Ne-  
re pekatuak ipiñi zaituzte egoera  
triste orretan. Ez Jauna geyago  
pauso gaiztorik, baizik bizitza be-



rria. Ala ematen dizut itza zure graziarekiñ batean, eta esperanza osoa daukat zure merezimentuak dirala bitarteko, barkatuko dizkidazula nere pekatuak.

Bigarrena: Confesatzera zoacen gucian Federic bicienaz pensa ezazu, ez guizon baten ezpada Jesucristoren oñetara zoa-cela.

## ORAZIOA.

¡Ay Jesus nere biotzekoa! baldiñ Jerusalem zure egunctan bizi izan banintz, edo zu oraiñ orduan bezela, emen agertuko baziña, zure oñetan belauniko jarririk, ¡O eta nola esango nizukean! Ona, Jauna, pekataririk galduena: pekatu mortal askoren eritasun gogorren azpian ondaturik arkitzen naiz. Zu zera nere animaren medikua. Zuk dakizu nik baño obeto



nere gaitz guzien berri. Arren zure miseriardiagatik senda nazazu. Banoa bertatik zuri nere pekatu guziak zure ministroaren oñetan aitortzera eta konfesatzera. Ta zuk nola nere berri dakizun, ez det izango ez lotsa ta ez bildurrik nere barren guzia agertzean.

Irugarrena: Confesatzen ceran guztian, contu eguizu ori izango dala azquenecoa, eta illtzeco confesatzen cerala. Ill-bearra fedeco gauza da, eta confesio gabe bazoaz au edo beste bat izango da zure atzenecoa.

## ORAZIOA.

¡O nere biziaren ordu eta denbora guzien jabea! Zuk esango baziñit, au dala nere atzeneko confesioa; illtzeko zorian nagoala; bereala ill bear dedala edo nere Aingeru Guardakoak zuregandik mandatu au egiñgo balit; ea oraiñ



konfesatu ta bereala ill bear dezu; etzera geyago konfesatuko; ¡Jesus milla bider! Adio, esango nuke, adio mundua: Ken ortik nere lagun falso eta gaiztoak: kanpora sekulako nere biotzetik oitura gaiztoak; zoazte emendik ondasun gaizki eramanak: zoazte nere ibillera gaizto ta munduko atzegiñ gezurtiak: zoazte janedan gaiztoak, anima ta gorputza galdu dirazutenak; zoazte guziok oraindaño zoratu ta galdurik iduki nazutenak: zoazte betiko nigandik. Ill bear det, Jainkoak ala dio ta ala nai du. ¡Ay nere Jesus ona, nere jabe maitea! Eta jeziñ damu dedan Zu nere pekatuakiñ ainbeste bider ofenditua! Damu det lenago bear bezela ez



prestatur! Zu, nere Jainko ta nere Aita ona; amatu eta serbitu bearrean ainbeste bider ofenditu zaitut.

¿Nun da, Jauna nik eman bear nizun onra ta errespetoa? ¿Nun da nik zuri bear nizun amorioa? ¿Etzan neretzat onrarik asko zure seme izatea? Bai nere Jesus ona. Damu det Jauna, nere biotz gutitik Zu ofenditua, zergatik zeran orren ona, Santua ta maitagarria. Zugan, Jauna, arkitzen dira Zeruko Santuak. Aingeruak eta kreature guzietan, sekulan eziñ esan eta konprenditu ez ditezkean bikaintasun, aunditasun ta perfekzio guziak, Zu orrelakoa izanik damu det zu ofenditua, Zu zeranagatik bakarrik. Atzeratuko ditut



nere oitura ta egitura gaizto gu-  
ziak; eta egiño det penitentzia  
nere pekatuen bengantzan: Zu  
maite zaitudala adierazten dedala  
ondorengo bizimodu berri bate-  
kiñ. Amen.

**Konfezioa ondo egiñ eta gero ezazu**

## **ORAZIOA.**

¡O nere Jaun amoroso ta mise-  
rikordizko Aita! Zure odol prezio-  
soan nere anima bere kulpen lo-  
yetatik garbitu nai izan dezu. Zu-  
ri eskerrak, Jauna, pekatuen erio-  
tzatik libratu eta zeruko bidea,  
eman didazulako. Ez nere Jesus,  
geyagoren geyago pekatuari leku  
edo ostaturik nere biotzean Zu-  
re amoriozko biziera onetan nere  
anima sendoago jarri dediñ, oraiñ



zure Comunioko Sakramentu adoraragarrarian Zu ondo artzeko indazu grazia. Amen.

## KOMUNIO ESPIRITUALA

Jainkoak nai duan bezela zuk  
eguiteko

### IRU MODU ERRAZAK.

1.<sup>a</sup> ¡O nere Jesus, Jainko eta gizon egiazkoa! zure ontasunak eta nere amorioak Sakramentu orretan zaukazki. Federik aldedan bizenarekiñ sinisten ditut misterio onetan zuk egiten dituzun milagro guziak. Aldedan umiltasun guziaz adoratzen zaitut. Zure ofensa guziak damu ditut zeren amatzen zaitudan gauza guzien gañean. Or zaude nigatik, zu nik nere biotzean errezibitzeko.



¡O! ¿nundik edo nola amorio au pagatuko dizut ezpada nere espirituan eta deseoz Zu komunioan artu eta zure ondasun neurri-bageko oriekiñ baizik? Sakramentu onetan Zu ondo artu, ta betiko komulgatu nai det. Baño ori eziñ badet ere, komunio espiritualean artu nai zaitut, zure graziarekiñ esker onak zuri beti emateko. Amen.

2.<sup>a</sup> ¡O nere Jesus amoroso gau eta egun nere begira Sakramentu orretan zaudena! ¡Biotz garbia ta borondate ona duten animai zure gorputza or ematera etorri zera! ¡O nere Jaungoiko ezkutatua! ¡O zer fabore eta erregalo zerukoa Zu nere biotzean artzea! ¡O eta nork Santu eta Aingeru guzien



birtuteak lituzkean eta Ama Bir-  
jiñaren garbitasun eta amorioa ko-  
munio espiritual onetan Zu bear  
bezela artzeko; Atoz, nere Jesus,  
atoz ordu onean; eta zure bendi-  
zio ta amorioz nere anima sekula-  
ko bete ezazu.

3.<sup>a</sup> ¡O nere Jaun almentsu Sa-  
kramentatua! Betor zure fede, bizi  
ta argi bero bat ondo prestatu de-  
diñ nere anima Zu errezibitzeko.  
Bestela nik merezi ez det Zu nere  
biotzeko etxean sartzea. Baña itz  
bat ezazu, eta guzia egiña dago,  
eta nere anima salbatuko da. Bir-  
tute guztiaz ondo jantzi eta apaiñ-  
durik komunioan beti errezibitu  
nai zinduzket; eta anima guztiak  
zure grazian komulgatzea nai nu-  
ke. ¡O zer ditxa Zu, nere Jauna,



nere biotzean artzean! ;O eta zein aberats izango nitzakean zure Sakramentuan errezibitzen bazindut! Nere animak zure bearra eta zurekin beti egoteko gogoa dauka ;Nere Jesus ona! Zu zera nere animaren egiazko bizitza Zu gabe eziñ bizi naiz. Beti Zurekin bat egiñik bizi ta ill nai det zure eskuetan. Amen.

*Fedezko eta amoriozko egiñtza asko egiñaz zere modura errazago ere Komunio espiritualala egiñ dezakezu nai dezun guzian.*







## ONDO KOMULGATZEKO EJERZIZIOAK.

Gauza jakina da konfesatzen dan guztian ez dala prezisoa komulgatzea, eta kristau onenak askotan gelditzen dirala komulgatu gabe.

Beñik bein konfesio jenerala egiten danetan, bi edo iru konfesa alditan ez da komulgatzen; ez eta konfesoreak penitentziaz, mortifikazioz edo pruebaren batzuek



egiteko ,prestutzen duenetan ere. Eta dotriñaren falta ta errore gaitzto bat da pensatzea pekatuak ez dirala barkatzen komulgatu arte-raño.

Ala zuk utsegiñ ez dezazun onetan, ez dezu beñere komulgatu bear konfessoreak agindu gabe, utzitzen dezula umiltasun aundia-rekiñ, ez joateko esaten dizunean; eta baldiñ agintzen badizu komul-ga zaitezela, prestatuko zera on-dorengo konsiderazio onekiñ.

## KONSIDERAZIOA.

Pensa ezazu ondo nor datorren komunioan zugana, Jesukristo gu-re Jauna, Jaungoiko eta gizon egiazkoa bera dan guzia, Osti



santuan dator zuri laguntzera  
Eta zu ¿nor zera?

## ORAZIOA.

¡O zeruetako Errege, Jaun aundi, nere Jesus maitea! ¿Zu nigana zerutik jetxi zera? ¿Au zer da? ¿Nori onelako gauzarik zure amorioari baizik gogoratuko zitzaion? ¿Izan diteke, (eta fedeko egia da) nik Zu, nere Jaun aundia, Osti txiki batean nere biotzean artu bear zaitudala? ¡O misterio guziz eskutatua, eta guziz miragarria! ¡O amoriozko Sakramentua! ¿Zer egiñ aldezaket nik ezpada zure aurrean arritu, umillatu eta nere biotzeko atea zuri pozik idiki, nere animako ostatu pobre onetan Zu, Erregerik andiena,



artzeko? ¡O nork lukean zerua-  
ren garbitasuna! ¡O zeñek lukean  
Aingeru edo Santuen espiritu,  
grazi ta zure Ama Birjiñaren bir-  
tuteak, Zu orain bear bezela ar-  
tzeko! Egia da, ni pekatari galdu  
bal naizela. Baña, Jauna, Zu ze-  
ra nere erremedio guzia. Atoz ba-  
da, atoz miserikordi guzien jabea.  
¡O nere emalle guziz aberatza!  
Zure ontasun kabugabea eta zure  
eman-nayak enpeñatu eta ekarri  
zaituzte zerutik lurrera, zure on-  
dasunak zerorrekiñ batean neri  
emateko, ¡O fabore paregabea!  
Badakizu zure diña ez naizela,  
eta ala ere orregatik zure amo-  
rioak zakartzi nigana. Badakizu  
zeren premia daukadan; txit bea-  
rra nago. Indazu fede bizi, espe-



ranza firme eta karidade irazeki bat, Zuk nayan dituzun beste birtuteakiñ, Zu nere animan ondo artzeko, eta aurrera obeto amatu eta serbitu zaitzadan. Amen Jesus.

## KOMUNIOAN

**Ezazu iru aldiz petxuko kolpeakikiñ.**

Jauna, ez naiz ni diña zu nere etxean sar zaitezzen; baña asko da zure itz bat nere anima sendatzeko ta salbatzeko. Amen Jesus.

## ORAZIOA.

Ongi etorria zerala nere Jaun aundia eta nere guztia. ¡O nolakoa dan zure amorioaren indar paregabea! ¡Nori sekulan gogoratu, Jauna, Zuk neri onelako faborea egiñgo ziniñdala? ¡Ay nere Jesus guziz ona! ¡Eziñ, Jauna, eziñ bear



bezela ni zure diña izan! ¡Ay eta zer etxe, zer ostatu pobrea nere biotzean artu dezun! Baña Zu zera bakarrik zeruan eta lurrean nere Jaungoikoa. Zu asko zaitut bakarrik, eta zurekiñ nago txit aberatsa.

Ea, bada, atozte barrena, atozte nere begiak, nere eskuak ta beste sentiduak; atozte guziak zuen Jabe amoroso oni ongi-etorria emateko, eta guziok Jesus biotzean ta beraren antzera santifikatu; eta biziera berri bat egiteko bear dezuena eskatzera. Zuen guzien erremedioa da bera. Nere memori, adimentu eta borondatea, atozte guziok batean, betiko zuen Jabea adoratu eta alabatzera. Amen.



## ESKARIA.

¡Ea zeruko nere etorkari abera-  
tsa, eta emalle ugaria! Bada etze-  
ra ostatu pobre onetara alferrik  
allegatu, eta ez utzik nigana eto-  
rri; ezpada ondasunez beterik,  
nere jaberik onena bezela. Ondo  
zure beartua nago: badezu nigan  
nun zure doayak enpleatu. Ona,  
Jauna, zure oñetan eta begien  
aurrean nere anima triste bearra.  
Orra nere begiak, mingaña, es-  
kuak eta beste sentidu galdu era-  
gabe diranak; zuk erremediatu,  
zure bendizioz bete, ta zure an-  
tzera egiteko.

Nundik eskatzen asi ez dakit;  
Jauna, Zuk nere berri obeto da-  
kizu, eta zuri gusto emateko zer



onduen dagokidan. Zu serbitze-ko, zure borondate gozoa nere etxeko ta kanpoko lanetan, nere estutasun ta asnasa guzietan beti egiteko, zure grazia indazu, eta orrekiñ aberats ta zori onekoa beti izango naiz. Amen.

## ORAZIOA.

¡O zeruko ondasun guzien Jabea! Ez dizut utziko nere animaren etxe pobre onetatik irteten: ez dizut utziko nigandik juten, ni utza, pobrea ta beartu utzirik. Ez, Jauna, nere ostatu onetatik joango etzera, ni zure bendizioz bete arteraño. Guzien jabea zera, eta eskeko guzien ongillea; badezu nigan ondo zer egiñ. Orra, Jauna, nere anima lur legorra bezela zu-



re euri gozoaren ezke. Orra ontzi utza bezela Zuk graziaz betetzeko. Badakizu, zure antzeko umiltasun, pazientzi, karidade, modestia, animako eta gorputzeko garbitasunaren ser premi aundia daukadan. Oriez gañera, indazu zure bendizioa nere biotz au, nere begiak, mingaña eta beste sentiduak zure guztora zuzendu eta moldatzeko. Zure biotz santuagatik biotz berri garbi bat indazu, zure gisa biziera berri bat egiteko, nere alegiñ guziaz zuri jarraitzeko, eta nere zorion guztia nola orretan baitagoan, zure borondate santua, oraiñ lurrean egiñ eta gero zeruan beti egiteko Amen.





**ANIMA KRISTI**  
**AITA SAN IGNAZIOK**  
**beti esaten zuan orazio jakiña.**

**Jesusen anima, santifika nazazu.**  
**Jesusen biotza, irazeki nazazu.**



Jesusen gorputza, salba nazazu.  
Jesusen odol preziosoa, zure  
onez bete nazazu.

Jesusen biotzeko ura, garbi  
nazazu.

Jesusen Pasioa, senda nazazu.  
¡O Jesus ona! entzun zadazu.  
Zure llaga-en artean gorde na-  
zazu.

Zugandik irteten utzi ez nazazu.  
Etzai gaiztoetatik libra nazazu.  
Nere eriotzako orduan dei na-  
zazu.

Zugana joateko agindu zadazu  
Santu guziakiñ Zu beti alabatze-  
ko sekula guzietan. Amen.

**Ama Birjiñai eta santuai**

**ORAZIOA.**

Zeruetako gure Erregiña Ama



Birjiña, Maria txit santa, nere Salbatzalle ta Jaun aundi onen Ama maitea, Zeruko Aingeru ta Santuak, atozte nere etxe pobre onetara zuen glori guztia nerekiñ batean nere biotzean adoratu eta bedeinkatzera, eta nere uts edo falta guziak betetzera.

¡O nere biotzeko Jaungoikoa! Zure Santu guziak beti bedeinka zaitzatela, neri egiñ didazun miseriakordia ta fabore onegatik. Ezer ez det, Jauna: Zuk dakizu nere pobretasunaren berri. Zuri eskerak emateko zer eskeñi edo agindu ez daukat; ezpada nere biotzotz edo ill au. Orra, Jauna, dana, nik dedan eta naizan guzia zurea da; eta ordu onean izan bedi betiko zurea.



¡Ay, Jauna, zein gauza laburra, zein gutxi dan biotz bakar bat, eta ori aín epela eta ezereza nola dan nere au! ¡Ay zeruko Santu Aingeru, eta Serafin irazeki guzien espirituak eta munduan diran guziak nik banitu, zu beti adoratu ta amatzeko. Guziak nai nituzke, eta diranak, Jauna, zuretzat: zuri amore onez guziak eskeintzeko eta esker onak emateko Amen.

### Santa Teresaren abisoak.

Ill zaitte, nai badezu bizi. Penatu, nai badezu gozatu. Jetxi nai badezu igo. Galdu, nai badezu irabazi. Bizi bedi Jesus eta ill bedi pekatua.



Emen aditzera emango det  
espíritu santuak trentoko konzilioan  
erakusten duan ikasbidea.

Lenengoa: Santuen onran Eli-  
zan mezak ematen badira ere, sa-  
sakrifiziorik santuari ofrezitzen  
etzayela: ezpada bakarrik Jaun-  
goikoari, zeña dan Santuak egiñ  
eta gloriaz eta onraz koroatu zi-  
tuana.

Bigarrena: *Santustik* aurrera  
Mezako gauza guziak Jaungoiko-  
aren santutasun aundia aditzera  
ematen dutela, edo misterio oriek  
zeruko usai jainkozkoa dakartela.

Irugarrena: Espiritu Santuak  
Konzilioan agintzen die (*Mandat  
S. Sinodus etc. Ses. 22 cap. 8*) ani-  
men kontua daukaten apaizai me-



za santuko gauzak beren ardiai askotan erakusteko.

Sazerdoteen ornamentu edo jantziak, itzak, gurutze, señaile eta zeremoni guztiak misterioz beteak daude. Euskaldunak beren deboziorako oriek aldan ondoena jakitea arrazoi da: ta Santuen ikasbidea orain nik emango diet onela.

### **Mezetako misterioen ikasbidea.**

Sazerdotea prestatu, ta Ornamentuak jazteko Sakristian sartzeak esan nai du, nola Jesukristok Ama Birjiñaren sabel garbian sartu zan, eta gure aragizko soñekoa jantzi zuan eta beren sakrifizioa Aita eternoari ofrezitzen prestatu zan.

*Amitoa:* da estalki zuri bat, bñ-



rutik bera sazerdoteak artzen du-  
ana; eta esan nai du, nola Juduak  
Jesukristori burla egiteko ta ma-  
sallekoak emateko arpegia estali-  
zioten.

*Albak:* nola Kristo zuriz jantzi-  
rik Herodesek burlaz Pilatosi bi-  
raldu zion.

*Zinguluak:* nola sokakiñ guga-  
tik lotu zuten.

*Manipulo* esker besokoak: nola  
azotatzeko eskuak lotu ziozkaten.  
Ezkerrean ori artzen da, Jesusen  
biotzeko amorioa, gugatik azoteak  
artzean, ta guk zor diogun amo-  
rio aundia erakusteko.

*Estola:* lepotik gurutzaturik  
artzen du, eta esan nai du, no-  
la Jesus irugarren aldian guru-  
tzea artzeko soka gogor aundi



batekiñ lepotik oso lotu zuten.

*Kasulla*: guzien gañean artzen duanak: nola burla egiteko granazko soñekoa jantzi zioten: edo gurutzean jositzeko, nola tunika joskura gabea kendu zioten. Jantzi edo *Ornamentuak* oyek dira.


Mezak iru parte ditu: *Ofrendaraño* bat: *Pater noster* edo *Komunioraño* bestea: eta *azkeneraño* bestea. Bata da sakrifiziorako prestatzea: bestea ofrezitu, konsagratu, ta komulgatzea: ta irugarrena da Jaunari graziak ematea.

Ondo pensaturik zer aditzera ematen duten Misterio oyek, esango dezu, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen Jesus.





**MEZA AURREAN.**






## ORAZIOA.

Trinidade guziz adoragarria: Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua: Jaungoiko bat bakarra, eta iru Persona zerana. Adoratzen zaitut umiltasun eta errespeto guziarekin. Eskeintzen dizut entzuztera noan meza lenengo lekuan: zuri gauza guzien asiera eta iturburuari bezela onrarik aundiena emateko. Bigarrenetan: egin dizkidatzun ontarte eta mesede guzien esker zure diñakoak emateko. Irugarrenetan: nere eta lagunurko bizien pekatuen barkazioa iristeko. Laugarrenetan: Purgatorioko animen alde. Azkenetan, eskeintzen dizut Jesus maitearen ofrenda au, eman degidazun zeruko bidean bear eta on izango dedan guzia, batez ere pekatutik alde egiteko eta bizitza onean irauteko doaya. Amen.





**MEZAREN ASIERA  
ETA PEKATUAK AITORTZEA.**





Konsideratu nola Jesukristok  
gure pekatuak bere gañ artu, eta  
orien zorra pagatu zuen.

## ORAZIOA.

Jauna: entzutera noan me-  
za au eskeintzen dizut egiñ  
dizkidatzun mesede guztien  
eskerrak emateko; nere ta  
beste guzien pekatuen bar-  
kasioa iristeko; eta indazu  
zeruko bidean bear eta on  
izango dedan grazia; batez  
ere pekatutik alde egiteko  
eta bizitza onean irauteko  
doaya. Ala izan dedilla.





**INTROIT OAN.**





Konsideratu nola lege zarreko  
Santuak Jesukristo gizon egitea  
deseatzen zuen.

## ORAZIOA.

Nere Jesus maitea: nere  
anima zure amorio santuan  
irazeki zazu, nere peka-  
tuak ezagutu ta oriekiñ  
zu ofenditutako damutasun  
egiazkoa nere bizi guzian  
iduki dezadan. Ala izan  
dedilla.





**KIRIE ELEISON.**





Konsideratu nola Irutasun edo  
Trinidadetxiki Santuari miseriordia  
eskatzen zayon.

## ORAZIOA.

Jauna: erruki zaitez nizaz.

Jauna: erruki zaitez nizaz.

Jauna: erruki zaitez nizaz.

Jesukristo: erruki zaitez ni-

zaz. Jesukristo: erruki zai-

tez nizaz. Jesukristo: erruki

zaitez nizaz. Jauna: erruki

zaitez nizaz. Jauna: erruki


zaitez nizaz. Jauna: erruki

zaitez nizaz.





**GLORIA IN EXCELSIS DEO.**





Konsideratu nola Aingeruak  
Jesusen jayotzan kantatu zuen.

## ORAZIOA.

Aingeruak alaba dezatela,  
Jauna, zure ontasuna, zu ja-  
yo ziñanean bezela. Orain  
gure animetan zure graziaz  
jayo nai dezu. Alabatzen,  
bedeinkatzen, adoratzen eta  
glorifikatzen zaitugu.

Zure glori aundiagatik  
graziak ematen dizkitzugu.  
Gure kulpen barkazioa es-  
katzen dizugu. Misericordia  
Jauna. Amen.





DOMINUS BOBISCUM ETA  
ORAZIOAK.






Konsideratu nola Jesukristo  
gizonai eza gutzera eman zitzayen,  
eta iru Erregeak adoratu zuten.

## ORAZIOA.


Jauna: Sazerdoteak santuen bitartez eskatzen dizuna, nik ere eskatzen dizut. Arren Jauna, aren eta nere erreguak entzun itzazu. Iguzu emen lurrean zure grazia, ta zeruan betiko gloria, Jesukristo gure Jaunaren merezimentuak gatik. Ala izan dedilla.







**EPISTOLAN.**





Konsideratu nola Apostoluak  
penitenzia predikatu zuen.

## ORAZIOA.

Gure Jesus, maisu bakarraren aurrean guziak ixilbitez. Atoz Jauna, ta itz egiñ zadazu: Indazu nere animan zure Profeta Santuen zelo ta amorioa, zure aginduak kunplitzeko. Ala izan dedilla.





**EBANJELIOAN.**





Konsideratu nola Jesukristok munduan predikatu zuan Dotriña.

## ORAZIOA.

Lurreko bide triste onetan nabillen artean, Jauna, gauza bi txit bearrak ditut: Argia ta janaria. Ez arren oriek neri ukatu. Zure Ebanjelioko dotriña nere pausoen argia izan bedi; eta Zure gorputz jainkozkoa nere animaren janaria, emendik zeruraraño falta zadan bidean erori ez nadiñ. Amen.





**KREDOAN.**





Konsideratu nola Ebanjelioak  
ekarri digun Lege santua ta aitor-  
tzen du aboak biotzak  
sinisten duana.


## ORAZIOA.

*Ezazu Kredoan: baña debo-  
zio guziaz, Apostoluak eman  
ziguten zeruko dotriña bezela.  
Gero ezazu; Jauna zuk Eliza  
Ama Santuari erakutzi dioz-  
katzun Fedeko egi guztiak  
sinisten ditut. Grazia indazu  
nere bizitzako obra guztiak,  
Fede bizi batekiñ egitekò;  
gero orien sarian zurekiñ  
bizi nadiñ zeruan. Amen.*





**OFERTORIOAN.**





Konsideratu Jesukristoren Do-  
triñak eman digula Fedea, ta au  
aitortzeko laguntasuna.

## ORAZIOA.

Jaun Soberanoa: Zure Se-  
mearen sakrifizio au sazer-  
dotearekiñ batean ofrenda-  
tzen dizut zure gloriarik an-  
dienerako: neri ta mundu  
guztiari zuk egiñdako mese-  
deen graziak emateko: Nere  
eta mundu guziaren peka-  
tuen satisfaziorako: Neretzat  
eta nere obligazioko guzien-  
tzat bear ditudan laguntza  
ta grazia guziak zugandik  
iristeko. Zure Seme gure  
Jauna-gatik. Amen.





**PREFAZIO ETA SANTUSEAN.**





Konsideratu nola Jesukristo  
astoaren gañean Jerusalemene sartu  
zanean, Juduak kantatzen zioten:  
Santu, Santu, Santua, etc.

## ORAZIOA.

Jauna: Alabatzen zaitut  
zeruko Aingeru guziakiñ,  
Gugana etorri nai dezu.  
Eman nai dizkitzut bada  
biotzetik ongi etorri eta  
bedeinkazio guztiak, Santu,  
Santu, Santua ta gloriaz be-  
tea zaude guretzat, Jauna,  
zurea da gloria. Ala izan  
dedilla.





**KANON TA MEMENTOAN.**





**Konsideratu Jesukristoren Pasio  
Santuaren asiera.**


# ORAZIOA.

Zure Seme Jesukristo-gatik eskatzen dizut, Jauna, Elizã santua-gatik, Aita Santu, gure Obispo, Errege ta beste fededun guziak-gatik: nere guraso, senide, aide eta adiskide (emen gogoratu izena), onelako-gatik: ongille, ta gaizkille, ta pekatari guziak-gatik, zure graziara biurturik, Zu amatzen guziok beti bizi gaitezen. Amen.





**KONSAGRAZIOAN.**





Konsideratu pazkoako arku-  
mearen figura, ta beste figura edo  
irudi guzien bukaera.

## ORAZIOA.

Nere Jesus amoriotsua:  
azkeneko afarian zure Apos-  
toluai eman ziñen zure gor-  
putza ta zure odola. Zure  
ontasun eta miserikordi an-  
dia-gatik erregutzen dizut,  
Sakramentu onetan partalle  
egĩñ nazazula; eta orrela  
bizi izan zaiteala nigan, eta  
ni zugan, Zu beti alabatzen.  
Ala izan dedilla.





**OSTIA ALTXATZEAN.**





Konsideratu nola Jesukristo  
gurutzean altxatu zuten.

## ORAZIOA.

Adoratzen zaitut, Jesus,  
nere Jaungoikotzat, ta Osti  
santu orretan adoratzen det  
zure Gorputz Jainkozkoa,  
gurutzeko aldarean mundu  
guzia salbatzeko eskañi za-  
na. Sinisten det Zu or zau-  
dela. Piztu ezazu nigan are  
ta geyago zugarako Fede  
Santua. Amen Jesus.





**KALIZA ALT XATZEAN.**





Konsideratu nola Jesukristok  
bere zaurietatik odol prezioso  
ixuri zuan:

## ORAZIOA.

Adoratzen det, Jauna, zu-  
re Odol prezioso, gure amo-  
rez gurutzean ixuria; gure  
animak garbitzeko Zuk ema-  
na: Odol prezioso orretan  
esperatzen det, nere kulpen  
barkazioa izango dedala,  
Erruki zaiten arren nizaz,  
erruki zaiten. Amen Jesus.





**KALIZA ALTXATU ONDOREAN.**





Konsideratu oraindik Jesukristoren  
pasio ta bere eriotza.

## ORAZIOA.

Zuk nai dezun bezela,  
Jauna, sazerdotearakiñ sa-  
krificio au eskeintzen dizut  
zure Semearen Pasio ta  
Eriotza, Piztuera ta zerura-  
ko Igoera gloriosoaren erre-  
berenzian, Osti garbia, Osti  
Santua, Osti mantxa gabea,  
Jauna, ez begira guri ezpa-  
da zure Seme maite oni:  
zure bendizioaz onekiñ bat  
egitiñ gaitean. Amen.





**OSTIA KALIZAREKIN  
ALTXATZEAN.**





Konsideratu nola Jose ta Nikodemus-ek Jesusen gorputza gurutetik eratxi zuten.

## ORAZIOA.

Nere Jesus ona: Zuk nere pekatuen zorra ordaintzeagatik gurutze batean bizitza eman zenduan: indazu, bada, neri ere nere kulpak egiazko penitenziarekiñ desegiteko grazia; ill bedi nigan pekatua, zurekiñ zerruan bizi izan nadiñ beti betiko. Amen.





**PATER-NOSTERREAN.**





**Konsideratu Jesukristok  
gurutzean esan zituan zazpi itzak.**

## ORAZIOA.

Ezazu Aita gurea, onen  
zazpi eskariak soseguz pen-  
satuaz. Eguneroko Ogia es-  
katzean aditzen da, gure  
obligazioak ezagutzeko ar-  
gia: Sakramentuen lagun-  
tzak, animak estadu graciz-  
koan irauteko, ta gorputza-  
rentzat alimentua. Amen.





**PATER NOSTERRA ESAN  
ONDOREAN.**





Konsideratu nola Jesukristo  
Linbora jetxi ta an zeuden animak  
atera zituan.

## ORAZIOA.

¡O nere Jesus maitea! Zure anima Jaungoikotasunarekiñ baturik jetxi zan linbora, justuen animak pena artatik atera ta gloriaz betetzera: indazu neri ere grazia, nere anima pekatuen mendetik atera, ta infernuko penetatik libratzeko lenbait len, Santu guziakiñ zeruan alabatu zaitzadan. Amen.





OSTIA PARTITZEAN.





Konsideratu nola Emausko  
Disipuloak Jesukristo ezaqutu zuen  
ogia partitu zienean.


## ORAZIOA.

Nere Jesus animen gida-  
ria: zure ikasleak bezela era-  
man nazazu bide zuzenetik:  
nere biotza ta nere adime-  
na bete, ta irazeki itzazu  
zure argiz: emen zure bo-  
rondatea egiñaz, zeruko glo-  
ria iritxi dezadan. Ala izan  
dedilla.





**PAX DOMINI.**





Konsideratu nola Jesukristo  
bere ikasleai agertu zitzayen eta  
pakea eman zien.

## ORAZIOA.

¡O Jesus gloriz betea! Zure  
Piztuera gloriosoarekin  
idiki zenduan betiko bizitzarako  
atea, ta ori aditzera  
eman zinién zure Apostoluai  
esanaz: Pakea izan dedilla  
zuekin. Erregutzen dizut,  
Jauna, eman zayozula nere  
animari pekatutik graziara  
piztu, ta geyago Zu ez ofen-  
ditzeko bear duan laguntza.  
Amen.





AGNUS DEI.





Konsideratu nola Jesukristok bere ikasleai pekatuak barkatzeko eskubidea eman zien.

## ORAZIOA.

Jainkoaren Bildots garbia: munduko pekatuak kentzen dituzun Jesus ona, miserikordia guzaz.

Jainkoaren Bildots garbia: munduko pekatuak kentzen dituzun Jesus ona, miserikordia guzaz.

Jainkoaren Bildots garbia: munduko pekatuak kentzen dituzun Jesus ona, zure pakea iguzu. Amen.





**KOMUNIOAN.**






Konsideratu nola Jesukristok  
bère ikasleakiñ jan zuan, zerura  
igo baño lenago.

## ORAZIOA.

Zu zera, Jauna, gure pa-  
kea. Apóstoluai eman ziñen  
bezela, Eliza Santuari ta gu-  
ri iguzu: gure gaitz eta pe-  
ligro guzietatik libra gaitza-  
tzu. Zure borondatea beti  
egiteko, ta zugandik iñoiz  
ez apartatzeko grazia iguzu.

Jauna, nik merezi ez det  
Zu nere etxean edo animan  
sartzea, bañan itz bat ezazu,  
eta nere anima Salbatuko  
da. *Iru bider au esaten da.*





**KOMUNIO ONDOREAN.**





Konsideratu nola Jesukristo  
bere birtutez zerura igo zan.

## ORAZIOA.

Jauna: baldiñ Zu beregan  
artzen zaituana, Zuk zure  
seme edo alaba egiteraño  
jasotzen badezu, arren neri  
ere fabore au egidazu. Nere  
naturaleza onek gaitzerako  
dauzkan griña makurrak  
atzera itzazu Zure graziaz  
Konfesioko Sakramentuan  
berriro jantzi nazazu. Komu-  
nio santuetan beti fede bizi  
ta amorio irazeki batekiñ  
errezibitu zaitzadan. Amen.





**BENDIZIOAN.**





Konsideratu nola Jesukristok  
agindu zuan bezela, Espiritu San-  
tua bialdu zuan.

## ORAZIOA.

Nere Jesus maitea: Zuk  
agindu bezela Espiritu San-  
tua sugar bizi ta mingañen  
antzean Apostoluetara eto-  
rri zan: egizu, bada, Espiritu  
konsolagarri orrek nere bio-  
tza ta anima bere argi ede-  
rraz bete, ta amoriozko sur-  
tan irazeki ditzala. Amen.





**AZKENEKO EBANJELIOAN.**





Konsideratu Jesukristoren  
Jaungoikotasunaren eta gizatasu-  
naren misterioak.

## ORAZIOA.

Nere Jaungoikoa: nik de-  
dan eta naizan guzia zurea  
da, eta Zuk eman didazu:  
bada, dan guztia nik zuri  
biurtzen dizut, zure boron-  
date santuarekiñ goberna  
dezazun; Zure amorioa zure  
graziarekiñ indazu, eta orre-  
la aberats izango naiz eta  
besterik nai ez det, Zuk nai  
dezuna baizik. Amen.





BOST ALDARETAKO  
ESTAZIOAK EGITEKO

ETA INDULJENZIAK IRABAZTEKO

ORAZIOA.



Gure Jaungoiko eta miserikor-  
dizko Aita: zure Semearen onda-  
susetatik gure anima pobreak in-  
duljentzi edo pekatuen barka-  
zioaz zure adiskide aberats egiñ  
dituzuna, gure kulpen satisfazi-  
oan, ta purgatorioko animen sufra-  
jioan, gaur diran buldaren indul-



jenziak irabazteko bost Aldareen orazio au eskeintzen dizugu, zure borondateak eskatzen duan beze-la, ta Jesukristo zure Semearen intenzio ta amorioaz batean. Eta ondasun oriek irabazteko, zure ontasunari erregutzen diogu. Eliza Ama Santaren estadu ditxosoa-gatik begira dezala: Zure Fedea mundu guziari agertuaz; Prinzipie kristau guziai beren arteko pakea emanaz: eta erejeen eta Fede gabeen indarrak deseginaaz. Zure Seme Jesukristo gure Jauna-gatik; Berari zurekiñ eta Espiritu santuarekiñ batean betiko gloria. Amen.

Orazio au esan ta bakarrik aldareak bisitatzen badituzu, esan itzazu bakoitzean iru Pater noster iru Abe Maria eta iru Gloria: eta besterekiñ bazera zuk esan eta besteak erantzun: edo kontrara, besteak esan eta zuk erantzun.





**KORUAN BEZPERAK**  
**KANTATZEN DIRAN ARTEAN**

**EDO NAIZ ETXEETAN**

**persona debotoak letu ditzaketen**  
**konsiderazio egokiak.**

**SARRERA.**

Bedeinkatua, alabatua, ta adoratua izan dedilla Trinitade txitsantua Aldareko Sakramentu adoragarria eta Maria guziz garbia aingeruakiñ batean. Amen Jesus.

Gurutze santuaren señalea-gatik etc.

Jesukristo nere Jauna, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, nere Egi-



llea ta Salbatzallea, Zu zerana zeralako, ta guziaz gañ maite zaitudalako, damu det Jauna nere biotz guztitik zure Ontasun paregabea ainbeste aldiz ofenditua; eta artzen det gogo egiazkoa berriz pekatuak ez egiteko, pekatuak bide gaiztoetatik alde egiteko, eta oraindano pekatuak-gatik merzi dedan penitentzia egiteko; Jauna, zure graziak laguntzen didala. Amen Jesus.

¡O Jaungoiko aundia! atoz lenbait len neri laguntzera.

Jauna: erabilli nazazu beti bide zuzenetik. Alã izan dedilla. Gloria Aitari, Gloria Semeari, Gloria Espiritu Santu Jaunari, oraindano bezela; orain, ta betiko denbora guztietan. Amen.



## LENBIZIKO SALMOA.

**Emen Aita Eternoari ematen zaizka  
alabantzak.**

¡O zeruen eta lurraren Jabea!  
¡Zeiñ almentsua dan zure eskua!  
bada une batean atera ziñituan  
ezer ezetik, eta egiñ ainbeste mi-  
lla milloi Aingeru zeruan, eta eziñ  
kontaala kriatura munduan. Bada  
¿nork konsideratu ditzake Jauna;  
Zuk egiñdako zeruko Aingeruen  
birtuteak? ¡Zeiñ miragarriak dira,  
batzuek garbitasunean, besteak  
anditasunean, besteak agintean,  
besteak zuzentasunean, besteak  
jauntasunean, besteak jakiñduri-  
an, besteak amodioan, eta guztiak  
edertasunean! Izanik milloika eziñ



kontaala Aingeru, guztiak dira  
diferenteak, ta guztiak miraga-  
rriak. Geroztik, au da, munduaren  
asieratik, erreinu orretan dauzka-  
zu Jauna, Zu beti alabatzen. Ala-  
ba zaitzatela emendik aurrera ere  
eternidade<sup>o</sup> guztian. Mundu one-  
tan berriz ;zenbat milla ta milla  
kriatura egiñ ziñituan Jauna, une  
artan bertan, ta nolako erraztasu-  
narekiñ! Zure zeruko jarleku mi-  
ragarrian eserita zeundela esa-  
naz: EGIÑ BITEZ, bete ziran itxaso-  
ak arraiz, eta mundu guztia kria-  
turaz, eta ;zeiñ diferenteak dira!  
Kriatura oen bidez sortzen ta sor-  
tuko dituzu beste eziñ kontaala  
munduaren azkeneraño. Beraga-  
tik kriatura ezagüerarik ez dute-  
nak ere ;nolako leyaltaşunarekiñ



ari dira, Jauna, alabatzen beren modura zure izen santua, zure esku poderosoa! Gizona egiñ zenduenean berriz anima gorputzarekiñ bat egiñda ;orduan bai erakutsi zenduan batez ere zure esku poderosoaren anditasuna! Bedeinkatu ta alabatu zaitzatela beragatik Jauna zeruan ta lurrean, aingeruak, eta gizonak, eta beste kriatura guztiak orain ta beti. Amen. *Gloria Aitari, Gloria Semeari, etc*

## BIGARREN SALMOA.

Emen Seme Jaungoikoari alabantzak ematen zaizka.

¡O zeruko Aingeruen, ta munduko kriatura guztien gobernatza-



llea ¡Nolako arreta, ta leyaltasu-  
narekiñ begiratzan diezun zure  
Aitak egiñ zituan zeruko Ainge-  
ruai, ta lurreko kriatura guztiai!  
Zuk Jauna, zure jakinduriarekiñ  
ezagutu zinituan instante batean  
Aingeru guztien birtuteak, eta ja-  
rri zinituan guztiak beren jarleku  
altu, edo tronu aiñ egokietan ka-  
pitan jeneral batek bere mendeko  
soldaduak jartzen dituen bezela.  
Zuk agintzen diezu guztiai, ta guz-  
tiak obeditzen dizute zuri, guzti-  
ak daude Jauna zure mendean.  
Eta Zuk guztiak aiñ zuzen ipiñi,  
ta aiñ ondo agintzen diezulako,  
guztiak daude beñere aspertu ga-  
be zuri alabantzak ematen. Ala  
segi dezatela eternidade guztian.  
Zuk gañera ¡O Jaungoikoaren Se-



mea! zure Aitak zeruan egiñ zitu-  
tuan eguzkia, illargia, ta izarrak  
ipiñi zinituan aiñ zuzen beren bi-  
deetan. ;Nolako leyaltasunarekiñ  
obeditzen dioten zure aginteari,  
zure jakinduriak aiñ ederki go-  
bernatzen dituelako! Ez ditezela  
bada beñere aspertu Jauna, zure  
jakiñdurizko gobernuari alako  
alabanzak ematez. Munduan zure  
Aitak egiñdako kriatura guztiak  
orobat daude Jauna, zure jakiñ-  
duria jainkozkoari graziak ema-  
ten, aiñ ederki gobernatzen ditu-  
zulako. Zuk Jauna, erakusten  
dizkietzu arrayai beren bidea  
itxaso zabal orietan. Zuk erabil-  
tzen dituzu beiñ batera ta beiñ  
bestera, Zuk gañera zeru altu  
orretan zeundela jarri zinituan le-



gorreko kriatura guztiak aiñ ego-  
ki beren lekuetan; eta geroztik  
zaude begira guztiai batean ar-  
tzai batek beren ardiai begiratzen  
dien bezela. Baña batez ere gi-  
zonarekiñ erakutsi zenduan zure  
jakinduria egiaz eta miragarritzko  
moduz. ¿Zer asmatu zenduan, edo  
obeto esatea-gatik, zer asmatu  
etzenduan gizon galdua billatze-  
ko, eroria altxatzeko? Jetxi ziñan  
zerutik gizon egitera, artzen dezu  
gañean bere zor guztia, beragatik  
pasatzen dezu bizitza aiñ penaga-  
rrizkoa, eta azkenik alako tor-  
mentuen artean eman zenduan  
gurutzean azkeneko asnasa. Eta  
onenbestez kontentu ez izanik su-  
matu zenduan nola gelditu gi-  
zonarekiñ aldareko Sakramentu



Santuan munduaren azkeneraño.  
Beragatik ¡zeiñ obligatuak daude  
gizonak Zu onratzen ta alabatzen  
aritzeko eternidade guztian! On-  
ratu ta alabatu zaitzatela bada  
guztiak munduan eta zeruan ain-  
geruen laguntzan Amen.

*Gloria Aitari, Gloria Semeari, etc.*

## IRUGARREN SALMOA.

**Emen Espiritu Santuari alabantzak  
ematen zaizka.**

¡O Aita Eternoa egiñ, eta Seme  
Jaungoikoak gobernatzen dituan  
zeruko eta munduko kriatura guz-  
tiak maitatzen, eta mantentzen  
dituzun Espiritu pozkidatzallea!  
¡Nolako borondatearekiñ begira-  
tzen diezun zeruan zure lagunki-



dan dauzkatzun Aingeruai, ta nolako pozarekiñ daude berak zuri begira, zure edertasunari beti bere aspertu gabe, zure edertasunean beti gauza berriak, eta miragarriak ikusten dituztela! Zuk, Jauna, zure ontasunarekiñ erakartzen dituzu zugana amodiozko kateakiñ, eta ezin alde egiñ dezaketete instante batean ere zugandik; alako janari gozua, alako edari preziosoa, ta alako atsegiñak arkitzen dituzte beti zure mai sagraduan! Zu jostatzen zera berakiñ, eta berak gloriz betetzen dira zurekiñ. Zuri begira joaten zaizkate milla urte emen egun bat beziñ laxter. ¡Nolako gloria ematen diezu, millaka urteak aiñ laxter pasatzen zaizkatenean! Ta zu-



re ontasun zoragarriak ematen die segurantzaz eziñ faltatu dezakeana, beti ta beti ala izango dirala. Beragatik ¡nolako alabantzak kantatzen ari zaizkitzun o Espiritu konsolagarria! Mundu onetako kriatura guztiak ere daude zure esku ondazunez beteari begira pozaren andiz, zugandik esperatzen dutela bear duten guztia, eta zuk mantentzen dituzu guztiak asetzerako Aita Eternoak eginak diralako. Zuek bada ¡o itxaso zabal orietako arrayak! ¡o legorreko animaliak, eta kriatura guztiak! bedeinkatu ta alabatu ezazute zuren modura alako borondatearekin bere esku aberatsa luzatzen dizuten ongille aia maitagarria. Baña batez ere gizonakin erakusten de-



zu zuk, Jauna, zein ongille zoragarria zeran. Zuk daramazkizu ixil ixillik gizonen eskergabeke-riak: Zuk argitzen dituzu beren adimenak, billatu dezaten zerurako bidea: Zuk prestatzen dituzu beren biotzak, eta laguntzen diezu zuzen ibilli ditezen zerurako bidean, eta zuk eramanez dituzu beren animak zure aldamenen-  
ra, betiko gloria gozatzera. Munduan ezagüera egiazkoan jartzen dirala, gero zure Erreinura eramateagatik, izenbat denboran, eta nolako pazienziarekin sufritzen dituzu beren gaiztakeriak!  
Zein erraz eta zein laxter barkatzen dituzu beren pekatuak, eta artzen dituzu zure beso zabal-  
baletan, zure adiskidetasunean



beren animak! ¡O animak Es-  
piritu Santu Jaun onen esposak!  
Bildu zaitetze guztiak elkargana;  
egĩn ezazute koro bat eta kanta  
itzazute guztiak batean bere ala-  
bantzak: bedeinka ezazute gabaz  
eta egunaz, ordu ta instante guz-  
tietan bere ontasun maitagarria.  
Amen.

*Gloria Aitari, Gloria Semeari, etc.*

## LAUGARREN SALMOA.

Emen Jaungoikoa alabatzen da, gi-  
zona egĩn zualako.

¡O Trinite gultiz santua! ¡no-  
lako arreta izan zenduan gizona-  
ren anima egitea pensatu zendua-  
nean! Beste kriatura guztiak egĩn  
ziñituan instante batean Zeruko



zure Tronoan eserita zeundela;  
baña anima egiteko, ta egiñ baño  
lenago, Zuk ¡o Aita Eternoa! kon-  
sideratzen dezu, zure esku pode-  
rosoak zer egiñ aldezakean, Zuk  
¡o Seme Jaungoikoa! konsidera-  
tzen dezu Zure jakinduria noraño  
zabaldu alditekean; eta Zuk ¡o  
Espiritu Santu Jauna! konsidera-  
tzen dezu Zure ontasuna zein an-  
dia dan, eta ontasun, jakiñduri,  
ta esku aín almentsu orrezaz ba-  
liatuta, diozute elkarren artean:  
egíñ dezagun gizona gure an-  
tzekoa, ta apaindu dezagun gure  
birtute ederrakiñ: eman dezayo-  
gun esku poderosoa gauza andiak  
egíñ ditzan: entendimentu argia,  
au da, jakiñduria, gobernatu di-  
tzan: ta biotz amorosoa, bear dua-



na maitatu dezan. Beragatik geroztik gizonak ;zeiñ gauza andiak asmatzen ta egiten ditu, ta zeiñ diferenteak giza-aldi edo denbora guztietan! ;Eta nondik ditu gizonak esku aiñ poderosoak, entendimentu aiñ argia, ta alako gauzak sumatu ta egiteko gogo aiñ egokia? Zureak dira ;o Trinitadetxite santua! Zuk emanak, ta zure eskutik artuak ditu fedeak erakusten duan bezela, ta guztiak aitortzen degu, ala dala. Onezaz gañera munduko beste kriatura guztiak egiñ ziñituan, Jauna, gizonarentzako. Eguzkia, illargia, ta izarrak egiñ ziñituan gizonari argi egiteko; itxasoetako arraiak, eta legorreko animaliak, frutak, ogia, ta beste janari ta



edariak gizona mantentzeko, ta serbitzeko: sedak, damaskoak, eta beste gai askotako soñekoak, gizona jazteko ta apaiñtzeko, kantuak eta musikak, gizonari atsegiñ emateko, gizona alaitzeko. Baita Jauna, zeruko Aingeruak ere egiñ ziñituan moduren batera gizonaren serbitsurako. Zuk bada agindu ziñien Aingeruai zaitu dezatela gizona, ta lagundu bere ibillera guztietan. Beragatik zeñ obligatua arkitzen dan gizona Zu alabatzen beti aritzeko. Be-deinkatu ta alabatu zaitzatela bada guztiak beñere azpeltu gabe: esaten dizutela beste kriatura guztien partetik ere ;o Trinitade txit santua! Ala izan dedilla.

*Gloria Aitari, Gloria Semeari, etc.*



## BOSTGARREN SALMOA.

Emen Jaungoikoa alabatzen da gizona erremediatu zualako.

¡O gure Jaun eta Jaungoiko aundia! gizonaren anima egiteko alako arreta artu bazenduan ¡zenbat geyago kosta zitzazun bere anima billatzea, pekatuan erori zanean! Ikusi zenduanean bada etsayaren mendean, kondenazio-ko bidean, konsideraturik etzeukala beste erremediorik, zerorrek Jauna, erremediatzea pensatzen dezu. Egiñ dezagun anima gure antzera esanaz, atera zenduan ezer ezetik, eta egiñ kriatura aiñ ederra: baña erremediatzen pasa ziñituan ogeita amairu urte. Jetxi



ziñan zerutik anima galduaren bi-  
lla, egiñ ziñan gizon donzella ba-  
ten erraietan, pasa ziñituen bede-  
ratzi illabete, karzela illun artan;  
jayo ziñan animalien etzan-leku  
batean. Pasatu ziñituan ogeita  
amairu urte beti nekepean; izandu  
ziñan urrutira deserritua, despre-  
ziatua, zoro gaiztotzat tratatua,  
aiñ odolgiroki azotatua, arantzez  
koroatua, illtzera sentenziatua la-  
pur bien erdian, eta jartzen zizute-  
la gurutze pixua bizkarrean. Ego-  
itza aiñ negargarri artan joan bear  
zenduan, edo eramán zinduzten  
mendi batera bide gogor artan  
puntuán bein erortzen zina. Izandu  
ziñan gurutze artan josia,  
zinzilika jarria, alde guztietatik  
atormentatua, azkeneko asnasa



ematerano sakrifikatu, eta azkenik lurpean obiratu. Ainbeste kosta izan zitzazun Jauna, anima pekatuan eroria erremediatzea, ardi galdua billatzea. ¿Eta zertarako Jauna,? infernuko etsayen mendetik atera ta zerura eramateko ¿Ay anima zorionekoa! Orain bai desegiñ bear zendukeala Jaungoikoari graziak eta alabantzak ematen. Gonbidatu itzazu bada zeruko Aingeruak, eta munduko kriatura guztiak eta esan zayezu aekiñ batean: Jauna, Zure urrikitasun zoragarria alabatzen ariko naiz beti betiko denbora guttietan. Zuk Jauna, ainbeste kosta atera dezu nere anima infernuko bidetik; libratu pekatuaren mendetik, eta etsayaren atzapa-



rretatik, pekatuak egiñdako zau-  
riak, sendatu diozkatzu, bere  
mantxak garbitu, artu dezu zure  
adiskidetasunean, ipiñi zeruko bi-  
dean, eta eramán nai dezu zeruko  
gloriara, zure aldamenengan jartze-  
ra, Aingeruen lagun izatera. Zu  
Jaungoiko zeran arte guztian. ¡A  
nere sentiduak, biotz eta mingañ  
biurtuko baziñateke Jaungoiko  
ongille maitearen alabantzak kan-  
tatzeko, amodioaren andiz urtu-  
tzeraño! Ala bada izan dedilla.

*Gloria Aitari, Gloria Semeari, etc.*







# TRINIDADE

## GUZTIZ SANTUAREN KANTAK.

1. Atoz eguzki ederra,  
Zeru altutik lurrera,  
Illuna desegitera,  
Gu argitan ipintzera.
2. Aitaren anditasuna  
Da bai gure ondasuna,



Eta zorientasuna,  
Aitortu bear deguna.

3. Zuk gaituzu gobernatzan,  
Etsayagandik libratzen,  
Zeru-bidean giatzen,  
Bide onetan laguntzen.

4. Argaitzazu biotzean,  
Zurekiñ izan gaitean,  
Lurrean gauden artean,  
Gero eternidadean.

5. Aita degu alabatzen,  
Semea degu laudatzen,  
Espiritu Santua amatzen,  
Irurak baten onratzen.

6. Guretzat dira gloriak:  
¡O gure biotz alayak!  
Baldiñ bagera garbiyak,  
Zeruan daude sariyak.

7. Jauna: zuri eskermilla,  
Bada zabiltz nere billa,



Zurekiñ izan nadilla,  
Ala gertatu dedilla.

Amen.

Ÿ. Bedeinka dezagun gure Jaun  
eta Jaungoikoa.

R. Orain eta beti sekulako den-  
bora guztietan. Amen.

## MAGNIFIKAT.

Nere anima: alabatu ezazu go-  
gotik zure Jaun eta Jaungoikoa,  
ta poztu zaitte biotzetik graziak  
emanaz, mesede añ andiak egiñ  
dizkitzulako. Zu sortu baño lena-  
go etziñan ezer ere, ta zure ezere-  
zari begiraturik begi amorosoa-  
kiñ, egiñ zinduen kriatura aiñ  
ederra; Berak egiñ du, zeruko



aingeruak beren senidetzat eza-  
gutu zaitzatela, ta ongille maite  
arrek munduko kriatura guztiak  
zure mendean jarri ditu. Zerua,  
eta mundua instante batean egiñ  
izan zituan Jaungoikoak, eta ze-  
ruko ta munduko kriatura guz-  
tiak adoratzen duten Jaun aiñ  
aundiak egiñ eta eman dizkitzu,  
zuri, nere anima, ondasun añ esti-  
magarriak. ¡Ay zein obligatua  
arkitzen zeran ongille beneraga-  
rriari graziak ematera! Izan zai-  
te umilla ta aitortu zazu mundu  
guztiaren aurrean, dezun guztia  
Jaunak emana dezula: bada ani-  
ma umillak eta grazia onekoak  
onratzen eta aberastutzen dituan  
bezela, alaxe despreziatzen, eta  
botatzen ditu beragandik arrotzen



diranak, eta beren buruen gañean konfiatzen dutenak. Toki altuetan jarri izandu diran soberbio-soak, lotsatuta utzi izan dituan bezela; ala onratu ta altxatu izan ditu beren ezereza ezagutzen eta aitortzen duten anima umillak. Deseatu itzazu gogotik zeruko ondasunak, eta eskatu egarri aundiarekiñ: bada emango dizkizu eta asetzeroño; batez ere eskatu zayozu umiltasuna, ta Jauna maitatzeko grazia: ala izango zera egiaz zorionekoa ta aberatsa. Munduko ondasunetan biotzak jartzen dituztenak, arkituko dira esku utsakiñ batez ere eriotzako orduan. Nere anima: zure argal-keriak eta premiak, ezagutu eta aitortu itzazu Jaunaren aurrean,



eta dudarik gabe urrikalduko zatzu: ala esaten digu eskritura sagraduan, eta eziñ faltatu dezake. Beragatik alabatu, ta bedeinkatu ezazu zure Jaun eta Jaungoikoa, esanaz.

*Gloria Aitari, Gloria Semeari, etc.*

Bedeinkatua ta alabatua izan dedilla Trinitade guziz adoragarria, Aldareko Sakramentu Santua, ta Ama Birjiñaren Sortze garbia orain eta beti. Amen Jesus.

BEZPEREN AZKENA.







**ALDAREKO**  
**SAKRAMENTU SANTUARI**  
**EGITEN ZAYON BIXITA.**



¡O nere Jesus txit maitagarria!  
Ona emen daukazu nere anima  
auspezturik zure aurrean: nik ado-  
ratzen zaitut, Jauna, biotz guztiaz,



eta nai zinduket adoratu zeruan  
eta lurrean Aingeruak, eta anima  
santuak adoratzen zaituzten beze-  
la. Adoratzen eta alabatzen zaitut  
Sakramentu Jainkozko orretan:  
eta ¡ay nere biotza urtuko balitz  
zuri izan bear dizudan amodioa-  
ren andiz! Begira zayozu, Jauna,  
nere biotzeko deseo irazeki oni,  
ta bixita ezazu nere anima erru-  
karria ala emango dizkizut gra-  
ziak eziñ kontaala zure ontasun  
muga-gabeakgatik. Amen.

## BIOTZ BARRENDIK

Ateratzen diran naitazunezko itzak.

¡O nere Jesus egiaz maitaga-  
rria! nik sinisten det Fede biziare-  
kiñ Sakramentu adoragarri orre-



tan zaudela, zeruan zauden beze-  
la, Aita ta Espiritu Santu Jauna-  
rekiñ. ¡O nere Jaun eta Jaun-  
goikoa leku guztietan, eta batez  
ere Aldare orretan arkitzen zera-  
na! Nik alabatzen, eta adoratzeko  
zaitut lurraren gañean auzpez  
etzinda, dizudan bildur santuaren  
andiz. Zeruko Aingeru Santuak,  
alabatu ta adonatu ezazute nere  
partez Aldare onetan neri didan  
amodio zoragarriak lotuta dau-  
kan nere Jaun eta Jaungoiko aun-  
di au. Nere anima, arren umilla  
zaite zeruko Aingeruak arpegira  
begiratzea atrebitzen ez diran  
Jaungoiko adoragarri onen aurre-  
an. ¡O nere animaren Esposo txiki  
zoragarria! indazu, arren, argita-  
suna, ta indarra, zure anditasuna



geyago ezagutzeko, zure Jainkotasuna ta amodio miragarria ongi barrendik sinisten eta maitatzen dedala, emendik aurrera bizi ta ill nadiñ; onela Zuk Sakramentu orretan egiten dizkidatzun grazi aiñ estimagarriai nola baitean bada ere erantzuteko. ¿Baña nor naiz, Jauna, ni Zuk Sakramentu beneragarri orretan egiten dizkidatzun mesedeakgatik merezi dituzun alabanzak eta graziak emateko? Zeruko Aingeru Serafiñen biotz Santuak ere ez dira diña zuri merezi dituzun graziak emateko. Alaz guztiaz ere ona emen Jauna, nere anima deseoz beterik Zu alabatzeko, eta zure amodio santuan sartuta bizi ta illtzeko. Ala izan dedilla.





## JESUSEN BIOTZ JAINKOZKOARI ORAZIOA.

¡O Jesusen Biotz! nere biotzak egiaz maite zaituana. Zu zera Aita Eternoari eskaintzeko ofrendarik onena ta Zu zeruko ondasun guztien Emallea. Nik adoratzen zaitut nere biotz guztiaz Sakramentu



Santu beneragarri orretan, zenbaitek egiten dizkitzuten desprezioen eta lotsagabekerien tokian. Adoratzen zaitut, misterio txit adoragarri au beñere sinistu nai ez dutenak zure Biotz amorosoari ematen dioten naigabea ordaintzeko: eta ematen dizut nere Jaungoiko maitea, zorigaiztoko aek eman bearlizutekean alabantza ta glori guztia. Bedeinkatzen eta alabatzen zaitut anima pekatariak munduan, eta kondenatuak infernuan beren gaiztakeriz zure ontasun urrikaltzuari ematen dioten sentimentuagatik. Ona emen, Jau-na, nere biotza, nere gogo guztia bat egiñda zure maite Eliza Ama Santaren biotzarekiñ. Nere de-seoa da ematea zuri Sakramentu



miragarri orretan zure Ama Maria txit santak ematen dizkitzun alabanzak, eta zerorrek Aita Eternoari ematen diozun onra ta gloria. Bedeinkatu, alabatu, ta amatu zaitzatela bada ¡o Jesusen Biotz txit maitagarria! Zeruan Aingeruak ta santuak bezela, Sakramentu Santu orretan lurraren gañean dauden anima guztiak. Amen Jesus.

Sei Aita gure, Agur Maria ta Gloria, esaten dala bakoitzean: Alabatua ta bedeinkatua izan dedilla Jesus Sakramentua.

Izan bedi beti alabatua ta bedeinkatua.

## ORAZIO LABURRAK.

1.<sup>a</sup> ¡O zerutik jetxitako ogi Jainkozkoa! nik adoratzen zaitut Sakramentu orretan.

2.<sup>a</sup> Nere Jesus maitearen, eta Maria txit santaren biotz sagra-



duak: sendatu, ondu, ta zuen alabatzen artu ezazute arren nere anima gaixoa.

3.<sup>a</sup> ¡O Jesus, nere ongille zoragarria ta Salbatzallea! zuri eskaintzen dizut nere biotz argal au.

4.<sup>a</sup> ¡Ay Jauna! Zenbat descaitzen det zure ontasuna, zure biotz amorosoa ezagutua, adoratua, alabatua, ta glorifikatua izatea ordu ta une guztietan guri diguzun amorioaren andiz urtutzen zauden aldare guztietan.

5.<sup>a</sup> Nere anima konsidera ezazu ondo noren aurrean zauden; zeruan Aingeruak bere edertasunaren andiz arpegira begiratzea atrebitzen ez dira ¿nor zera zu Jaunaren aurrean egoteko?

6.<sup>a</sup> Nere anima: ¿Badakizu



nork ekarri zaituan Jaun onen aurrera, ta zertara ekarri zaituan? Zure esposo zerutik jetxitako onek deitu dizu beragana ta ekarri zaitu amodiozko kateakiñ lotuta, ta ekarri zaitu zure biotzeko pekatuaren zauriak sendatzera mantxak garbitzera, birtutez apaiñtzera, ta bere esposatzat artzera. ¡Oy, eta zenbat zor diozun!

7.<sup>a</sup> Nere anima: amodioari amodioarekiñ erantzun bear bazyo, badakizu zure Esposo onek nola ixuri izan zuan bere sañetako odol guztia, ta eman azkeneko asnasa zuri izan zizun amodioagatik: zuk oraiñ bera ¿zenbat maitatu bear dezu?

8.<sup>a</sup> ¡A Jesus! atera zadazu biotza bere lekutik... jarri nazazu



Jauna zoratua bezela..... ¡Ay! nor izan al ditekean diña bere zañetako odola ixurtzeko martirio glorioso batean zure amodioaren andiz... ¡Egiñ zaite arren, Jauna nere borondatearen, eta sentiduen jabe!

### **Sakramentu Santuaren Letania.**

Jauna: atozte guri laguntzera.

Jesus: urrikal zaite guzaz.

Jauna: ez arren aserratu gure kontra.

Aita Jaun zerukoa: begira guri errukiz.

Jaungoikoaren Seme munduaren erremediatzallea: begira guri errukiz.

Espiritu Santu Jauna, ta Jaungoikoa: begira guri errukiz.

Trinidad txit santua, ta Jaun-



goiko egiazko bakarra: begira  
guri errukiz.

Aldareko Sakramentu santu bene-  
ragarria: begira guri errukiz.

Jesus maitearen gorputz sagra-  
dua ta odol preziosoa: begira  
guri errukiz.

Anima garbien janari zerukoa:  
begira guri errukiz.

Gloria irabazteko doai zoraga-  
rria: begira guri errukiz.

Zerura joateko laguntzalle zuze-  
na: begira guri errukiz.

Atera zaitte, Jauna, beti gure al-  
de:arren barka! zaiguzu. |

Animako ta gorputzeko gaitz guz-  
tietatik: libra gaitzazu Jauna.

Komunio gaiztoetatik: libra gai-  
tzazu, Jauna.

Ona, Jauna gu pekatari aun-



diak: aditu gure orazioak.  
Arren gure pekatuak barka zaiz-  
kiguzu: aditu gure orazioak.  
Lagun zaiguzu penitentzi egiaz-  
koa egiten: begira guri errukiz.  
Jaungoikoaren Seme munduko  
pekatuen kentzallea: itzul itza-  
zu gugana begi errukitzu oriek.  
Jesus gure Jaunaren gorputz  
jainkozkoa: itzuli itzazu guga-  
na begi errukitzu oriek.  
Jaungoikoaren Seme gizon egiña:  
itzuli itzazu gugana begi erru-  
kitzu oriek.  
Jesus Jaungoiko ta gizon egiaz-  
koa: itzuli itzazu gugana begi  
errukitzu oriek.  
Jauna: atoz guri laguntzera.  
Jesus: urrikal zaitte guzaz. Jauna:  
ez arren aserratu gure kontra.





## MARIA TXIT SANTARI BIXITA.

¡Agur Maria, Birjiña ta Jaungoikoaren Ama! pekatari errukarri bat banaiz ere konfiantza aundiarekiñ auspeztutzen naiz zure



oñetan, sinismen osoan egonik,  
Zu zerala gizonai Jaunaren gra-  
zia guztiak zere balimentu indar-  
tsuarekiñ iristen dieztezuna. Zu  
zera txit aberatsa, ta ni beartsu  
bat: Zu zera Ama, ta ni gaiztoa  
bederik, zure umea naiz; *ezagie-  
razo zadazu nere Ama zerala.*  
;Zein amak izango luke biotzik  
sufritzen utzitzeko bere umeari  
lagundu al balezaioke! Eta Zuk  
ain eskualdi aundia izanik, ;ez di-  
razu lagunduko? Oroitu zaitte, ;o  
Maria Birjiña txit beraa! lagun-  
tza eske ta anparo billa Zugana  
joan diranetatik inor Zuk utzia  
izandu danik egundano aditu izan-  
du ez dala: ;eta nik izan bear det,  
guztientzat beti idiki zan ate au  
itxia arkitu bear dedan aurrene-



koa ta bakarra? baña ala balitz ere, ez det etsiko, kontrara, uju aundiagoa egiño det eta ez naiz ixilduko, alik eta eskatzen dizudana ematen didazun arteraño. Bai, nere Ama ta Señora, nere erregua adi zazu, iritxi zadazu zure serbitsu santuan irauteko grazia, ta Jainkoari nai ez dakiola, baña gertatuko balitzake pektuan erortzea, egizu ez dezadala arkitu deskansurik, alik eta konfesio on bat egiñ, eta nere pektuaren barkazioa iritxi dezadan arteraño.

Eskatzen ere dizut justuen iraupen eta pektarien onbiurrera. ¿Zer nai dezu egitea nik oekgattik? gogo onez prestatzen naitzazu oen konbersiorako al ditzake-



dan bide guztiezaz baliatzera. Oro bat eskatzen dizut purgatorioko anima bedeinkatuakgatik, nere guraso, aide, adiskide, ongille, ta nere orazioetara gomendatu diran guztiakgatik; Aita Santuagatik eta gure Obispo Jaunagatik; Kardenal, Arzobispo, Obispo anima zai ta beste gañerako apaizakgatik, gizon eta emakume erlijiosoakgatik, berak santu batzuek izan, eta ala gañerako guztiak santutu ditzaten; era berean eskatzen dizut zure laguntza, Fede santu katolikoa geyago ta geyago zabaltzeagatik, erejien zisma eta bizioen des-egimentuagatik; Erregeagatik, eta erreinuko, probinzietako, uri ta errietako gobernari ta kargudunakgatik, iduki



dezaten Salomonen prudenzia, jakunde ta somakera guztia, ura bezela sayatu, ta iritxi ditzaten erreinurako ondasunak, pake ta zoriontasuna; eta, azkenik, erregutzen dizut nere lagun urko guztiakgatik batez ere eriakgatik; itxian eta deserrituak daudenakgatik, eta legorrean eta urean bide egiten dutenakgatik, eman zayeztezun guztiai bear dituzten graziak.

Zure biotza are geyago kukurtu dezadan, grazia oek guztiak eskatzen dizkizut Trinitade guttiz Santuari beti izan diozun amorioakgatik, Aldareko Sakramentu guttiz adoragarriarenganako zure amorioagatik, San Joakin eta Santa Ana zure gu-



rasoai, San Jose zure senarrari,  
San Juan apostoluari, San Ilde-  
fonso, Santo Domingo, San Bue-  
nabentura, San Bernardo, San Ig-  
nazio ta San Ligorio zure debo-  
to bikañenai izan ziñien eta die-  
zun amorioagatik; eta oek guztiak  
asko ez baldiñ badira, ipintzen di-  
tut bitartekotzat bederatzi koro  
Aingeruak, Patriarkak eta Profe-  
tak, Apostoluak eta Ebanjelariak,  
martiriak, obispoak eta konfeso-  
reak Birjiñak eta alargunak, zeru-  
ko Santu Santak eta lurreko jus-  
tu guztiak. Bai Birjiña txit Santa  
ta Jainkoaren Semearen Ama,  
aiñ balimentu indarsuarekiñ eziñ  
utziko nazu nere erreguak aditu  
eta eskatzen dizudana iritxi gabe.  
Amen Jesus.



*Trinidad* guztiz doatsuari iru  
*Aita gure, Abe Maria eta Gloria,*  
*Maria txit Santari eman ziozkan*  
*grazien esker onean.*

Bedeinkatua izan Bedi, Maria  
Zure garbitasun ori,  
Bada Jainko bera da gozitzen  
Begira edertasun orri.  
Zuri, zeruko Prinzes aundia,  
Gaurtik eskeintzen nago ni  
Anima, bizitza eta biotza,  
Ez utzi, arren, zure ume oni.

*Berso onegatik emanak daude*  
*39.600 eguneko induljentziak, eta*  
*Agur Maria txit garbia esanda*  
*irabazten dira 2.580 egunekoak,*  
*eta beste ainbeste, Pekatu gabe*  
*sortua erantzutean.*





**MARIAREN BIOTZ SAGRADUARI**  
**ADORAZIOA.**



Adoratzen det ¡o Birjiña ta  
Jaungoikoaren Ama! Prinzipa-  
duen koroarekiñ batean zure  
Biotz sagradua, ta eskatzen di-



zut iritxi zadazula zure Seme Jesusgandik biotz manso eta umillekoa beti izateko grazia. Amen.

*Aita gurea ta Abe Maria.*

Adoratzen det jo Birjiña ta Jaungoikoaren Ama! Goi-aingeruen koroarekiñ batean zure Biotz sagradua, ta erregutzen dizut iritxi zadazula zure Seme Jesusengandik nere gorputzeko, animako ta biotzeko garbitasuna Amen.

*Aita gurea ta Abe Maria.*

Adoratzen det jo Birjiña ta Jaungoikoaren Ama! Aingeruen koroarekiñ batean zure Biotz sagradua, ta erregutzen dizut iritxi zadazula zure Seme Jesusgandik nere lagun urkoakiñ karidadea, zeloa, eta gañerako obra



miserikordiazkoak, 'egiten' jakiteko, ta egiñ al izateko grazia, Amen.

*Aita gurea ta Abe Maria.*

## BESTE ORAZIO BAT

**Maria txit Santari.**

Oroitu zaitetz, ¡o Maria Birjiña txit beraa! laguntza eske ta anparo billa Zugana joan diranetatik iñor Zuk utzia izandu danik, egundaño etzala aditu izandu. Konfianza onekiñ alaiturik Zuganatzan naiz ni ere, o Birjiñen Ama Birjiña, ta nere pekatuen pixupean lantuak emanaz, menturatzan naiz jartzan zure begi benegarrien aurrean. ¡O Jaungoikoaren Ama! ez itzazu, arren des-



preziatu nere erreguak, ezpada biotz onez aditu ta ar itzazu. Alai izan dedilla.

Aita Santu Pio IX-garrenak eman zitu-  
tuen 300 eguneko induljentziak, orazio au  
deboziaz errezatzen dan aldi bakoitzaga-  
tik, eta egunero errezatzen baldiñ bada,  
irabazten da illean induljentzia oso bat,  
konfesatu ta komulgaturik bisitatzen ba-  
da Eleiza bat, errezatuaz bertan Aita San-  
tuaren intenziorako.

## MARIA TXIT SANTARI

### Agurrak eta eskeñiak.

1. Txit ondo dakit, Birjiña guztiz santa, gauza bearra dedala zure deboto egiazkoa izateko pekatu-mota guztietatik alde egi-  
tea, zure birtuteak jarraitzea, Sa-  
kramentu Santuak maiz artzea,  
gogoko dituzun obsekioen ba-



tzuek zuri eskeintzea, ta errezoak eta zure serbitzuko gañerako gauzak ondo, gozoro eta asper-tu gabe egitea; onetan guztian ariko naiz, bada, zure laguntzarekiñ Zuri, nere Ama, atsegiñ emateagatik.

2. Orduoro errezatuko det Abe Maria bat, Egunero Errosarioaren parte bat. Asteoro larunbatetan barautuko naiz edo zerbaitetan mortifikatuko det nere gorputza. Illaren lenbiziko igandeetan artuko ditut Sakramentu Santuak, eta errezatuko det Errosario osoa.

3. Zure amorez eta zure onran sayatuko naiz dezakeda-neraño, miserikordizko amalau obretan.



## ERROSARIO SANTUA.

Era bitara da Errosarioa: batari deritza *Ama Birjiñaren Koroa*: zeñak dituan zazpi amarreko, gañera bi Abe Maria, ta azkenean Aita Santuaren izenean Aita gure bat eta Abe Maria bat. Au bera esan da irabasten dute Aita San Franziskoren iru ordenetakoak barkamen osoa, edo induljentzia plenaria.

Besteari deritza *Errosarioa*: eta onek ditu amabost amarreko, ta esan ditezke edo amabostak bata besteen urrena, edo bosnaka edo banaka. Eta dan bezela dala, amabostak eralki ezkerro irabazten da barkamen osoa.

Baña au irabazteko esan bear da, ala bata nola bestea, debozita jaiera andiarekiñ aoz eta biootzez; ez erdi-lo gogo gabe ta adi-



mena beste lekutan dala, betaz eta itzak ortz artean naztutzen ez dirala: itxodoten dala batak osotoro esan artean, besteak erantzuteko: eta erregutzen zayola Ama Birjiñari, arren, gure bitarteko izan dedilla iritxi dezagun Jesus maiteagandik bear degun grazia, bere onrarik andienerako ta gure animen onerako.

Onezaz gañera gogora itzazu amarreko bakoitzean egunari ta amarrekoari dagozkion misterioak, aurrera esaten diran bezela.

## AMA BIRJIÑAREN

Errosario santua, bear dan debotzioaz errezatzeko modua.

Ama Birjiñarekiñ itz egiten asitzeko soseguz ta ondo ziñatu eta *Nere Jesu-Kristo Jauna, etc.* biotzetik esan, eta gero Eleizak dio-



na *Dñe.. labia mea. etc.* batek asiko du onela:

Ÿ. Idikiko dituzu, Jauna nere ezpañak.

R. Eta nere aoak esango dituzure alabantzak.

Ÿ. Begira zazu, Jauna, nere alde.

R. Eta atoz laxter neri laguntzera.

Ÿ. Gloria Aitari, Semeari ta Espiritu Santuari.

R. Asieran zan bezela, sekulaguzietan, orain eta beti. Amen.

## MISTERIO GOZOKOAK,

### Astelen Ostegunetarako.

Emen Sazerdoteak, edo batek ofrezimentua ezango du, ta gero obeto errezatzeko, ta Induljentziak irabazteko batek eman kontu eta Pater noster ta Abe Maria asi, eta besteak erantzungo dute.



## LENENGO MISTERIOA,

*Jainkoaren Semea gizon egitea.*

Emen eskatu dezakegun birtutea:

**Umiltasuna.**

¡O Ama Birjiña gozoa! Espiritu Santuaren graziaz zure sabel garbian Jainkoaren Semeak gizatasuna artu zuan instante artan, zu Jaun beraren mirabe umil aitortu zian. Misterio miragarri onegatik iritxi zaiguzu guri ere, Ama maittea, gure buruaren ezagüera barren barrenekoa; aitortu dezagun beti, gugan gauza onik baldiñ bada, guzia zor diogula gure Jaunari; eta mundu onetako despreziota naigabeak, gure pekatuakgatik



merezituak bezela; biotz onez eram  
man ditzagula Jesusen izenean.  
Amen Jesus.

## **BIGARREN MISTERIOA,**

*Ama Birjiñak bere lengusu Isabel  
santari egiñ zion bixita.*

**Emen eskatu dezakegun birtutea:  
Karidadea.**

¡O Ama Birjiña gozoa! Zure  
lengusu Isabel santa bixitatzean,  
agertu zenduan karidade irazek  
argatik, iguzu, gaizkilleai barka-  
tu premian dagoanari lagundu,  
ta besteen utsegiteak estalitze-  
ko grazia; era onetan amatu ditza-  
gun guziak Jainkoaren izenean  
karidade santua jarraituaz. Amen.  
Jesus.



## IRUGARREN MISTERIOA,

*Jainkoaren Semearen Jayotza.*

**Emen eskatu dezakegun birtutea:**

**Biotzeko pobretasuna.**

¡O Ama Birjiña gozoa! Zure Seme Jesus onak, zeruko gloriaren Jabea izanik, gu salbatzeko pobretasuna beartsu jayotzea nai izan zuan; eta zuk zorioneko Belengo etxola artan zapi pobreetan bildu bear izan zenduan. Miragarritzko gertakari onegatik grazia iritxi zaiguzu, lurreko ondasunen deseo geyegirik iduki ez dezagun; eta Jainkoak biraltzen digun suertearekiñ beti kontentu izan gaitzen. Amen Jesus.



## LAUGARREN MISTERIOA,

*Ama Birjiña Eleizan sartzea.*

Emen eskatu dezakegun birtutea:

**Obedientzia.**

¡O Ama Birjiña gozoa! Beartua  
ezpazeunden ere, zure Seme Jesus  
aurtxoarekiñ Jerusalengo Eleiza-  
ra joanda, obedientzi laxter eta  
alaiiaz legeak agintzen zuan gu-  
zia egiñ zenduan, eskeintzen ziña-  
tela Ama Semeak Aita Jainkoa-  
ri, bere onra ta gure salbaziora-  
ko. Egizu, gure borondate gogo-  
rra bigunduaz, batez ere guraso  
ta nagusi guziakiñ obeditzalleak  
beti izan gaitezela Jainkoaren  
lege santua osotoro goardatuaz,  
Amen Jesus.



## BOSTGARREN MISTERIOA,

*Jesus galdu ta eleizan arkitzea.*

Emen eskatu dezakegun birtutea:

Jesusi jarraitzea.

¡O Ama Birjiña gozoa! Zure senar Jose santuarekiñ batean penaz eta negarrez Jesusen billa ibilli zianan, irugarren egunean arkitzen zenduala Eleizako Erakusle jakiñtsuen artean. Alkantza zai-guzu, Ama maitea, guri ere, pekatuaren bidez Jesus galtzeko zorigaitza izaten badegu, konfesio on batekiñ lenbait len arkitu dezagula, ta gauza guztietan Jesus maitearen naya egitea billa dezagula. Jesus biotzean, Jesus aboan,



Jesus egunaz, Jesus gauaz, Jesus bizitzan, Jesus eriotzan, eta Jesus izan dedilla gurekiñ betikoe-ra guztian zeruko Glori ederrean Amen Jesus.

*Letania 268 garren orrian.*

## **MISTERIO DOLOREZKOAK,**

**Astearte Ostiraletarako.**

## **LENENGO MISTERIOA,**

*Jesemaniko baratzen Jesus onak  
egitñ zuan orazioa.*

**Emen eskatzen dan birtutea da:**

**Pekatuen damutasuna.**

¡O Ama Birjiña gozoa! zure Se-  
me maiteak, Jesemaniko bara-  
tzen, gure pekatuakgatik sufritu



zuan odolezko izerdia ixurtzeraño-ko, agonia triste argatik; ez gaitezela arren bada, pekatuan gogortu; baizik alkantza zaiguzu orientegiazko damutasuna. Amen Jesus.

## **BIGARREN MISTERIOA,**

*Jesus onak sufritu zituan azoteak.*

Emen eskatzen dan ibrtutea da:

Sentiduen ildura edo mortifikazioa.

¡O Ama Birjiña gozoa! zure Seme maiteak Pilatosen etxean gugatik sufritu zituan azote ikaragarri ayekgatik, laguntza iritxi zaiguzu, gure begi ta gorputzeko beste sentiduak ezi, ta arrazoyaren eta lege santuaren menpean beti iduki ditzagun. Amen Jesus,



## IRUGARREN MISTERIOA,

*Jesus onari jarri zioten arantzaz-  
ko koroa.*

**Emen eskatzen dan birtutea da:**

**Nork bere buruaren ukamena.**

¡O Ama Birjiña gozoa! zure Se-  
me Jesus maiteak, arantzazko ko-  
roa jarri ziotenean, eramán zítuan  
mindura gogor ayekgatik, lagun  
zaiguzu, ezi eta bota ditzagun  
gure biotzetik pensamentu oker,  
griña gaizto ta deseo geyegiz-  
ko guziak; iráun dezagun onela  
Jainkoaren maitetasun garbian.  
Amen Jesus.



## LAUGARREN MISTERIOA,

*Jesus onak Gurutzea eramatea  
Galbarioko mendira.*

Emen eskatzen dan birtutea da:

Neke penetan pazientzia.

¡O Ama Birjiña gozoa! zure Se-  
me Jesus maiteak gure animak  
salbatzearren nekez eta penaz  
eramaman zuan Gurutze pixu arga-  
tik, alkantza zaiguzu, gure bizi-  
moduko gurutzea, Pazientziaz  
eramateko, bear degun grazia.  
Amen Jesus.



## BOSTGARREN MISTERIOA,

*Jesus onaren gurutzeko eriotza.*

Emen eskatzen dan birtutea da:

Jainkoa guziaz gañ amatzea.

¡O Ama Birjiña gozoa! zure Seme Jesus maiteak guri zigun amorioagatik, Gurutzean, eta lapur biren erdian, burni gogorrakiñ josisirik, oñaze eta tristura andietan, bere bizitza ta odola eman nai izan zituan,

Lagun zaiguzu, Ama maitea, amodio azkengabe orri bear bezela erantzuten.

Nayago izan dezagula, arren bai, neke ta penarik samiñenak eramatea, ta munduko gauza guz-



tiak galtzea, gure Jaun maitagarrria ofenditzea baño .Amen Jesus.

## **MISTERIO GLORIAZKOAK,**

**Igande, Asteazken ta Larunbatetarako.**

## **LENENGO MISTERIOA,**

*Jesukristoren Piztuera Miragarria*

**Emen eskatu dezakegun birtutea:  
Jainkoagana biurtzea ta animako poza.**

¡O Birjiña guziz garbia! Zenbat eta andiagoa izan zan zure Dolore eta samintasuna, Jesus maitearen Pasio eta Eriotzan, ainbat andiagoa izan zan zure poza; zure Seme Jainkoa pizturik eta edertasunez beterik ikusi zenduanean, Miste-



rio miragarri onegatik iritxi zai-  
guzu animako poza egunetik egu-  
nera Jainkoaren serbitsari leyala-  
goak izan gaitean. Amen Jesus.

## BIGARREN MISTERIOA.

*Gure Jainaren Zerura Igotzea.*

Emen eskatu dezakegun birtutea:  
Zerurako deseoa.

¡O Birjiña guztia garbia! Zure  
Seme Jainkoa Olibeteko menditik  
almen andiaz zerura igotzen ikusi  
zenduanean, zure Biotz mantxa-  
gabea are eta geyago piztu zan  
berarenganako maitetasunean; eta  
onegatik eskatzen dizugu, ez dite-  
zela lotu geyegi gure biotzak lu-  
rreko gauzetara; baizik piztu di-



tezela beti gure barrenean Zeru  
ederra ikusteko deseo biziak.  
Amen Jesus.

## IRUGARREN MISTERIOA,

*Espiritu Santuaren etorrera.*

Emen eskatu dezakegun birtutea:

Espiritu Santuaren doayak.

¡O Birjiña guztiz garbia! Apos-  
toloakiñ batean Seme Jainkoak  
biraldurik Espiritu Santua artu  
zenduan Jerusalengo Apaltegiko  
etxean zeundenean. Eman zaigu-  
zu guri ere Espiritu pozkida-  
tzallearen beraren zeruko argi-  
tasun eta Jainkoaren amorioz-  
ko beste doayak, birtutezko bi-  
de garbian beti zuzen ibilli gai-  
tezen. Amen Jesus.



## LAUGARREN MISTERIOA,

*Ama Birjiñaren eriotz Santu ta  
zerurako jasoera.*

**Emen eskatu dezakegun birtutea:  
Eriotz ona.**

¡O Birjiña guztiz garbia! O zein  
poz eta atzegiñ betea izango zan  
zurea, aingeru ederrak lagun zi-  
ñituela zure Seme Jesus maitea-  
gana jaso zindutenean; Poz orre-  
tan gure biotzakiñ zuri lagun  
egiten dizugularik, umilki erre-  
gutzen dizugu, eriotzako orduan  
gure anparoa izan zaiteala, ta  
zurekiñ gozatzera zeruko glori-  
ra eramán gaitzazula. Amen  
Jesus.



## BOSTGARREN MISTERIOA,

*Zeruko Erregiñaren Koroatzea.*

Emen eskatu dezakegun birtutea:

**Ama Birjiñaganako konfiantza ta Jayera**

¡O Birjiña guztiz garbia! Zure diñatasun eta birtute bikañai zegokien almen eta gloririk andiena. Eta grazi paregabe abek guztiak Trinitade txit Santuak eman zizkitzun zeru goyetako Erregiñaren koroarekiñ batean. Iritxi zaiguzu arren zугanako konfiantza ta egizko jayera biotzekoa, zeruko gozamenean Jainkoaren alabanzak kantatu ditzagun zurekiñ gozatten betikoera guzian. Amen Jesus.



# AMA BIRJIÑAREN LETANIA

Euzkeraz.

Jauna, erruki zaite.

Kristo, erruki zaite.

Jauna, erruki zaite.

Kristo adi gaitzazu.

Kristo entzun gaitzazu.

Zeruko Aita Jaungoikoa.

*Erruki zaite guzaz.*

Munduaren Erosle Seme Jaun-

goikoa. *Erruki zaite guzaz.*

Espiritu Santu Jaungoikoa.

*Erruki zaite guzaz.*

Trinidadede Santu, Jaungoiko bat

zerana. *Erruki zaite guzaz.*

Maria Santa.

Jaungoikoaren Ama Santa,

Birjiñen Birjiña Santa.

Kristoren Ama.

*Erregegu ezazu  
gugatilik.*



**MARIA SANTISSIMAREN LETANIA**  
**Latíñez.**

*Kyrie eleison.*

*Christe eleison.*

*Kyrie eleison.*

*Christe audi nos.*

*Christe exaudi nos.*

*Pater de cœlis Deus.*

Miserere nobis.

*Filii Redemptor mundi Deus.*

Miserere nobis.

*Spiritu Sancte Deus.*

Miserere nobis.

*Sancta Trinitas unus Deus.*

Miserere nobis.

*Sancta Maria.*

*Sancta Dei Genitrix.*

*Sancta Virgo Virginum.*

*Mater Christi.*

R. Ora pro  
nobis.



Grazia Jaungoikozkoaren Ama.

Ama guztiz garbia.

Ama guztiz kastoa.

Birjiña zeralarik Ama.

Ama tatxarik gabea.

Ama sortzetik garbia.

Ama maitagarria.

Ama Miragarria.

Burubide oneko Ama.

Kreatkallearen Ama.

Salbatzallearen Ama.

Birjiña guztiz begiratu.

Birjiña beneragarria.

Birjiña alabagarria.

Esku andiko Birjiña.

Birjiña biotz beraa.

Birjiña leyala.

Birtute guztien ixpillua.

Jakinduriaren eserlekua.

Gure poz emallea.

*Erregeu ezazu gugatik.*



*Mater divinæ gratiæ.*

*Mater purissima.*

*Mater castissima.*

*Mater inviolata.*

*Mater intemerata.*

*Mater immaculata.*

*Mater amabilis.*

*Mater admirabilis.*

*Mater boni concilii.*

*Mater Creatoris.*

*Mater Salvatoris.*

*Virgo prudentissima.*

*Virgo veneranda.*

*Virgo predicanda.*

*Virgo potens.*

*Virgo clemens.*

*Virgo fidelis.*

*Speculum justitiæ.*

*Sedes sapientiæ.*

*Causa nostra lætitiæ.*

*Ora pro nobis.*



Ontzi espiritualala.  
Ontzi begiramengarria.  
Debozioaren ontzi andia.  
Arrosa misteriosoa.  
Dabiden torrea.  
Marfillezko torrea.  
Urrezko etxea.  
Elkartasunaren kutxa.  
Zeruko atea.  
Egun sentiko izarra.  
Erien osasuna.  
Pekatarien iges lekua.  
Atzekabetuen pozkida.  
Kristauen laguntzallea.  
Aingeruen Erregiña.  
Aitalenya Erregiña.  
Igarleen Erregiña.  
Apostoloen Erregiña.  
Mártirien Erregiña.  
Konfesoreen Erregiña.

*Erregu ezazu gugalik.*



*Vas spirituale.*  
*Vas honorabile.*  
*Vas insigne devotionis.*  
*Rosa Mistica.*  
*Turris Davidica.*  
*Turris eburnea.*  
*Domus aurea.*  
*Fœderis Arca.*  
*Janua Cœli*  
*Stella matutina.*  
*Salus infirmorum.*  
*Refugium peccatorum.*  
*Consolatrix afflictorum.*  
*Auxilium Christianorum.*  
*Regina Angelorum.*  
*Regina Patriarcharum.*  
*Regina Prophetarum.*  
*Regina Apostolorum.*  
*Regina Martirum.*  
*Regina Confessorum.*

Ora pro nobis.



Birjiñen Erregiña.

Santu guztien Erregiña.

Jatorrizko mantxagabe sortutako Erregiña.

Errosario txit sagraduaren Erregiña.

Pakearen Erregiña.

Munduko pekatuak kentzen dituzun Jainkoaren bildotsa.

*Barka zaiguzu Jauna.*

Munduko pekatuak kentzen dituzun Jainkoaren bildotsa.

*Entzun gaitzazu Jauna.*

Munduko pekatuak kentzen dituzun Jainkoaren bildotsa.

*Erruki zaite guzaz.*

Ÿ. Erregu ezazu gugatik Jainkoaren Ama Santa R. Kristoren aginduak iritxi ditzagun.

Erregu  
ezazu gugatik.



*Regina Virginum.*

*Regina Sanctorum omnium.*

*Regina sine labe originali  
concepta.*

*Regina Sacratissimi Rosarii.*

*Regina Pacis.*

Ora pro nobis.

*Agnus Dei qui tollis peccata mun-  
di.*

Parce nobis Domine.

*Agnus Dei qui tollis peccata mun-  
di.*

Exaudi nos Domine.

*Agnus Dei qui tollis peccata mun-  
di.*

Miserere nobis.

*V. Ora pro nobis Sancta Dei Ge-  
nitris. R. Ut digni efficiamur  
promissionibus Christi.*



## ORAZIOA.

Erregutzen dizugu Jauna, ixuri dezazula gure animetan zure grazia, Kristo zure Semea gizon egiñzala Aingeruen aotik jakindu degun ezkerro, aren pasio ta gurtzearen bidez piztuerako gloriara eramaneanak izan gaitezen. Kristo gure Jaun beraren merezimentuakgatik. *Ala gerta dedilla.*

## ESKARIA.

Zure anparora gatoz Jainkoaren Ama Santa: ez ditzazula aditu gabe utzi gure premietan egiten dizkizugun eskariak; baizik libratu gaitzazu beti perill guzietatik, Birjiña gloriz eta bendizioz betea.

Jainkoaren laguntza izan dedilla beti gurekiñ. *Ala izan dedilla*



## OREMUS


*Gratiam tuam, quæsumus Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntiante Christi Filii tui incarnationem cognovimus, per passionem ejus et crucem ad resurrectiones gloriam perducamur. Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.*

## DEPRECATIO

*Sub tuum præsidium confugimus, sancta Dei Genitrix: nostras deprecationes ne despiciat in necessitatibus, sed a periculis cunctis libera nos semper, Virgo gloriosa et benedicta.*

*Divinum auxilium maneat semper noviscum Amen.*





## AMOREZKO

ETA

# DOLOREZKO JESUKRISTOREN PAUSOAK.

Kalbarioko estazioak debozioaz  
egiteko arikera.

Debozio onetan Jesukristorekin  
itz egiteko, soseguz ziñatu, *Nere  
Jesu Kristo Jauna*, edo kontrizioz-  
ko aktoa biotzetik egiñ, eta ba-



tek guztien izenean, ofrezimentua esango du onela.

## OFREZIMENTUA.

Aita Eternoa, Jaun guztiz Poderosoa: begira, ez guri; ezpada zure Seme maite Kristoren arpegi ederrari: ta Kalbarioko bide santu onetako pauso guztiak, beraren biotzeko amore ta intenzioaz batean, zure gloririk andienerako izan bitez: eta zeruko ejerzizio onetan diran induljentzi edo barkamen guztiak, Aita Santuak naiduten bezela egiñaz irabazi naiditugu; eta Ama Birjiñaren eskue-tatik Zuk nayen dituzun Purgatorioko Animen alda, ta gure salbaziorako izan bitez. Amen.





## LENENGO ESTAZIOA

*Eriolzako Sententzia Jesukristori  
eman zioten lekua.*

Sentenziatu dute  
Jesus on maitea  
Gurutzean illtzera;  
¡Ause da penea!

Pentsa zazu, kristaua, nola? Je-  
sus gure Salbatzallea, hostiral san-  
tu goizean bost milla ta geyago  
azote, arantzazko koroa ta beste  
tormentuaz gañera, gurutzean ta



lapur biren erdian illtzera Pilatosek kondenatu zuan.

## ORAZIOA.

¡O nere Jesus, Salbatzalle maittea! Azote, arantza, pena ta lotsaz beterik, aiñ ixill eta aiñ umill zure eriotzako sententzia gure kulpakgatik artu zenduana Zure biotzeko amore ta umiltasun onegatik, arren Jauna, iguzu grazia, egizko penitenziarekiñ gure pekatuen kate-etatik libratzeko; zure tribunal justuan gure faboreko sententzia aditu dezagun. Amen.

*Jauna, damu det Zu ofenditua, nizaz erruki zaite.*

*Aita gurea, Abe Maria ta Gloria Aita Santuaren intenziora, ta au pauso guzietan.*





## BIGARREN ESTAZIOA

*Jesu-Kristori gurutzea eman zioten lekua.*

**Emen artu zituan  
Gurutze batean,  
Gure pekatu danak  
Beraren gañean.**

Pensa ezazu, kristaua, nola Jau-nari, burlaz jantzirikako soñeko zarra tiraka koroarekiñ kendu ziotenean, bere soñekoak jantzi ta koroa berriro tormentu gogorrarekiñ sartu zioten; eta eriotza-



ko borreroak gure pekatuen, karga guztia edo gurutzea bere ganean eman zioten.

## ORAZIOA.

¡O gure Jesus, bildots guztiz mansoa! Isaak justuak baño obeto zure sakrifiziorako egurra zure Aitaren obedientzi ta gure amori-oagatik, zure sorbaldan eramane zenduana! Zure biotzeko ontasun onegatik, arren iguzu grazia, gure eragabeko gogo gaizto guziak, zure borondateari bizi-iro sujetatzeko; eta gure kulpai ondoen dagokien penitentzian, gurutzea beti zure ondoren gogotik eramane dezagula; lurreko neke oekiñ zeruko koroa irabazi dezagun. Amen.

*Jauna damu det, etc.*





## IRUGARREN ESTAZIOA

*Gurutzearekiñ Jesus lenengo erori  
zan lekua.*

**Emen eroritzen da  
¡Ay Jesus lurrera,  
Gizona jasotzeko  
Zeruko bidera.**

Pentsa zazu, kristaua, nola gu-  
re Jesus maitea txit nekatu, oñen  
gañean eziñ egon, eta gurutzearen  
kargarekiñ lurrera erori zan. Be-  
gira nola infernuko kanalla ayek



Jaunari lagundu bearrean, osti-  
koka, golpeka ta arrastaka erabi-  
lli, ta nekez jaiki-erazo zuten.

## ORAZIOA.

¡O nere Jesus, Jaun guztiz po-  
derosoa, gure amarez onela argal-  
du, ta lurrera jo arteraño gurutze-  
pean makurtua! Zure amore ta pa-  
zientzi azken gabe onegatik,  
arren zure eskua iguzu, gure kul-  
pa pixuen azpitik, egizko peni-  
tentziarekiñ zugana jaikitzeke, ta  
zure gurutzearen ondoren lurre-  
ko neke ta doloreetan pozik ibi-  
lli gaitezzen, eta zure arpegi ede-  
rra zeruko glorian ikusi dezagun.  
Amen.

*Jana damu det, etc.*





## LAUGARREN ESTAZIOA

*Jesu-Kristok bere Ama txit santa  
topatu zuan lekua.*

¿Zeñek esan lezake  
Amaren penea,  
Onela ikusita  
Ark bere Semea?

Pentsa zazu, kristaua, nola Kalbarioko bide onetan, Jesus onak bere Ama maitea, pena ta negarrezko itxaso bat egiñik, topatu zuan. Begira ondo, begi amorosoaz biak alkar ikusi, ta nola biotz



batak, besteari amorez itz egiñ zion, eta biotz laztan biak dolorez ito edo estutuko ziran.

## ORAZIOA.

¡O Amarik maiteena, dolorez eta ansiaz betea! ¡Zer ezpata zorrotzak zure anima josiko zuen, zure biotzeko Semea ta aingeruen edertasuna tratu artan ikusi zendue-  
nean! ¡Buru arantzaz josirik, arpegi eder ura txistuz, odolez ta autsez itxusiturik; eta gure pekatuen karga edo gurutzea gañean zuala, ta golpeka zeramatela! ¡O Amarik atsekabetuena! Arren iguzu zure Semearen eta zure pena oyen lastima egizko bat; gure pekatuen barkazioa ta zuen amorioa betiko arki ditzagun. Amen.

*Jauna damu det, etc.*





## BOSTGARREN ESTAZIOA

*Jesus maileari gurutzea eramaten laguntzeko, Simon Zirinetarra arlu zuten lekua.*

¿Gurutzea eramaten  
Nai dezu lagundu?  
Bada emen nai dute  
Lagun on bat artu.

Pentsa zazu, kristaua, dolorezko bide onetan nola gure Jesus aín argal eta nekez zijoan eze, judu odolgiroak gurutzearen kargarekiñ ikara ta erortzeko zorian iku-



si, ta S mon zeritzan Zirireko gizon bat Jaunari laguntzeko artu zuten; baña ez lastimaz; baizik zeren gurutzeko tormentuan illtzen ikusi nai zuten.

## ORAZIOA.

¡O Salbatzalle maitea! gure pekatuen karga zure gañean artu, ta gure animen billa aiñ nekez pauso oyetan ibilli ziñana; eta Simon zorionekoaren ejenploan Kalbarioko bidean zuri jarraitzen eta laguntzen, erakutzi ziñiguna! Iguazu arren Jauna, zure pasioko pazientzia, gure pekatuen damu ta zure penen biotzeko lastima andi bat; gurutzea eramaten oraiñ Zuri lagundu; orren frutua goza dezagun Zu alabatzen zeruko glorian. Amen. *Jauna damu det, etc.*





## SEIGARREN ESTAZIOA

*Beronika esaten dan andre  
biotz onekoak Jesus onari bere arpe-  
gia garbitu zion lekua.*

**Arpegiko izerdi  
Eta odoletan,  
Zapi bat bustitzendu  
Iru dobleetan.**

Pentsa zazu, kristaua, nola Jau-  
naren arpegia txistuz, odolez eta  
autzez beterik Beronika santak  
ikusi, iru doblezko zapi garbi bat  
artu, guztien artetik sartu, ta ar-



pegi zerukoa garbitu zion; eta nola iru tolesturetan Jaunak bere arpegia estanpaturik, orren paguan utzi zion.

## ORAZIOA.

¡O gure Jesus, egiazko edertasunaren ixpillua! Zenbat gure pekatuak-gatik itxusiago, anbat guretzat, Beronika Santarentzat bezela maiteago. Baldiñ gure kulpak orrela itxusitu bazinduzten, orien damuak edo egizko penitentziak, zure dolorezko izerdi ta loyak kentzeko, zapi garbiak izan biar dute. Iguzu, Jauna, grazia, biotzeko negarrakiñ gure animak garbitu ditzagun, zure imajiña bi-zi bat orietan jositzeko; ta zeruan zure arpegi ederra beti ikuzteko. Amen. *Jauna damu det, etc.*





## ZAZPIGARREN ESTAZIOA

*Jesu-Kristo bigarren aldian erori  
zan lekua.*

**Bigarrengo aldian  
Emen da erori,  
Oraindikan etzera  
Zu kontuan jarri.**

Pentsa zazu, kristaua, erritik  
kanpora ate batean, nola gure  
Jauna gurutzearen kargak eritu,  
guzia argaldu, bigarren aldian  
erori, ta lurra jo zuan. Begira



nola borrero ayek golpeka jaso zuten, eta Jerusalem galdua Jesus onak utzi zuen.

## ORAZIOA.

¡O gure Jesus, miserikordizko Aita! Munduaren Jabe bakarra Zu izanik, zorayo ta erriaren desonra baziña bezela, Jerusalem dik kanpora atera edo bota zinduzten: ¡Eta orregatik ere erri ditxa-gabe ari lastimaz begiratu zinion! Arren Jauna, zure errukitasun guztiaz gure animai begiratu zayezu, ta gurutzea eramaten guk pozik lagunduko dizugu; eta gure kulpagatik erritik bota bazaituzte, guk gure biotzetan artuko zaitugu, zurekiñ beti bizitzeko. Amen.

*Jauna damu det, etc.*





## ZORTZIGARRÉN ESTAZIOA

*Jerusalengo andreaki Jesus onak  
itzegiñ zien lekua.*

**Pekatua-gatikan  
Negar egiñ zazu,  
Jesus onaren penak  
Orrek eman ditu.**

Pentsa zazu, kristaua, nola Jesus maitagarriak bere desonra ta nekeen artean, lapur gaizto baten gisa bazijoan ere, lastimaz eta negarrez bere ondoren zijoazen andre bioz onekoai esan zien: Jeru-



salengo alabak, ez nigatik negar e-  
giñ; baizikan zuen buruak-gatik ta  
zuen umeak-gatik; bada orien ga-  
ñera gaitz andiak etorri bear dute.

## ORAZIOA.

¡ O nere Jesus, artzai ona beze-  
la, gure animen billa ibilli ziñana!  
Kalbarioko bide gogor artan eta  
zure penen artean ere, andre biotz  
onekoai, ta ayetan guri, pekatuak-  
gatik bear bezela negar egiten  
erakutsi ziñiguna. Arren, Jauna,  
argi bizi bat iguzu, ardi onen gi-  
san zure dei amorosoa aditu, ta zu-  
ri, artzai onari bezela, zuzen beti  
jarraitzeko. Gure biotzeko nega-  
rrakiñ oraiñ Zuri lagundu, ta ge-  
ro gure salbazioko deya zure  
ao gozotik aditu dezagun betiko.  
Amen. *Jauna damu det, etc.*





## BEDERATZIGARREN ESTAZIOA

*Irugarren aldian Jesus erori zan lekua.*

¡Munduko pekatuen  
Gauza txit astuna!  
Irugarren aldian  
Emen jo du lurra.

Pentsa zazu, kristaua, nola al-  
daparen igoeran indarra faltatu,  
Jesus maitea irugarren aldian ero-  
ri, ta bere arpegi ederra autsez  
bete zuen. Jaiki nai, ta eziñ; eta  
etsai gogorrak ostikoka, tiraka,



golpeka ta deadarrez esan zioten:  
ea, laxter jaiki: gurutzean ill bear  
du, an illik ikusi nai degu.

## ORAZIOA.

¡O gure ¡Jesus, zeruko ma'isu  
amorosoa! ¡O nola zure gurutzea  
ta lurreko nekeak amore onez era-  
matera animatzen gaituzun! ¡Ay  
Jauna! Gure kulpak dira Zu bul-  
tzaka ta golpeka lurrean iruga-  
rren aldian erabilli zaituztenak!  
Arren, grazia iguzu, orien peni-  
tentzia egiñ, eta gurutzearen pe-  
nak gure kulpen saria bezela artu  
ditzagun: zure doloreak eta amo-  
rioa ezagutu ta jarraitu ditzagula  
oraiñ; orien sarian zeruko ditxa  
betiko arki dezagun. Amen.

*Jauna damu det, etc.*





## AMARGARREN ESTAZIOA

*Jesu-Kristori bere soñekoa kendu  
zioten lekua.*

**Ona nun daukazuten  
Jesus illotsikan  
Burutik oñetara  
Zauriz beterikan.**

Pentsa zazu, kristaua, nola borre-  
ro odol-zale ayek lastimarik gabe  
Jaungoikoaren Semeari bere so-  
ñekoa lotsa andian kendu, tratu  
gaiztoakiñ arri batean jarri-era-  
zo, ta beazunez nastutako ardoa



eman zioten. ¡O nola burlaka eta gaizki-esaka emen desonratu zuten!

## ORAZIOA.

¡O gure Jesus pazientzi miragarriaren ixpillua! ¡Zer naigabe ta larritasunak zure biotzak artuko zituen, munduaren begietan zure soñekoak kendu, llaga sagraduak berritu, ta lotsa gorrian beazuna edateko eman zizutenean! Arren, Jauna, indarra iguzu, pekatu ta griña gaiztoetan soñeko zarra kendu ta zure amorezko soñeko berria jantzitzeko; eta emengo atsegiñ falso beazunez beteak utzi, egizko zure atsegiñak arkitu ditzagun. Amen.

*Jauna damu det, etc.*





## AMAIKAGARREN ESTAZIOA

*Jaungoikoaren Semea gurutzean josi  
zuten lekua.*

Oñak eta eskuak  
iltzez josirikan,  
Emen zegoan Kristo  
Penaz beterikan.

Pentsa zazu, kristaua, nola Je-  
sus bildots mansoa, aiñ ixill gure  
pekatuak-gatik sakrifikatu bear  
zana, gurutzearen gañean ezarri,  
ta tiraka zañak urraturik, iltze  
gogorrakiñ josi zuten; eta ayek



erremantxatzeko, Jaun zerukoaren gañean jarri, ta golpe bakoi-tzean Ama txit santaren biotz amorosoa Semearen gorputzare-kiñ batean urratzen zuten.

## ORAZIOA.

¡O gure Jesus, pekatuak kentzen dituzun bildots inozentea!  
¡Ay! ¡Eta zer amorezko karobi bizia zure biotza orduan egongo zan! Bada aiñ umill ta pozik zure esku ta oñ sagraduak gurutzean jositzeko, eman ziñituen. Zure amore ta pazientzi onegatik, grazia iguzu Jauna; gure esku ta oñetako pekatuen kateak urratu, ta zure bildur, ta amorezko iltzeaz josi ditzagun; eta zure bildur santu ta amorio garbian beti bizi gaitezzen. Amen. *Jauna damu det, etc.*





## AMABIGARREN ESTAZIOA

*Jesus gure bizitza gurutzean jaso  
eta ill. zan lekua.*

**Emen non Jesus ill zan  
Gizon danakgatik;  
Akordatu zaitezte  
Orain eta beti.**

Pentsa zazu, kristaua, nola gure Jesus, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, gurutzean josi ta jaso zuten; eta gurutzean asentatzeko, bere zañak desegin eta puskatu, ta mendi santu artan gure Salba-



tzallea airean agertu zan. Begira nola lapur biren erdian, tormentu ta burlen artean ill zan.

## ORAZIOA.

¡O gure Jesus, Ama Birjiñaren frutu bedeinkatua, ta (gaur ordu onetan) gure pekatuak-gatik mardarikatua bezela, gure salbazioko frutu gozo egiñ, ta arbola santuan egon ziñana! Gure induljentziako edo barkazioko eguna au da, ta ori zure tormentuak, penak eta llagak; ori zure negar eta biotzeko deadarrak Aita Eternoari eskatzen diote. Alabitz, Jauna: eta gure kulpak egizko penitentziaz desegiñ eta zurekiñ, ill eta betiko bizi gaitezela. Amen.

*Jauna damu det, etc.*





## AMAIRUGARREN ESTAZIOA

*Gorputz Santua jeltxi, eta Ama Birji-  
ñari eman zioten lekua.*

Gurutze gañetikan  
Bere Ama-gana,  
Emen eratxi zuten  
Gure Jesus ona.

Pentsa zazu, kristaua, nola gu-  
re Jaunaren doloreak eriotzare-  
kiñ akabatu, ta Ama txit santare-  
nak oraindik dirauten. Gorputz  
illa lantzadaz idiki, ta Ama Birji-  
ñaren anima josi zuten; eta Jose



eta Nikodemus Santuak gurutzetik jetxi, eta amari presentatu zioten. ¡Zer onen penak, zer negarrak!

## ORAZIOA.

¡O gure Ama txit Santa, pena ta samintasunezko itxaso ondo gabea! ¡Nork esan, edo pentsa dezake zure animan zer igaro zan, zure biotzeko Semea illik besoetan artu zenduenean? Aren buru-esku ta oñak, eta biotz idikia ikusi, ta ¡zer tormentu ta doloreak artu zizituen! Arren bada, gure Amarik maiteena, oriek gatik biotzeko lastima andi bat iguzu; eta pekatuen egizko damutazunez ill gaitetzela, betiko zurekiñ zeruan bizi-tzeko. Amen.

*Jauna damu det, etc.*





## AMALAUGARREN ESTAZIOA

*Obian edo sepultura berrian Jesusen  
gorputza sartu zuten lekua.*

Obí berri bat nai du  
Zure biotzean  
Jesus illak; betiko  
Zu bizi zaitean.

Pentsa zazu, kristaua, nola do-  
lorezko Amaren besoetatik nekez  
Gorputz Santua Jose ta Nikode-  
musek artu, izara berri eder ba-  
tean egizko Kristo garbiro unta-



tu, ta arrizko obi berrian debozio andiaz sartu zuten. ¡O zer pauso onetako Ama Birjiñaren dolore ta negar samiñak.

## ORAZIOA.

¡O martiri guztien Erregiña! samintasunezko pauso onetan, Jesus zure amorezko ta dolorezko lorepilla bat egiñ, eta zure biotza-  
ren erdian beti gorde zenduena. Zure martirio pare-gabe onegatik, arren zure eskua iguzu, ta ditxarrik andiena, au da, zure bakardade triste onetan zuri lagun egitea. Gure kulpen penitenziarekiñ lurreko gauzak utzi, ta zure Seme Jesus eta Zu beti amatzeko zerruan. Amen.

*Jauna damu det, etc.*





**Jesu-Kristoren bost llaga sagra duen**  
**ADORAZIOA.**

Nere Ama doloretakoa; zure Se-  
meak nigatik artu zituan bost lla-



ga preziosoak zure aurrean adoratu nai ditut eta oriek adoratzen, Zuk iduki zenduan espiritu eta amorioa beti iduki nai nuke.

### Eskerreko oñeko ilagari.

¡O nere Jesusen llaga prezio-  
soa! Biotz guztiaz adoratzen zai-  
tut: eta orregatik eskatzen dizut,  
Jauna, nere pauso ta ibillera gaiz-  
toakiñ egiñ dizkitzudan ofensa  
guztien barkazioa. *Aita gurea*  
*Abe Maria ta Gloria.*

### Eskuiko oñeko ilagari.

¡O nere Jesusen llaga prezio-  
soa! Biotz guztiaz adoratzen zai-  
tut: eta orregatik eskatzen dizut,  
Jauna, nere itz eta obra gaiztoa-  
kiñ egiñ dizkitzudan ofensa guz-



tien barkazioa. *Aita gurea, Abe Maria ta Gloria.*

### **Ezkerreko eskuko ilagari.**

¡O nere Jesusen ilaga prezioso! Biotz guztiaz adoratzén zaitut, eta orregatik eskatzen dizut, Jauna, nere begiaz eta beste sentiduaz egiñ dizkitzudan ofensa guztien barkazioa. *Aita gurea, Abe Maria ta Gloria.*

### **Eskuiko eskuko ilagari.**

¡O nere Jesusen ilaga prezioso! Biotz guztiaz adoratzén zaitut: eta orregatik eskatzen dizut, Jauna, nere memori, entendimentu ta borondateaz egiñ dizkitzudan ofensa guzien barkazioa.

*Aita gurea, Abe Maria ta Gloria.*



## Kostado sagraduko Ilagari.

— ¡O nere Jesusen ilaga prezio-  
soa! Biotz guztiaz adoratzan zai-  
tut: eta orregatik eskatzen dizut,  
Jauna, nola zure biotza lantza go-  
gorrak josi zuan, eta zure Ama  
txit santarena ezpata zorrotzak,  
ala nere anima zure amorioaz be-  
tiko josi dezazula: bada ill naya-  
go det Zu ofenditu baño. *Aita  
gurea, Abe Maria ta Gloria.*

**Bost Ilagai San Franzisko**

**Jabierrek egunero egiten zien**

## ORAZIOA.

Nere biotzeko Jaun eta Jaun-  
goiko Jesu-Kristo, bost ilaga gu-  
rutzean eta beste eziñ kontatu ala



zure pasioan gure amorioak ar-erazo zizkitzunak gatik, eskatzen dizut, zure odol preziosoaz redimitu ginduzonok, arren zure ontasunak gorde, ta sure gloriara eramán gaitzala, Amen.







## SAN JOSERI ORAZIOA.

---

Jose txit garbi, Aitalenen onra,  
Jainkoaren Biotzaren nai-erako  
gizona, famili sagraduaren bu-  
rua, Jakinde ta urrikaltasun neu-



rrigabearen asmo ta gogo esan  
al baño goragoak bete edo kun-  
plitu zinduena, Jesusen aita uste-  
koa, ta Mariaren esposo ditxosoa;  
izeñ atsegiñ dedan malla orren go-  
ratura jasoa ta orrek eskatzen di-  
tuen bertute andi ta ederrez apain-  
dua zu ikusteaz! Aurtxo jainkoa-  
ri eman ziñiozkan laztan gozo  
ayek-gatik erregutzen dizut, ar na-  
zazula zori oneko istante onetatik  
zure serbitzarien artekotzat. An-  
para itzazu persona garbi edo Bir-  
jiñak, o Mariaren garbitasun pa-  
regabearen gordetzallea, ta iritxi  
zaiguzu gorputzeko ta animako  
garbitasuna loitu gabe gordetzeko  
grazia. Eta munduaren Salbatza-  
llea mantendu ta gordetzea-ga-  
tik eramán ziñituen pobreza andi,



izerdi ta estura larri ayekgatik  
erruki zaite pobre ta naigabeturik  
daudenaz; iguzu gorputzarentzat  
bear degun janaria, ta iritxi zai-  
guzu bizitz onetako neke guru-  
tzeak onez eramana, eternidade-  
rako ondasun andiak biltzeko gra-  
zia. Izan zaite ezkonduen anpa-  
roa, Aita zorionez betea; ta egizu  
aitak eta amak zure bertuteen  
irudi ta beren seme alabentzat  
gauz on guzietarako ixpillu iza-  
tea. Ar itzazu zure mantupean sa-  
zerdote ta erlijiosoak, eta egizu  
oriek zure bizitza barrengoaren  
antzeko bat egiñaz, beren bearga-  
yak zuk zere bizimodukoak egiñ  
ziñituen beziñ ongi egitea. Bete  
gaitzazu bizitzan bendizio uga-  
riz, eta eriotzeko esturan gu gal-



tzeko egiñal guziak infernuak egiñ ditzanean, ez gaitzazu utzi, agonian daudenen laguntzalle esku guztiz andikoa: ta alabaña Jesususekiñ Mariaren besoetan illtzeko suerte zorionekoa izan zenuan, iritxi zaiguzu gure pekatuen damu biziz josi, ta Jesus Maria ta Zure izen guztiz gozoak biguntasun irazeki batez esanaz, illtzeko grazia.

## BESTE ORAZIOA.


Kontura zaitte, o Maria Donzellaren Esposo txit garbi ta nere anparo maitagarri San Jose, sekulan aditu ezdala, esaten, zure anparoa deitu; ta zure laguntza eskatu duen iñor ere pozkida gabe geratu danik Zure esku andian



konfianzaz beteta zure aurrera etorri ta naitasun guziaz zure kontura uzten naiz. ¡A! ez arren entzun-gabe utzi nere erreguak, o nere Salbatzallearen Aita uste-koa; baizik ar itzazu onez, eta egizu arren errukiz, beren bidez ezkatzen dizudana.

Au errezatzen dan egun bakoitzean irabazten da 300 eguneko induljentzia, eta egun oro debozioaz errezatuta illean induljenti plenari bat. Pio IX-ak 1863-garren urteko garagarrillaren 26-an. Eta Patriarka gloriatsu oni Martxoko illa kon-sagratuta, Mariaren illa egiten dutenai emanak dagozkien induljenizi ber-berak (1865-garreneko apirillaren 27-an). Bartzuek eta besteak Purgatorioko animen alde eman litezkeanak dira.





FEDEZKO, ESPERANTZAZKO ETA  
KARIDEEZKO EGINTZAK.

---

FEDEZKO EGINTZA.

Sinisten det Jainko egiazko bat dala, ta iru persona bana diranak, zeñak diraden Aita, Semea, ta Espiritu Santua. Sinisten det Trinitade txit Santuko bigarren Persona egiñ zala gizon, Maria



txit santaren errai garbietan, Espiritu Santuaren egitez; gelditzen zala Señora soberana au Birjiña, Semea egiñ baño len, egitean eta egiñ ezkerro. Sinisten det Jaun onek padezitu zuala, ta ill zala 'gu salbatzea-gatik, piztu zala illen artetik irugarren egunean, igo zala zeruetara, ta etorriko dala biziak eta illak juzgatzera; au da onak sariztatzera eta gaiztoak kastigatzera, sinisten det Aldareko Sakramentu Santuan dagoala Jesu-Kristo gure Jauna, Jaungoiko ta gizon egiazkoa zeruan dagoan bezela. Sinisten det Ama Eliza, Santa Katolika Erromakoak sinisten duan guztia, ta Fede onetan nai det bizi eta ill.



## ESPERANTZAZKO EGINTZA.

Dadukat esperantza Jainkoga  
gana, barkatuko dizkidala nere  
pekatu guztiak, eta emango dira-  
la bere grazia ta gloria, bere mi-  
serikordi azken gabeca-gatik, Je-  
su-Kristo gure Jaunaren merezi-  
mentuak-gatik, eta aren Ama txit  
santaren erreguak-gatik; egiten  
badet nere partetik obligazio de-  
dana, ta egiñ dezakedana, au da,  
penitentzi egiazkoa.

## KARIDADEZKO EGINTZA.

Amatzen det Jainkoga beste gau-  
za guztiak baño geyago, ta na-  
yago ditut galdu guztiak, nere  
Jainkoga ofenditzea baño. Eta nai



nuke amatu, munduko justu guztiak, eta zeruko zorionekoak eta serafin guztiak amaten duen bezela. Eta inola albaliteke, nai nuke amatu beraren Ama ta nere Señora Maria txit santak amaten duan bezela. Bera ez amatua: eta ainbeste aldiz nik ofenditua: eta izatea ainbeste bera ofenditzen dutenak; eta guztiak ez amatzea nere Jaungoiko ta nere Jabe maitagarriya, bera dana izanagatik; damu det, damu det nere biotz guztitik, eta asmo sendoa artzen det bizitza ontzeko, ta irauteko azkeneraño aren serbitsu santuan, bere grazia lagun dedala. Amen Jesus.





## Jesu-Kristoren Pasioa Neurtitzetan.

---

1. Jesu-Kristori kendu ezkerro  
Pekatuakiñ bizitza,  
Baldiñ ezpadet negar egiten,  
Arrizkoa det biotza,  
Guziok lagun,  
Kanta dezagun  
Bere penazko eriotza.
2. Mundua baño lenagotikan  
Señalaturik eguna,  
Alderatu zan obratze-kotzat



Gizonaren osasuna;  
Argia bera  
Alde batera,  
Beztetik egun illuna.

3. Ostegun santu apal-ondoan  
Bere lagun zituala,  
Jesusen iru ikasleai,  
Itz egiñ zien onela:  
Triste nago ta  
Lo ori bota,  
Egizute emen gaubela.

4. Jetsemaniko ortu santuan  
Auspez lurrean jarririk,  
Eskatzen zion, libra zezala,  
Aitari, kaliz artatik;  
¿Jesus penatzen,  
Odolez urtzen,  
Eta ez det nik negarrik?

5. Izerdi otsa arpegian, ta  
Biotza penen artean  
Triste anima, gorputza larri  
Agoniako tranzean;  
Baña ala ere



Zegoan firme  
Aitaren borondatean.

6. Juduak Judas lagun arturik  
Etorri ziran itantzen  
¿Nazarenoa deritzan Jesus  
Emen ote da arkitzen?  
Judas orduan  
Pake moduan  
Dijoa musu ematen.

7. Zenbat dirade Judas bezela  
Kristoren adiskideak,  
Kanpotik laztan, barrendik saldu,  
Ausirik beren legeak:  
¡A kristau falso,  
Anima gaizto,  
Gezurti salkindariak!

8. Erantzun zuan Jesus maiteak  
¿Zeñen billa zatoz ona?  
Ona emen nago, ezta besterik  
Naiko dezuten gizona:  
Joateko ez det nik  
Soka bearrik,  
Ez eldu lagunok gana.



9. Eskuetatik an lutu zuten,  
Guzien libertadea,  
Zergatik au zan nere onean  
Jaunaren borondatea,  
Ala urratzeko  
Ainbat urteko,  
Pekatuaren katea.
10. Ikaslariak beren Maisua  
Zutenean ala ikusi,  
Bakar bakarrik bera utzita,  
Juan ziraden igesi;  
Pedro zetorren  
Bere ondoren,  
Baña au ere urruti.
11. Badaramate Jerusalengo  
Sazerdoteen aurrera  
Ikaslarien gañean eta  
Dotriñan kontu artzera;  
Kaifas gaiztoa  
Aurrenekoa  
Asten zayo itantzera.
12. Ez det nik dio Salbatzalleak,  
Predikatu ezkutuan,



Agirian zan nere dotriña,  
Sinagogan ta tenploan;  
Ez neri galde,  
Asko dirade  
Entzun nautenak munduan.

13. Itz oyek entzun zituanean  
Soldadu batek bertatik,  
Gora darama bere besoa  
Eta darautso Jaunari;  
Jakiñ dezazun,  
Nola erantzun,  
Berriz Pontifizeari.

14. Esan ta egiñ, ematen dio  
Bere arpegi ederrean  
Belarrondoko portiz bat, eta  
Ezarri zuan lurrera,  
¿Eta zeruan  
Daude lotuak  
Au ekusten dutenean?

15. ¿Noizko dirade, Aita Eternoa,  
Tximistak eta arrayoak,  
Ez erretzeko an bereala  
Esku aiñ sakrilegoak?



Aingeruak, ea,  
Atozte egan,  
¿Nun dituzute egoak?

16. Baldin nik gaizki itz egiñ badet,  
Arrazoï eman ezazu,  
Baldiñ ezpadet, dio Jesusek,  
Ezertan ere erratu;  
¿Zergatik emen,  
Itz egiñ arren,  
Onela tratatzen nazu?

17. Indazu, Jesus biotzekoa,  
Zure sufrimentu ori,  
Jakiñ dezadan, nola penetan  
Emango dedan arpegi,  
Barkaturikan  
Biotzetikan  
Etsairik andienari.

18. Damu det Jauna, biotz guztitik  
Zu ofenditu:izana,  
Ez, ez geyago pekaturikan  
Nere Jaungoiko laztana;  
Kulpak ditut nik,  
Betoz argatik,



Pena oriek nigaua.

19. Sua zegoan atarian, ta  
Pedro su artan berotzen,  
Zeren biotzak amorioan  
Ots asko zion sentitzen;  
Suaren keak  
Bere begiak  
Negarrez bete zituen.
20. Osta ollarrak goiz eman zuan  
Bi biedr bere soñua,  
Nun iru aldiz ukatu zuan  
San Pedrok bere Maisua;  
Ezta besterik  
Okasiotik  
Ateratzen dan pagua.
21. Kaifasek berriz galdetzen dio,  
Egiñik juramentua;  
Esan zadazu Jesus, bazera  
Mesias len-agindua;  
Ala ezpada  
¿Zertako izanda  
Engañatzea mundua?
22. Bazekien bai Jesusek nora



Zijoan bere aitormena;  
Au zala bera kondenatzeko  
Kaifasek naiko-zuena;  
Eta orrekiñ  
Nai ziola egiñ  
Illtzeko agirimena.

**23.** Ala ere bayetz erantzuten du,  
Aitari begiraturik,  
Baita Kaifasek ere deadar  
Soñekoak urraturik;  
Blasfemo-ena  
Da onen pena  
Salatu du bere aotik.

**24.** Jaikitzen dira Batzar artatik  
Eta artzen dute bidea  
Samin-calera, nun Pilatosek  
Zedukan bere etxea;  
Zan Erromako  
Denbora artako  
Juduen Agintzallea.

**25.** Juezak dio: emango badet  
Gizon au eriotzara;  
Ekarkizute kausa justuak,



Ezpadirade ¿zertara

Darabiltzute?

Eramazute

Or Herodesen aurrera,

**26.** Aita eternoaren Jakinduria

Dauka munduak zorotzat,

Argatik dio Errege orrek

Jantzi tunika zuri bat,

Bestela ¿nola

Zeruko estola

Erosiko zan guretzat?

**27.** Esan zioten Pilatos-orri

Juduen Sazerdoteak;

¿Uste aldezu ez ditugula

Guk ere geren legeak?

Blasfematu du;

Merezi ditu

Eriotza ta azoteak.

**28.** Onek esan du, izanik arotz

Pobretxo baten Semea,

Dala Jaungoiko Semea eta

Judeako Erregea;

Itzen, ezpadezu,



Etzera ez zu  
Zesar-en adiskidea.

29. Naiko zukean Juezak Jesus  
Eriotzatik libratu;  
Zergatik zala kulpa-gabea  
Ondo zuan ezagutu;  
Bañan Juduak  
Zeuden itxuak,  
Etzioten utzieratu.

30. Eriotza bat egiñda, dio;  
Dago Barrabas karzelan,  
¿Nor nai dezute, Nazarenoa,  
Edo au libra dezadan?  
Da kostunbrea  
Bat libratzea  
Zuen Pazko egunean.

31. Ozta aotik atera zuen,  
Asi ziran deadarrez,  
Libra ezazu Barrabas, bañan  
Jesus Nazarenoa ez;  
Orrek bear du,  
Ondo penatu  
Abe batean dolorez.



32. Berriz galdetzen du Pilatosek  
Baña ¿Zer kausa eman du?  
¿Bera Israelko Errege dala  
Esatea da pekatu?  
Ayek deadar,  
Errege Zesar,  
Ori gurutzetu zazu.
33. Justiziako lege guziak  
Utzirik alde batera,  
Salbatzallea kondenatzen du  
Gogorki azotatzera;  
¡O zeru goyak  
Nolako epayak,  
Datoz ortikan lurrera!
34. Jaungoiko ura, mendi zelayak  
Dauzkana lorez jantzirik,  
Itsuskerian bere arropak  
Tunikaraño erantzirik,  
Narru gorrian,  
Egun argian,  
Utzi zuten lotsaturik.
35. ¿Nora zerate gaba ta odayak?  
Illuntasuna ¿Nun zera?



¿Nola etzatozte Birjiña Amaren  
Seme eder au estaltzera?

Orra eguzkia,

Zure argia

Biral ezazu atzera.

36. Bost milla azote eta geyago,

Loturik pillare baten,

Asi ziraden iru borrero

Beren espaldetan ematen;

Ibai bat nola,

Ala odola,

Abiatu zan ixurtzen.

37. Arriak eta Salbatzalleak

Biak alkar ziruditen;

Zergatik etzan aren aotik

Sentimenturik aditzen,

Marmolak berak

Golpe gogorak

Zituanean sentitzen.

38. Pillare artatik bereala Jauna,

Soldaduak askaturik,

Dijoazkio adoratzera

Burlaz Errege egiñik.



Bere koroa  
Arantzazkoa  
Buruan agitz josirik.

39. Mantu zatarra soñean, eta  
Kañabera bat eskuan,  
Onela Jesus tratatzen zuten,  
Pekatariak munduan;  
Mundua bera  
Salbatutza  
Jauna zijoan orduan.

40. Jesus onela ikusi, eta  
Pilatos errukiturik  
Dio berriz: nik ez det arkitzen  
Gizon onetan kulparik,  
Ill-ezazute,  
Nai-badezute,  
Erroman ez da legerik.

41. Ayek deadar: Jauna dalako  
Pilatos bildur bazera,  
Datorkiela gure animai  
Orren odola gañera;  
Ez gera ardura,  
Gure kontura



Kondena ezazu gurutzera.

42. Juez gaiztoak Judu gaiztoen  
Esana egitea-gatik,  
Barreatzen du sententzia bat  
Ez inork okerragorik,  
Ala ere nai du,  
Libre gelditu  
Jainkoaren odoletik.

43. Alfer alferrik Lenendaria  
Garbitzen dituk eskuak,  
Juez justutzat iduki azan  
Mozorro ori munduak;  
Loiturik ago,  
Bañan geyago  
Y bañon ere Juduak.

44. Gurutze batean mundu guziko  
Pekatuak zituala,  
Abiatu zan Kalbariora  
Jesus lapur bat bezela,  
Artu gurutzea  
Au da bidea,  
Galduko, gera bestela.

45. Salbatzallea pauso bat ere



Eziñ emanik aurrera,  
Arbola aztunak azpiraturik,  
Bentzutu zuan lurrera;  
¡O pekatua!  
Zure pixua  
Karga guzia zu zera.

46. Eziñ bakarrik eramán zuan,  
Zalako guztiz astuna,  
Eta argatik eman zioten  
Zirinetarra laguna,  
Ditxasko gizon  
Zerade Simon:  
¡Nork lukean zure eguna!

47. Bide onetan zijoanean  
Kalbarioko mendira,  
Bere Semea ikusitzeko,  
Ama zegoan begira;  
An dira penak;  
An tormentuak,  
Martirioak an dira.

48. Ama Birjiña dolorezkoa,  
Itxi itzazu begiak,  
Estali zaite, aiñ gabe ere



Asko darama Semeak  
Tormenturikan,  
Batere itzikan  
Ez dizu utziko negarrak.

49. Biraltzen ditu Amak begiak  
Semearen ikustera,  
Bañan biotzak sufritu eziñ ta  
Biurtzen dira atzera;  
Datoz argatik  
Begiak-gatik  
Biotzak itz egitera.

50. Semearenak esaten dio;  
Badakizu, Ama maitea,  
Asko sentitzen badezu ere  
Onela ni ikustea,  
Bestela eziñ  
Zerutarekiñ  
Egiñgo dala pakea.

51. Nere Aitareñ borondatea  
Nola dan ongi dakizu;  
Aren esanak narama; agur,  
Bendizioa indazu,  
Nere ordeaz



Pekatariaz

Kontu zuk iduki zazu.

52. ¡Ay! zoaz, nere Seme maitea,  
Illtzera ordu onean;

Bañan ¿Ay nola utzi nai nazu

Aiñ bakartazun tristeau?

¿O nola bai nik,

Eta ondo pozik

Jarraituko nizukean!

53. Salbatzalleak onela penaz

Egiñik bide erdia,

Beronikaren Karidadeak

Kendu zion izerdia,

Obra onen sari

Emanik oni

Pinturan bere arpegia.

54. Zeramazkien bere laguntzan

Jerusalengo alabak,

Penaren andiz begietatik

Urturik beren biotzak;

Eta oyegana,

Biurturik Jauna,

Dio, ¡Ay emakumeak!

55. Arbol eze au erretzen badu



Pekatuaren sugarrak

¿Nola ez ditu kixkal-erreko

Su orrek egur igarrak?

Ez neri negar,

Ez det nik bear;

Pekatuari negarrak.

56. Eldu ziraden Kalbariora,

An zeuden prest borreroak,

Mundu guziko Egilleari

Josteko oñ eta eskuak,

Ikusi zezan

Bigarren Adan

Arbola artan munduak.

57. ¿Nork ditu esku-oñ orietan

Burniarekiñ idiki,

Gorrotoak edo amorioak

Odolezko lau iturri?

Bularretikan

Ate egiñikan

Amorioa da agiri.

58. Beltzez jantzirik eskutatzen du

Zeruak bere arpegia;

Lotsagatikan gelditzen dala

Gorriturik Illargia.



Gau illunean

Zegoanean

Altuena eguzkia.

59. Austen dirade arriak, ¿nola

Daude biotzak osorik,

Abe batean dolorez illtzen

Gure bizitza ikusirik?

Pekatariak,

Gora begiak

• Negar iturri egiñik.

60. Egiñgo dizut gogotik negar

Jarririk zure oñean,

Nere Jaun ona zaitudalako

Nik ipiñi gurutzean;

Txit damaturik

Maite zaitut nik

Gauza guzien gañean.

61. Izanagatik, ¡ay nere Jesus!

Ni pekatari andia,

Prezioso da zure Odola,

Dagokidala balia;

Barka zadazu,

Izan ezazu,

Arren nizaz Errukia





## Anima damuti baten negarrak.

---

1. Entzun itzazu pekataria  
Anima baten negarrak;  
Jakiñ dezazun salbatutzeko  
Dirala guziz bearrak.
2. Dolorez triste zauden anima  
Zer dezun arren ezazu,  
Negar oriez nere biotza  
Erdiratutzen dirazu.
3. Jaungoikoaren ofensak dira  
Zuk dituzunak ain damu,  
Biotz guziaz billa bazera  
Ez da oraindik berandu.



4. Barren orretan senti dituzun  
Jaunaren desengañoak,  
Utsi eragiñ dizute oraiñ  
Lenengo pauso galduak.
5. Pekaturako dibersioak  
Lagarik alde batera,  
Erretiroan zere burua  
Bazoaz ezkutatzera.
6. Ezkutu artan billatzen dezu  
Bakardadean lekua,  
Nolabait ere irabazteko  
Lengo denbora galdua.
7. Begi oriek bustirik bada  
Jesu-Kristoren oñetan,  
Auspez etziñik ikusten zaitut  
Negarrez modu onetan.
8. Nere Jaungoiko laztana, arren,  
Nizaz miserikordia,  
¿Zugana baizik nora biurtu  
Diteke pekataria?
9. Arpegitikan lotsa darraikit  
Zugana agertutzean,  
Gogoraturik zer egiñ dedan



Zu ala ofenditzean.

10. Badakit, Jauna, dedala ondo  
Merezitu infernua,  
Egon naiz bada nere bizitzan  
Zuzaz ni beti aztua.
11. Gurutze onetan Zu ipintzeko  
¿Zer izan zan motiboa?  
¿Zer izango zan baizik dirazun  
Beliko amorioa?
12. Beraz orrela seguru nator  
Gurutze onen oñera,  
Barkazioaz dudarik gabe  
Zure grazian jartzera.
13. Jesus nerea, izan ote da  
Munduan pekataririk,  
Nik beziñ gaizki amorio orri  
Erantzun izan dionik?
14. Orain bezela denbora batez  
Ezagutu izan bazinduzt,  
Ez aiñ erraz ¡Ay! nere Jabea,  
Ofendituko ez zinduzt.
15. Zergatik orain ditut ainbeste  
Zure ofensak sentitzen,



Nun da biotza nere artean  
Daukat dolorez partitzen.

16. ¡Ay nere Jesus! ay ¡nere Jabea!  
¡Ay nere Aita gozoa!  
Urratu dezu infernukuak  
Ezarri ziran lazoa.
17. ¿Zerekiñ oraiñ pagatuko det  
Zure erruki aundia,  
Itxodotean ainbat denboran  
Ni beziñ pekataria?
18. Zuk bear dezu aurrerakoan  
Nere biotzaren jabe,  
Beste guziak galduta ere  
Ez naiz izango zu gabe.
19. Adio mundu, adio lagun  
Nai ezpadezu jarraitu,  
Utzi zadazu nere moduan  
Dezadan Jauna serbitu.
20. Negar abekiñ garbi nai ditut  
Nere animako loyak,  
Txiki ta andi izan ditudan  
Nere pekatu guziak.
21. Badakit oraiñ lagun gaiztoak



Esan dutela nigatik,  
Salbatu uste guk ere degu,  
¿Zergatik zoaz gugandik?

22. Baldiñ biurtzen ezpazerade  
Lengo adiskide-etara  
Bizitza triste orrekiñ zatoz  
Zere burua galtzera.

23. ¿Zenbait obe zan orain aldian  
Aprobetxatu munduaz?  
Urterik asko gelditzen zatzu,  
Bizitzeko penatuaz.

24. ¿A lagun gaizto! ¿a lagun falso!  
¿A lagun beti itxua!  
Ik emango dek egun batean  
Anima askoren kontua.

25. ¿A zenbat bider baliatzen dan  
Etsaya ire mingañaz,  
Jesu-Kristori lapurtutzeko  
Anima ire gezurraz?

26. Baldakik ondo zer pixu duan  
Jesu-Kristoren odolak?  
Onen kostuan erori dituk  
Galdu dituan lagunak.



27. Itxok pixka bat, etorriko dek  
Iretzat egun larria,  
Orduan ongi ezagutuko dek  
Ire pekatu andia.
28. Baña zuk orain, nere anima  
Itxi zere belarriak,  
Ez entzuteko lagun gaiztoen  
Gaizki esan galgarriak.
29. Desprezioaz mundu zoroa,  
Etsaya orazioaz,  
Aragi ori menderatzen da,  
Okasiotik bazoaz.
30. Izan dituzun tentazioaz,  
Ez dezu zertan bildurtu,  
Santu guztiak zure fabore  
Zere aldetik dituzu.
31. Oyek bai oyek, dira konseju  
Animari egokiak,  
Ondo sarturik zere gogoan  
Iduki itzazu guziak.
32. Mundu onetan egiño dezu  
Santuen bizi gozoa,  
Anima garbi, alai biotza



Guzia Jaungoikozkoa.

33. Pekatariak dauke biotza  
— Dana arantzaz josirik,  
Barrungo kezka farra falsoak  
Disimulatu eziñik.
34. ¿Zer dauka oraiñ zer ikusirik  
Bizitza batak besteaz,  
Munduan ere igarotzeko  
Kontentuz eta pakeaz?
35. Artu dituzun asmo santuak  
Utzitzen ez badituzu,  
Illtzerakoan zenbat kontentuz  
Estimatuko dituzu.
36. Astu gaberik iduki itzazu  
Azken itz oek gogoan,  
Lo gozo batek artuko zaitu  
Jesu-Kristoren besoan.
37. Entzun dituzun pekataria  
Anima onen negarrak,  
Guziak dira Jaungoiko onak  
Eman dizkitzun deadarrak.
38. Biurtu zaitetz albait laxterren  
Zere Jaungoikoa-gana



Bere besoak zabalik dago  
Artzeko zu beregana.

39. Milla amorez artuko zaitu,  
Bere besoen artean,  
Zergatik eztan Aita besterik  
Zeruan eta lurrean.





## ARKI-BIDEA.



	Garren orrian.
	—
Obispo Jaunaren baimena. . . . .	4
Irakurleari abisoa. . . . .	5
Orazio mentala edo ixilikakoa egiteko modua. . . . .	9
Egunero eta meditazio bakoitzean egitiñ bear diran aktoak. . . . .	10
Meditazioaren bukaera. . . . .	12
Gure azken-fiñen gañean meditazio laburrak. . . . .	13
Illaren egun bakoitzerako meditazioak	21
Goizeko Orazioak. . . . .	76
Maria txit santari esker onezko Ora- zioa. . . . .	78
Aingeru goardakoari Orazioa. . . . .	78
Bere izeneko Santuari Orazioa. . . . .	79
Iru Abe Mariak. . . . .	81
Mayeko orazioak. . . . .	82
Arratzerako Orazioak. . . . .	83
Ondo konfesatzeko ejerzizioa. . . . .	86
Ama Birjiñari eta Santuai Orazioa. . .	88



Konzienziaren esamiña. . . . .	89
Esamiña ondorengo Orazioa. . . . .	112
Barkazioa eskatzeko Orazioa. . . . .	113
Konfesatu baño lenago egiteko Kon- triziozko aktoak. . . . .	116
Konfesioa aurrerako iru konsiderazio. . . . .	119
Konfesio odorengo Orazioa. . . . .	124
Komunio espirituala egiteko iru mo- du errazak. . . . .	125
Ondo Komulgatzeko ejerzizioak. . . . .	129
Komunio Santua artzeko modua. . . . .	133
Komunio ondorengo eskaria. . . . .	135
Orazio jakiña Aita San Ignaziok beti esaten zuana. . . . .	138
Ama Birjiñari eta santuai Orazioa. . . . .	139
Meza santua zer dan. . . . .	142
Mezako misterioen ikasbidea. . . . .	143
Meza aurreko Orazioa. . . . .	147
Meza entzuteko modua eta Orazioak. . . . .	149
Bost aldaretako Orazioak. . . . .	198
Bezperak Kantatzen diran artean per- sona debotoak letu ditzaketan Konsiderazio egokiak. . . . .	200
Aldareko Sakramentu Santuari egiten zayon bisita . . . . .	226
Biotz barrendik ateratzen diran nai- tasunezko itzak. . . . .	227
Jesusen biotz jainkozkoari Orazioa. . . . .	230



